

**2021EKO APIRILAREN 21EKO BATZAR NAGUSIAREN
BATZAR-EGUNKARIA (ITZULPENA)**

**DIARIO DE SESIONES DE LA SESIÓN PLENARIA DE
FECHA 21 DE ABRIL DE 2021 (TRADUCCIÓN)**

AURKIBIDEA

Orrialdea

- Batzarra hasi da.....	4
- BIGARREN IDAZKARI jaunak gai-zerrendako lehenengo puntua irakurri dau: “Igone Porto Gómez andrearen batzarkide-egiaztagutuna.”	4
- BIGARREN IDAZKARI jaunak gai-zerrendako bigarren puntua irakurri dau: “Bizkaiko kontratatuko eta foru-sektore publikoko lan-baldintzak hobetzea.”	4
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Escalante Mesón batzarkide jaunak hartu dau berbea	5
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Andrade Aurrecoechea batzarkide jaunak hartu dau berbea.....	6
- Euskal Sozialistak taldeko Álvarez Castrejón batzarkide jaunak hartu dau berbea	8
- EH Bildu taldeko López Odriozola batzarkide jaunak hartu dau berbea	9
- Euzko Abertzaleak taldeko Bagan Urtiaga batzarkide jaunak hartu dau berbea	11
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Escalante Mesón batzarkide jaunak hartu dau berbea	12
- Euskal Sozialistak taldeko Álvarez Castrejón batzarkide jaunak hartu dau berbea	14
- EH Bildu taldeko López Odriozola batzarkide jaunak hartu dau berbea	14
- Euzko Abertzaleak taldeko Bagan Urtiaga batzarkide jaunak hartu dau berbea	16
- LEHENDAKARI andreak gai-zerrendako hirugarren puntua irakurri dau: “AP-68an bidesaria ordaintzea.”.....	16
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Fernández Angulo batzarkide andreak hartu dau berbea.....	17
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Lobato Pascual batzarkide jaunak hartu dau berbea	19
- EH Bildu taldeko Méndez Urigoitia batzarkide jaunak hartu dau berbea	20
- Euskal Sozialistak taldeko Jerónimo Moreno batzarkide jaunak hartu dau berbea	23
- Euzko Abertzaleak taldeko Edesa Gómez batzarkide andreak hartu dau berbea	24

- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Fernández Angulo batzarkide andreak hartu dau berbea.....	26
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Lobato Pascual batzarkide jaunak hartu dau berbea	28
- EH Bildu taldeko Méndez Urigoitia batzarkide jaunak hartu dau berbea	29
- Euskal Sozialistak taldeko Jerónimo Moreno batzarkide jaunak hartu dau berbea	30
- Euzko Abertzaleak taldeko Edesa Gómez batzarkide andreak hartu dau berbea	31
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Fernández Angulo batzarkide andreak hartu dau berbea.....	32
- LEHENDAKARI andreak gai-zerrendako laugarren puntua irakurri dau: “4/2021 Foru Dekretu Arauemailea, martxoaren 23koa, COVID-19ari loturik dauden eta jarduera ekonomikoari berriro ekiten laguntzeko diren aparteko neurri osagarriei buruzkoa.”.....	33
- Ogasun eta Finantzen foru diputatu Iruarrizaga Artaraz jaunak hartu dau berbea	33
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Fernández Angulo batzarkide andreak hartu dau berbea.....	35
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Benito Ziluaga batzarkide jaunak hartu dau berbea	37
- Euskal Sozialistak taldeko Ortiz Zaballa batzarkide jaunak hartu dau berbea	38
- EH Bildu taldeko Urkaregi Etxepare batzarkide andreak hartu dau berbea	39
- Euzko Abertzaleak taldeko Arana Requena batzarkide jaunak hartu dau berbea	41
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Benito Ziluaga batzarkide jaunak hartu dau berbea	42
- Euskal Sozialistak taldeko Ortiz Zaballa batzarkide jaunak hartu dau berbea	42
- EH Bildu taldeko Urkaregi Etxepare batzarkide andreak hartu dau berbea	43
- Euzko Abertzaleak taldeko Arana Requena batzarkide jaunak hartu dau berbea	44
- BIGARREN IDAZKARI jaunak gai-zerrendako bosgarren puntua irakurri dau: “Egoitzetako ikuskapen-zerbitzuko teknikariak gehitzea.”	45

- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Fernández Angulo batzarkide andreak hartu dau berbea.....	45
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Fernández Medrano batzarkide jaunak hartu dau berbea	46
- Euskal Sozialistak taldeko Otermin Eraso batzarkide jaunak hartu dau berbea	48
- EH Bildu taldeko Duque Santacoloma batzarkide andreak hartu dau berbea	49
- Euzko Abertzaleak taldeko Coria Yanguas batzarkide andreak hartu dau berbea	51
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Fernández Angulo batzarkide andreak hartu dau berbea.....	52
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Fernández Medrano batzarkide jaunak hartu dau berbea	53
- Euskal Sozialistak taldeko Otermin Eraso batzarkide jaunak hartu dau berbea	54
- EH Bildu taldeko Duque Santacoloma batzarkide andreak hartu dau berbea	56
- Euzko Abertzaleak taldeko Coria Yanguas batzarkide andreak hartu dau berbea	57
- Batzarra amaitu da.....	57

2021eko apirilaren 21eko batzarra
goizeko 09:00etan hasi da.

Se inicia la sesión del 21 de abril
de 2021 a las 09:00 horas.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Buenos días, señoras y señores, señor Diputado General, diputados/as, estimados/as junteros/as, así como a la ciudadanía y a los/as miembros de los medios de comunicación que van a seguir esta Sesión Plenaria vía *streaming*, buenos días y muchas gracias por estar con nosotros/as. Para dar comienzo a la Sesión Plenaria de hoy, el punto primero, señor Secretario:

El Sr. **SECRETARIO SEGUNDO / BIGARREN IDAZKARI** jaunak:

1.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Credencial
([R.E.11/E/2021/0001374](#))

Autor: JUNTA ELECTORAL CENTRAL

Asunto: Credencial de Apoderada de doña Igone Porto Gómez.

Documento **Principal:**
([R.E.11/E/2021/0001374](#))

Expediente: ([11/C/03/0002250](#))

1.- Honako idatzi hau aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Batzarkide-agiria
([11/E/2021/0001374SE](#))

Egilea: HAUTESKUNDE BATZAR
ZENTRALA

Gaia: Igone Porto Gomez andrearen batzarkide-egiaztagutuna

Dokumentu nagusia: ([11/E/2021/0001374SE](#))

Espedientea: ([11/C/03/0002250](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: En virtud del Reglamento vigente, se llama a la señora juntera Igone Porto Gómez, con el objetivo de que declare solemnemente que acepta las obligaciones y derechos que le son conferidos en base a dicho Reglamento. Le rogamos a la señora Porto Gómez que tome asiento en el lugar que le corresponde. Bienvenida. Muchas gracias.

Punto segundo del Orden del Día:

El Sr. **SECRETARIO SEGUNDO / BIGARREN IDAZKARI** jaunak:

2.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Moción derivada de Interpelación ([R.E.11/E/2021/0001355](#))

Autor: Escalante Mesón, Israel (EB)

Asunto: La mejora de condiciones laborales en contratas y sector público foral de Bizkaia

2.- Honako idatzi hau aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Itaunetik eratorritako Mozinoa ([11/E/2021/0001355SE](#))

Egilea: Escalante Mesón, Israel (EB)

Gaia: Bizkaiko kontratatuko eta foru-sektore publikoko lan-baldintzak hobetzea

Documento[\(R.E.11/E/2021/0001355\)](#)**Boletines:** [Admisión a trámite y apertura del plazo de enmiendas \(27A\)](#)**Expediente:** [\(11/B/20/0002237\)](#)**Principal:****Dokumentu nagusia:** [\(11/E/2021/0001355SE\)](#)**Aldizkariak:** [Izapidetzeko onartzea eta zuzenketa-eskeak aurkezteko epea zabaltzea \(27A\)](#)**Espedientea:** [\(11/B/20/0002237\)](#)

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Corresponde el turno al juntero que ha presentado la iniciativa. Por tanto, señor Escalante Mesón, tiene la palabra.

El Sr. **ESCALANTE MESÓN** jaunak: Muchas gracias. Buenos días a todos/as. En lo que va de año, han fallecido 16 personas en sus puestos de trabajo, pero eso solo es la punta del iceberg. Aurton, orain arte, 16 lagun hil dira euren lanpostuan. 2008tik, aurreko krisia hasi zanetik, oster, 853 lagun hil dira, eta, sindikatuek, baina Osalanek be bai, adierazoten dabenez, lan-ezegonkortasunak hil egiten dau. ¿Qué es lo que planteamos en la iniciativa de hoy? La Diputación ha suscrito distintos acuerdos para la mejora de las condiciones laborales en Bizkaia. Habida cuenta de lo cual, una cosa es extender las cláusulas sociales a todos los contratos y subcontratos de las entidades de la Diputación. Otra cosa es lo que proponemos, que se acepten las medidas para una inspección laboral en los eventos turísticos realizados con dinero de la Diputación. La tercera, que la Diputación contrate para los eventos el patrocinio de los/as trabajadores/as y productores/as locales, su trabajo y sus productos.

2021eko joan dan martiaren 24ko Kontrolerako Osoko Batzarrean, Aldundiari, hau da, Gobernuari, itantzen geuntsan Aldundiko erakunde autonomiadunetako kontratatuko lan-baldintzen hobekuntzei buruz. Lortzen genduzan erantzunetako baten aurrean, emoten eban fede-dogma moduan kolokan jarten genduala, eta inoizkorik ondoen esanda, hemen, Antiguako Andra Marian. Ondo da, zertan oinarritzen dogu defendiduten doguna? Adierazoten genduan, 3 hanka daukaguz oinarri: batetik, 2030eko Agendako GJH dago, 8. GJH, alegia. Bestetik, klausula sozialak dagoz, Aldundiak sinatu dauzanak. Gero, bestetik, enpleguaren lehentasunezko erronea eta bere kalidadea dagoz zuon legealdiko planean. Azkenik, adierazo genduan, uste dogu, oinarriak oinarri, uste dogu badagoala hobetzeko legezko marjinarik, eta marjina horretan aurrera egitea gura dogu.

Halanda ze, uste dogu hobekuntza horreek Aldundiak kontratautako erakundeetan eta erakunde autonomiadunetan lan egiten dabenen lan-baldintzen onurarako be badirala. Gogoan daukat orain dala urtebete-edo jazotako zeozer, hau da, Ur Partzuergoan egon zan istripua. Bertan, askoren astoa goseak hil. Istripua egon zan, ezintasun iraunkorra, Aldundiaren menpeko erakunde batean. Bertan, Administrazino publikoek eskuak garbitu ebezan, eta enpresa arduradunen esku ixten eben guztia. Dana dala, beste adibide argi-argi bat dago, hau da, egoitzena; Marcelo Gangoitirena, berbarako. Bere kudeaketa pribadua bada be, titulartasun publikokoa da, eta, azkenean, bertako beharginak administrazino publiko baten menpean dagoz. Hori dala eta, proponidu egiten dogu Batzar Nagusiek Aldundiari honako hauxe eskatzea:

- Lehenengo eta behin, kontratuetan klausula sozialak ezarten dirana bermatzea. Esan zeunskuenez, Aldundiak berak bere kontratazinoetan hartzen dauz kontuan, baina Aldundiaren menpeko erakundeetara eta partaidetzapeko enpresetara hedatu gura dogu. Azpikontratautako edozein enpresari horren barri emotea, nahiz eta gero azpikontraten desagerpenagaz bat etorri, ahal dan neurrian. Gure eretxiz, ez da nahikoa lan-arloko legeria edo klausulak betetearren harro egotea, hau da, guretzat eztabaidagarri samarra da paparra ateratea legea beteten dabenei zerga-mesedeak egiten jakezalako. Honako hauxe egin beharko litzateke: hobekuntzetan aurrera egitea, eta ez dagoanagaz pozarren egotea.

- Proponidu egiten dogu Osalanen laguntzaz, Osalanegaz lan egitea laneko osasunaren arretan, Aldundiak kontratautako enpresek egindako ekitaldietan laneko arriskuak prebeniduteko.

- Era berean, proponidu egiten dogu Laneko Ikuskaritzeagaz lan egitea, legezko arauak jagoteko eta beteteko. Gogoratu egin gura dot legealdi honetan Enpleguko gaur eguneko sailburuak iragarri dauala Laneko Ikuskaritzako beharginen kopurua handituko dauala. Gure ustetan, oso une ona da hori hartzeko, kontuan hartzeko, lan-ikuskaritzearen gorakadea kontuan hartzeko, administrazio publikoak berak kontratatet dauan lekuan, behintzat. Administrazio publikoagaz kontratatet dauanak bere gain hartzea lan-ikuskaritzea egongo dala, kontratu horreetan emoten diran lan-baldintzak bete egiten dirala eta, gitxienez, legezkoa, legezko gitxienekoa beteten dabela jagoteko eta kontrolerako, holan enpleguaren kalidadea bermatzen dalako gitxienez, gitxienez, behintzat.

- Nabarmendu egin gura dogu turistifiketako eredu horrek, hain zuzen be, lan-ezegonkortasunean daukala eragina. Hori, ganera, ez dinogu guk, edo ez dinoe sindikatuek bakarrik, ELGAK berak be badinoalako.

- Amaitzen joateko, proponidu egiten genduan Laneko Ikuskaritzeagaz be lan egitea zaintzan eta arauzko lege-arauak zein azpikontratazinoko hitzarmen kolektiboen arautegiaren eukia beteteko eskakizunean. Ikusten gabilz, adierazoten genduan ez, azpikontratazinoaren ondorioz azpienplegua, ezegonkortasuna sortzen dala laneko arriskuen prebentzinoan nahiz lan-baldintzetan. Gogoratu egin gura dot bihar grebea dagoala administrazio publikoan, administrazio publikoko bertako lan-baldintzak hobetu egin daitekezalako, gitxienez, hain zuzen be. Era berean, gogoratu egin gura dot, sindikatuek adierazoten dabenez, administrazio publikoaren ondorioz sortutako 10 enplegu ezegonkorretatik 7 andren artean emoten dirala, eta horrek argi ixten dau zer hobetu ugari dagoana, bardintasunaren gaia, hain zuzen be, egin genduan itaunean adierazoten genduan lez.

- Azkenik, proponidu egiten dogu foru-instituzinoek babestutako ekitaldietan hurreko enpresa txiki eta ertainen produktuak eta zerbitzuak hornidutea. Hori bat dator Bizkaia Egiten Planaren 98. jarduketeagaz, eta uste dogu onuragarria dala, adierazo dogunez.

Ondo da. Esan dogunez, Aldundia ez da Bizkaiko enpleguaren arduraduna, baina haren hobekuntzea sustatu daike, eta adibidea emon daike, adierazoten dogunez eta ekimen honen bidez bultzatzen dogunez. Ganera, uste dogu, azaldutakoaren arabera, Aldundiak berak bere gain hartu dauzan 3 hanken arabera, zer hobetu ugari dagoala, eta uste dogu, proponidu dogunaren arabera, hobekuntza horreek lortu leitekezala. Por nuestra parte, esto es todo por el momento. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Escalante Mesón. Señor Andrade Aurrecochea, portavoz del Grupo Mixto-Partido Popular Bizkaia, tiene la palabra.

El Sr. **ANDRADE AURRECOECHEA** jaunak: Eskerrik asko, mahaiburu andrea. Egitatea da kontratazino publikoa teknikea izan daitekeala eta izan behar dala eta helburu sozialak, ingurumenekoak edo ikerketakoak lortzeko aukerea eskaini behar dauala. Kontratazino publikoaren bidez, administrazioak ondasunak eta zerbitzuak eskuratzen dauz, baina, era berean, herrialdeko bizitza ekonomiko, sozial eta politikoa esku hartzeko politikea egin daike. Proposamenean proponiduten diran erespide sozialak eta ingurumenekoak Europar Batasuneko erakundeek onartzen eta sustatzen dabezanak dira, eta ulertu egiten da ez dabela inoiz lehia askearen mugea aldatzen, hasiera batean eztabaidan azaltzen dan lez.

Zuzentzerik europarrak dagoz, Estaduko arautegia dago, Europar Batasuneko arautegiak dagoz eta Aldundi honen arautegia dago, kontratu publikoetan klausula ekonomikoak eta sozialak, klausula sozialak eta ingurumenekoak ezarteko prozesuari jagokonez. Izan be, diputadu jaunak azken agerraldian azaldu eban 2.763 klausula sozial eta ingurumen-klausula kontuan hartu dirala 234 kontratu publikotan, 2019an eta 2020an.

Egon badago foru-arauketarik, eta, horren ondorioz, emoten dau Aldundiak badaukala borondaterik klausula sozial horreek ezarten joateko. Dana dala, diputaduak ez eban esan 234 horreetatik zenbat kontratu kudeatzen ebazan Aldundiak urte bi horreetan, 234 kontratu kontuan hartu ebazan. Ez daukat faltau jakun datua, Aldundiko kontratu publikoen zer ehunekotan ezarten diran ingurumen-klausula horreek.

Hori dala eta, joan dan Kontrolerako Osoko Batzarrean esan zanez egon badagoan proposamena bada be, gu geu abstenidu egingo gara hobekuntzearen proposamengileak esan dauan horregaitik. Beharbada, uste dogu Aldundiak egiten dauan jarduketea urri samarra dala. Gaur, klausula sozialak eta ingurumenekoak ezarteko jarduketea zehetasun handiagoz argituko jakulakoan nago, baina baleiteke klausula horreen ezarpena areagotzeko eta hobetzeko aukerea egotea, badinodanez, Europa osoan eta Estatu osoan autortuta dagoala kontuan hartuta.

Dakarzuezan ganerako proposamenei jagokenez, ikusi daigun. Lan-baldintzen arauketea ez da Foru Aldundian arautzen. Nazino-mailan egiten dan arauketea da, eta uste dot talde proposamengileak Madriletik gobernetan eta zuzentzen dauala. Halanda ze, ondo egongo zan Aldundi honek Gobernu zentralari eskatzea lan-baldintzak aldatu daizala, hareen kexu bagara.

Egon badago alkarlanik Osalanegaz edo Laneko Ikuskaritzeagaz. Ez dot uste ukatu egin daitekeanik. Badagoala suspertzerik edo areagotzerik, bai, baleiteke, baina ez da mozinoan aitatzen. Tira, ba, egon badago hartu-emonik Osalanegaz eta Laneko Ikuskaritzeagaz, eta ez dogu hori ukatuko.

Ez nago oso ados, azpikontratazinoei buruz berba egiten danean. Azpikontratazinoak ez dira txarrak. Ez dakit zergaitik daukagun aterabide hori eta azpikontratazinoak txarrak dirala dinogun. Arabere gehiago, uste dot enpresa askorentzat onak dirala. Enpresa handiek, enpresa txikiek, enpresa ertainek askotan jo behar dabe azpikontratazinoak. Txarra da, proposamengileak dinoanez, kostuak beharginen kontura gitxitzen badira. Hori jagon egin beharra dago, baina, gero, berbera, arauketea ez dago Aldundiaren esku, Gobernu zentralaren esku baino.

Tokiko enpresa txikien produktuak eta zerbitzuak horniduteko aukerari buruz proponiduten dozun azken puntuari jagokonez, erabat koherentea zein zentzunezkoa dala uste dot, eta egin egiten dala uste dot. Azpikontratazinoa egiten danean, enpresa bat, Aldundiari buruz berbetan gabilz, esaterako, BECen ekitaldi bat, kontzertu bat edo zeozer egiten danean, jarduera asko azpikontratetan dira, eta ona da azpikontratetea, honako honeetxei jarduera horreetarako sarbidea emoten jakelako: tokiko elektrikariak, tokiko teknikariak, segurtasuneko laguntza-zerbitzuetan lan egiten dauan jente asko, atonketan, tokiko lana emoten daualako une zehatz horretan. Horreek tokiko jentearantzako tokiko kontratuak dira, eta jente askori sarbidea emoten deusie adibidez BECen egiten diran ekitaldi horreetara edo beste jarduera batzuetara. Izan be, ostantzean, azpikontratazino hori egiterik ez balego eta guztiak behargin finakoak izatea derrigorrezkoa izango balitz, abeslariaren tourragaz etorriko litzatekez, eta tokiko kontratua ekidingo geunke.

Halanda ze, nik ez dakit ikara hori, tira, ba, badakit, bai, badakit Ganbera honetako alderdi batzuek azpikontratazinoa gaitzesten dabena, baina ni neu ez nator bat. Ona dala uste dot, eta jente asko-askori emoten deutso lana.

Hori dala eta, badinot, proposamenari ezin jako baiezko botorik emon, gauza horreek egin egiten diralako eta zentzunbako samarra izango litzatekealako guztiari baiezko botoa emotea. Era berean, ezezko botoa be ezin da emon, ondo ikusten dodalako, proposamengileak esan dauanez, azalpenean edo proposamenean adierazotako guztia hobetzea. Horrexegaitik, abstenidu egingo gara. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Andrade Aurrecochea. Señor Álvarez Castrejón, portavoz del grupo Socialistas Vascos, tiene la palabra.

El Sr. **ÁLVAREZ CASTREJÓN** jaunak: Mahaiburu andrea, mahaikideok, batzarkide jaun-androk, egun on. Buenos días a todos/as. Joan dan martiaren 24an egin genduan Kontrolerako Osoko Batzarrean, zure taldearen itaunari erantzuteko asmotan, Escalante jauna, ahaldun nagusiak azaldu egin eban Aldundiak 2.783 klausula sozial eta ingurumen-klausula ezarri ebazala 234 kontratu publikotan, 2019tik 2020ra arte. Euretako batzuk, adierazo ebanez, kontratazino gehiago lotuta daroezan esparru-kontratuak dira.

Gaur eztabaidagai daukagun mozinoan, zuok Aldundiari eskatzen deusazue foru-administrazio publikoak esleitutako kontratu horreetan klausula sozialak ezarten dirana bermatu daiala. Gaian sartu baino lehen, neure taldearen alkartasuna adierazo gura neuskie, baina gu guztiona be badala ulertzen dot, egunez egunekoa bilatzean, eurentzako eta euren familientzako etorkizun hobe hori bilatzean hildako beharginen senide guztiei.

Ezelako zalantza barik, danok kezkatuta gagoz beharginen lan-baldintzakaitik, eta, arabere gehiago, euren eskubideen, osasunaren edo kontratuzko hartu-emonen murrizketarako inguruabarrak jazoteko aukerarik balego. Gure eretxiz, klausula sozialak ezartea behar besteko tresnea da, adibidez generoagaitiko bereizkeriari aurre egiteko, premia handienekoei, zaurgarrienei edo desgaituei laneraten laguntzeko eta, era berean, lanari buruzko arautegiaren araberako soldatak jasoteko. Mozino hau sorrazo dauan itaunean bere egunean eskaini ziran datuen arabera, uste dogu ezarri egiten dirala, eta hedatu egingo dira, ezelako zalantza barik. Horretarako, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Oinarrizko Legeko bertako baliabideak daukaguz, baita araudi betearazlea be, baita erespideen eta jarraibideen gidaliburua bera be, Aldundiak berak daukazan barruko kontrolak ahaztu barik, jakina.

Zuon mozinoaren 2. puntuan, Osalan aitatzen dozue zuok. Aholkularitza-organua da, aholku-emoilea, eta, aldi berean, osasuna jagoteko arloko agintaritzea be bai. Agintaritze horrek jarduketak eta adierazpenak egin behar dauz bere eskumenen esparruan. Jarduteko prest dago, eta jardun egiten dau. Benetan jarduten dau, gero! Izan be, aldi baterako ikuskizun publikoak kudeatzeko erespide teknikoei buruzko txostena egin dauan lan-taldean parte hartzen dau, eta, bertan, beste administrazio publiko batzuetako beste zerbitzu batzuek lan egiten dau, beste autonomia-erkidego batzuetako osasun-zerbitzuakaz, hain zuzen be.

3. puntuan, Aldundiari eskatzea Laneko Ikuskaritzeari lagundu deiola legezko arauak jagoten eta eskatzen. Ziurtatu egin ahal deusuet Laneko Ikuskaritzea, laneko agintaritze moduan be bai eta eskuragarri daukazan baliabideak kontuan hartuta, proaktiboia dana bere zereginean eta independentzia teknikoaz, objektibotasunez eta inparzialtasunez garatzen dauana bere lana. Egia esan, autonomia-erkidegoan, 50 lan-ikuskatzaile daukaguz, eta, laster, 10 gehiago egongo dira behargin-talde horretan. Gitxi gorabehera, 18.000 jarduketa egiten dabez urteko, gitxi gorabehera idea orokorra euki daigun.

Esan dozunez, foru-zerbitzu publikoan emoten diran azpikontratazinoen murrizketea bultzatzea. Tira, ba, azpikontratazinoaren gaia oraintxe bertan ikusi dogu. Kontratazino publikoaren arloan, azpikontratazinoa elementu nuklearra da orain eta lehen, hau

da, praktika historikoan eta garaikidean be bai, kritikak jasoten dauz beti, era guztietako salaketak, eta aldeko beste kontrako daukaz. Oraintxe bertan ikusi ahal izan dogu. Arabere gehiago, gaur eguneko oinarritzko legeriaren eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen ondorioz, baita Europako zuzentarauko klausulen ezarpenaren ondorioz be, kontratazino administratiboa gero eta posibilistagoa da azkenean. Formeari jagokonez, ia-ia bideratuezina da azpikontratazinoa gitxitzea edo kentzea. Halanda be, emoten dau Gobernu zentralak eragile sozialakaz lan egiten dauala azpikontratazinoaren eraldaketa integralaren idean, baina, orain, gagozan lekuan gagoz, eta daukaguzan eskumenak daukaguz. Geure apaltasunean, uste dot jagon egin behar dogula kontratuzko baldintzak beteten dirala. Kontratuen kontrol hori bikotxa da, kontratazinoan parte hartzen dauan sailak berak egiten daualako edo Aldundiko Kontratazino Zerbitzuak berak egiten daualako, sinatzen diran baldintza-pleguak bat datozana egiaztetako. Berme-elementuak dirala uste dot.

5. puntuan, foru-instituzinoek babestutako ekitaldietan enpresa txiki eta ertainen produktuak eta zerbitzuak bultzatzea, ekonomia eta enplegu duina sustatzeko. Escalante jauna, onartu egingo deustazu zeuri esatea hortxe topau egingo gaituzula beti, baina esfortzu txikiena barik, ganera, hau da, hurrentasun handiengan. Zeure itaunean ondo esan zenduan, Alderdi Sozialistaren eta Euzko Alderdi Jeltzalearen arteko gobernu-hitzarmenak baieztu egiten dau soldatak duinak eskaintzen dauzan enplegu egonkorra zalantza bako bermea dana Bizkaiko personeren bizi-kalidatea hobetzeko. Tira, ba, helburu hori lortzeko egiten dogun guztia, eta, ganera, gurearen, hurren daukagunaren eskutik badator, txitxi eta papa. Egia da ezin doguzana, gutako inork ezin dauzana nahierara emon obrako edo zerbitzuetako edo hornikuntzetako esleipenak, baina gure ETE-en zein autonomoen bilbeak, horretarako prestatuta dagoalako, beretzat interesgarriak diran lizitazinoetan parte hartu ahal eta behar dau. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Álvarez Castrejón. Señor López Odriozola, portavoz del grupo Euskal Herria Bildu, tiene la palabra.

El Sr. **LÓPEZ ODRIOZOLA** jaunak: Muchas gracias a la señora Presidenta, por darme la palabra. Buenos días a todos/as los/as junteros/as.

El tema y los puntos que se tratan en esta moción no son nuevos. También surgieron en el anterior mandato, por ejemplo, con las intervenciones de nuestro juntero Endika Montes, entre otros, sin restar ningún mérito al resto de junteros/as y partidos. El contexto ha cambiado, hemos pasado de una época en la que los eventos mediáticos estaban de actualidad a una oscura actualidad provocada por la pandemia. Lo que no ha cambiado es la actualidad de este tema que hoy vamos a someter a votación.

Honako haxe daukagu xede, eta ezin da beste era batera izan: pandemia honek ixten dauzan ondorio suntsigarriak, hartu beharko geunkezan neurriak, hartzen diranak eta hartzen ez diranak. Edozelan be, egoera tamalgarri horrek ezin dauz xedetik kanpo itxi beste egoera batzuk.

Ez dago ezelako sekreturik klausula sozialak kontratazino publikoan politika sozialak eta ingurumenekoak ezarteko tresnea dirala esatean.

Europar Batasuneko Ekonomia eta Gizarte Lantaldeak 1997ko maiatzaren 29an onartutako erespenean adierazoten zanez, “obretako kontratu publikoen arloko politika europarrak eskaintza ekonomiko onenaren abantailatsuenaren kontzeptua indartu beharko leuke, prezioaren erespidea ez dalako erabagile bakarra. Alde horretatik, txostenean adierazoten danez, Europar Batasunaren lehentasunak, gizarte-arloko lehentasunak

modu berezian nabarmenduta, kontuan hartu eitekezan, agintaritza publiko esleitzaille guztiek euren kontratuetan horreekaz lotutako gaiak ezarri daiezan.

Ohikoak dira lehendabizikoa personak garala, inklusino soziala sustatu behar dogula esanda egiten diran diskursoak. Modu berean, ohikoak dira ingurumena, laneko segurtasuna, enplegu duina, kalidade-baldintzak berbabide daukiezan diskursoak. Holan, zuzenean ikutzen doguz GJH batzuk, zortzigarrenaz gain: lan duina eta hazkuntza ekonomikoa. Nire kide Endika Montesek bere egunean aitatu eban, aurreko legealdian, Lanaren Nazinoarteko Erakundea. Zure baimenaz berreskuratuko dodaz berba horreek:

Lanaren Nazinoarteko Erakundearen (LANE) arabera, honako hauxe da lan duina:

Bidezko diru-sarrerea sortu behar dau, beharginei segurtasuna eskaini behar deutse lantokian, babes soziala ziurtatu behar deutse familiei, euren eretxiak askatasunez adierazoteko aukerea emon behar deutse personei, gizon eta andrentzako tratu-bardintasuna bermatu behar dau, baita genero bientzako aukera-bardintasuna be.

Lan duina eukiteko, honako baldintza honeek emon behar dira aldi berean: personentzako bardintasuna, askatasuna, segurtasuna eta giza duintasuna.

Kontratazino publikoak kasuan kasuko harri-koskorra ez badakar, nekez bermatuko dogu administrazino publikoakaz lan egiten daben enpresek, behintzat, lan duin hori eskaintzen dabena. Aitatutako harri-koskorra klausulak idatziz ezartea da, baina, horrezaz ganera, beste administrazino publiko batzuen koordinazinopean administrazino publikoek eurek, Bizkaiko Foru Aldundiak, kasu honetan, behar besteko mekanismoak eta baliabideak jartea be bai, mozinoaren 2. eta 3. puntuetan aitatzen dan lez, eta, era berean, ez-betearazpenaren arabera jokatzeta eta betearazpena ziurtatzeta be bai.

Gogoan euki behar dogu klausula sozialen bidez 5. helburua (genero-bardintasuna) eta 10.a (desbardintasunen murrizketeta) landu daitekezala, besteak beste.

Transversalmente, también se pueden trabajar otros muchos objetivos. En definitiva, las cláusulas sociales se alinean con los Objetivos de Desarrollo Sostenible, en la medida que son un instrumento claro que contribuye a su cumplimiento.

Por tanto, en la nota publicada el día 13 de noviembre en la página web de la DFB, se daba a conocer el proyecto para alinear los impuestos con los Objetivos de Desarrollo Sostenible. Es un paso importante en la recaudación, por supuesto. Sin embargo, junto con la recaudación, también se debe alinear con esos objetivos mencionados cómo se gasta ese dinero, y no solo limitarse a 254 contratos, sino a todos, hasta ese último, y no contabilizando las cláusulas.

Si estamos dispuestos/as a modificar una de las columnas principales de la gestión de la Diputación Foral, que estos últimos años ha sufrido no pocos duros ataques, polémicas y situaciones, es decir, el sistema fiscal, ¿cuál es el problema para realizar modificaciones o para tomar medidas en la utilización de ese dinero, es decir, en la contratación? No se trata de un problema legal, si no, nunca se aplicaría en nuestro entorno. No, no se trata de un problema legal, es un problema de voluntad.

La cuestión no es estar a favor o en contra de esta moción. EH Bildu está a favor, pero no es esa la cuestión. Se trata de una cuestión mucho más profunda; aquí no está en juego ganar o perder una moción. Lo que está en juego es el modelo de gestión, más allá de cualquier ideología. Todos aplaudimos los Objetivos de Desarrollo Sostenible. Nadie tiene malas palabras contra las cláusulas sociales.

Sin embargo, luego, lamentablemente, las palabras se quedan solo en el papel, y el papel puede soportar todo... o no. No, junteros/as, ese dogma es muy frágil en este caso, el papel no soporta todo. En el caso de las cláusulas sociales y los Objetivos de Desarrollo Sostenible, quienes realmente lo sufren son las personas, nosotros/as, nuestros familiares, nuestros/as vecinos/as, amigos/as y compañeros/as de trabajo. Todos/as. En la medida de nuestras posibilidades, si no adoptamos medidas, estaremos tirando piedras contra nuestro propio tejado.

EH Bildu siempre va a tener la mano tendida cada vez que se quiera actuar a favor de esta cuestión, por lo que va a apoyar esta moción, porque, además de ayudar a la sociedad, va a mejorar notablemente la gestión pública. No solo en lo que respecta al ámbito técnico, sino también en lo que respecta a la credibilidad de su gestión pública, que, en muchos casos con razón, se trata de una credibilidad que está muy tocada.

Atentamente, muchas gracias, junteros/as, por escuchar mi intervención, la primera en este mandato, más allá de acuerdos y desacuerdos.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor López Odriozola. Señor Bagan Urtiaga, portavoz del grupo Nacionalistas Vascos, tiene la palabra.

El Sr. **BAGAN URTIAGA** jaunak: Señora Presidenta, Diputado General, buenos días a todos/as.

Por parte de Elkarrekin Bizkaia se ha presentado una moción relativa a las condiciones laborales, que se deriva de una interpelación, y se ha presentado una serie de propuestas al respecto. En 2018, debatimos una moción similar de EH Bildu, que fue defendida por el señor Montes. Yo también lo recuerdo.

Lehen esan dogunez, Bizkaiko Foru Aldundia kontratazino publikoaren aukeren jakitun izan da, kontratuak betearazoteko, zerbitzuak emoteko edo hornikuntzak lortzeko eta, horrezaz ganera, ingurumen, gizarte edo lan arloko politikak ezarteko. Holan, bada, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legea, Estaduaren eskumenekoa, alde horretatik onartu eta arautu baino lehen, Bizkaiko Foru Aldundia lanean hasita egoan 2017ko zemendian. Horra hor kontratazino publikoko klausula sozialen ezarpenari buruzko 2013ko jarraibidea, klausula sozial eta ingurumenekoen ezarpen hori arautzen eban 2017ko urtarrileko araudi betearazlea, kontratazino publikoko beste politika publiko batzuk eta, gero, ostean, 2018ko bagilean, klausula horreek argitara emoteko jarraibideen gidaliburua. Kontrolerako Osoko Batzarrean esan zanez, 2019-2020an, 2.370 inguru klausula ezarri dira 234 kontratutan, eta euretako batzuk esparru-kontratuak izan dira. Horretarako, figura juridikoak erabili dira; esate baterako, baldintza administratibo partikularren pleguaren eta, horren ondorioz, kontratuaren parte diran betearazpen-baldintza bereziak eta, horren ondorioz, derrigorrean bete beharrekoak, kontrol publikoaren, kontrol funtzionarialaren menpe dagozanak eta ondorioak sorrarazoten dabezanak, beteten ez badira; adibidez, zehapenen ezarpena edo kontratuaren ustezko amaierara, besteak beste.

Azpikontratazinoaren ganeko ondorioei buruz itandu dozue, eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legean be badago araututa. Bertan adierazoten denez, kontratuaren parte diran kontratazino-baldintza berezi guztiak modu berean eskatuko jakez kontratuaren betearazpenean parte hartzen daben azpikontratistei. Halanda ze, araututa dago. Hona hemen klausulak: lan-eskubide guztien betearazpena, gizonen eta andren bardintasuna sustatzeko betebeharra, arautegi bereziaren arabera desgaituei enplegua emoteko betebeharra, beharginak subrogetako betebeharra, hitzarmen sektorialen erabateko betearazpena, etab., etab.

Halanda ze, ikusten dogunez, Bizkaiko Foru Aldundiak konpromiso argia dauka, arlo horretan dabil lanean, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legean arautu baino lehen, foru-sektorean nahiz partaidetzapeko enpresetan. Holan, klausula sozial horreen ezarpena sustatu eta bultzatu egiten dau, eta horixe dinot, azkenean Foru Aldundia enpresa horreetan beste elementu bat baino ez dalako azken erabagiak hartzen dabezan erabagi-organuetan.

Laneko Ikuskaritzeari eta Osalani jagokenez, Laneko Ikuskaritzea laneko agintaritzea da, eta ikuskaritzea-eginkizun hori egin behar dau berez, enpresa pribaduek eta enpresa publikoek lan-eskubideak beteten dabezan egiaztetako. Osalan, barriz, antzekoa da osasunaren arloan. Lan Ikuskaritzea eta Osalan hitzartzea proponiduten dan arloetan, indarreko arautegian aurretiaz zehaztuta dagozan eginkizun horreek, eskumen horreek garatzen dira gaur egun. Mozinoan aitatzen diran sektore horreetan eta jarduera ekonomiko guztien ondorioz sortutako laneko hartu-emon horreetan guztietan. Izan be, ez dogu uste oso egokia danik sektore zehatz bat nabarmentzea, zelan edo halan estigmatizau egin geinkealako. Lan-eskubide guztiak sektore guztietan erabat beteteko eskatzen dogu.

Egia esan, Bizkaiko Foru Aldundiak, ganerako administrazio publiko guztiek lez, obrak, zerbitzuak eta hornikuntzak kontratetan dauz, bere eskumenen esparruan eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen esparruan bere politikak lortzeko. Barriro dinot, Estaduaren eskumeneko gaia. Lege horrek azpikontratazinoa baimendu, arautu eta zeozelan, sendotu egiten dau, honako hauxe dinoalako: “administrazioagaz kontratetan dauan kontratisteak hirugarrenakaz itundu ahal izango dau kontratu horren helburuaren betearazpen parziala”. Horixe da azpikontratazinoa. Gero, behargin horreek kontratista nagusi horregaz edo kontratista nagusi horrek azpikontratautako kontratisteagaz daukiezan laneko hartu-emonak Estaduaren eskumenekoa dan Beharginen Estatutuaren, hitzarmen sektorialen eta hitzarmen partikularren arabera arautzen dira. Ganera, behar besteko egitura publikoa dago, bete egiten dirala jagoteko, eta zehapenak ezarten dauz beteten ez badira. Horra hor jokoaren arauak, eta Aldundiak inponiduten deuskuz. Agirikoa danez, Aldundiak men egiten deutse, eta, ahal dauan neurrian, kalidadeko enpleguak egotea bultzatzen dau kontratazinoako klausula sozialen bidez eta beste elementu batzuen bidez. Egia da, Bizkaiko Foru Aldundi honek zerbitzuak kontratetan dauz, baimendutakoak, araututakoak eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen laugarren eranskinaren barruan kokatzen diranak.

Amaitzeko, ezelako zalantza barik dakigu Foru Aldundi honek tokiko kalidadeko produktua sustatzen dauana, baina kontuan be hartu behar doguz Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen argibideak eta printzipioak, euretako bat lurraldeagaitiko ez-bereizkeria dala aintzat eukita. Era berean, Bizkaiko ETE-ei be laguntzen jake barrikuntzearen sustapenaren bidez. Zertarako? Produktu lehiakorra, kalidadeko produktua lortzeko. Horixe be bada tokiko produktua sustatzea.

Erabat ados gagoz sustatu egin beharra dagoala eta kalidadeko enplegurako neurriak hartu behar dirala esaten danean. Lehtasunezko helburua izan behar da. Izan be, holantxe da Bizkaiko Foru Aldundi honetan bertan. Horrexegaitik, hori lantzen gabilzalako, eta lehen azaldu dodazanakitik, ez dogu mozinoa babestuko. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Bagan Urtiaga. Vamos a pasar al turno de réplica. Para ello, señor Escalante Mesón, portavoz del grupo Elkarrekin Bizkaia, tiene la palabra.

El Sr. **ESCALANTE MESÓN** jaunak: Muchas gracias de nuevo. Ezeren ganetik, argi geratu daitela: zergaitik proponiduten genuen hau? Nik neuk ez dot saihestuko, eta, izan be, esan egin da. Neurri batean, aurreko legealdian beste talde batek, EH Bilduk, hain zuzen be, aurkeztu eban ekimen batean oinarritzen gara, baina sektoreko beste profesional

batzuekaz eta, batez be, batik bat arlo turistikoan lan egiten daben sindikatuakaz erkatu doguzan gaietan be oinarritzen gara. Izan be, turismoaren sektorea, ikusten goazanez eta, esan dodanez, ELGAK berak be adierazoten dauanez, neurri handi batean ezegonkortasunean oinarritzen dan sektorea da. Honako hauxe gura dogu guk, behin baino gehiagotan adierazo dogunez: sektore hori egon badagoanez, gitxienez hobetu daitekezan, hobetzeko moduko baldintzak eukitea. Egon badagoanez, Aldundi honek bere garapen ekonomikoaren oinarri izateko aukeratu dauzan hanketakoa dala kontuan hartuta, gitxienez baldintza ezegonkorretan oinarrituta ez dagoan hanka egonkortxuago batean egitea...

Tira, niretzat emoten dau Gobernuari eusten deutsien taldeak autoatsegintasunean geratzen dirala. Gurdia bete klausula sozial ezarri dira, eta, horregaz, pozarren geratzen gara. Nik neuk, ostera, jakin egin gura neuke zer zehaztaperen dagozan garatzen, gure proposamenak zuontzat baliozkoak ez diran, zer zehaztaperen emoten dagozan zuon legealdiko hitzarmenaren lehenengo puntu hori hobetzeko. Izan be, beharbada, hobetu leitekezan gaiak proponidu doguz guk, baina baleiteke kontuan hartu ez doguzan beste bide batzuk egotea eta egokiak izatea enpleguaren kalidadea hobetzeko eta Bizkaiko enplegua handitzeko. Izan be, zuon zenbakien aurrean, horixe gogoratu ahal deusuet nik: laneko istripuan hildakoak ez eze, Bizkaian urtero emoten diran laneko baja guztiak, gaixotasun profesional guztiak... be bai. Euretako asko, ganera, sektore publikotik eratorritakoak dira.

Gogoan euki bihar grebea dagoala administrazio publikoaren sektorean, administrazio publikoan lan egiten daben sindikatu guztiak ados jarri diralako horretan, hain zuzen be, eta hori nahikoa gatxa da herrialde honetan. Halanda be, ados jarri dira, egoerea ez dalako egokia. Arabere gehiago, adierazo dodanez, paparra atera dozueneko puntuetako bat, hain zuzen be, salatzen dabilzan gauzetako bat da. Ez da bardintasunaren gaia garatzen. 10etik 7, eta, esan dodanez, sindikatuak adierazo dabe, administrazio publikoko, Bizkaiko Foru Aldundia barne, 10 enplegu ezegonkorretatik 7 andrekin beteten dabez. Deigarria da, eta ez dogu horretan aurrera egin, zer egin ugari dago oraindokarren. Horregaitik, proponiduten genduan zan, proponiduten genduan lehenengo gaian, hain zuzen be, Gobernu honi eusten deutsien taldeek Nafarroan garatu daben zeozer da, hain zuzen be. Guretzat deigarria da bertan garatu gura ez izatea, baina, tira, norberak bere gain hartu daizala bere kontraesanak!

Bestetik, proponidu egiten genduan beste instituzino batzuekaz lan egitea, eta, izan be, ez dira bape urrunak: Osalan edo Laneko Ikuskaritzea, alegia. Honako hauxe gura dogu, berbarako: ezegonkorra bada be, behargin bat hain handiak diran ekitaldi turistiko horreetako batean, bertan lanean badago, kontratau dauan enpresek bere gain hartzea bertatik laneko ikuskatzaile bat igaro ahal izatea eta lanean zenbat ordu daroazan itandu ahal izatea, behar dan moduko kontratua daukan edo kontraturik be badaukan. Izan be, horren ondorioz, berbarako, baleiteke persona hori 12 ordutik segidan lanean egon beharrean, askotan jazoten dan lez, lagun bi lanean egon ahal izatea edo baleiteke holako zerbitzuak kontratau behar dauzan enpresea hori ez izatea, lan-baldintza duinak beteten dauzan beste bat baino.

Amaitzen joatearren, egia esan, pozaren pozez egongo gintzatekez beste talde batzuek Laneko Ikuskaritzako behargin-taldea handitzea babestuko balebe, Estatu mailan hain beharrezkoa dala kontuan hartuta. Edozelan be, Laneko Ikuskaritzeak hori egitea proponiduten genduan, eskumenak daukazalako, Euskadikoak, Eusko Jaurlaritzakoak. Amaitzen joatearren, esan dodanez, azken puntua proponiduten genduan, hobetu egin daitekealako, ustez bete egiten dalako. Baieztu egin da. Izan be, Eusko Legebiltzarrean adostutako zeozer da. Dana dala, sektore turistikoari barriro helduta, Lastur enpresek Bizkaiko ekitaldi turistikoaren kudeaketaren zati handi bat erroten dau. Behin baino gehiagotan, Valentzian, Valentziako Erkidegoan, kontratau dauz bere beharginak, ez Errioxan ez Kantabrian. Izan be, Valentziaraino joan da beharginak kontratatuko. Deigarria dala uste dogu. Bestetik, sektore honen eragina, hain zuzen be, gaur egun, oso urria da lurraldean. Halanda ze, honako hauxe gura dogu: gitxienez, egon badagoanez eta zuon oinarrietako bat danez, bere eragina ona izatea Bizkaiaarentzat.

Horrexegaitik defendiduten dogu ekimen hau, eta, esan dodanez, ekarpenak egin zeinkiezan, baina, tira, ez da holakorik egon. Halanda ze, dagoan moduan defendiduten segiduko dogu. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Escalante Mesón. El Grupo Mixto-Partido Popular Bizkaia no va a participar. Señor Álvarez Castrejón, portavoz del grupo Socialistas Vascos, tiene la palabra.

El Sr. **ÁLVAREZ CASTREJÓN** jaunak: Eskerrik asko, mahaiburu andrea, mahaikideok, batzarkide jaun-androk, egun on barriro be. Escalante jauna, Laneko Ikuskaritzea aitutzen dauan puntutik hasi gura dot. Gaur egun, Eusko Jaurlaritzeak, eskumen horreek daukazanak, 50 ikuskatzaile eta ikuskatzaileordeko taldea dauka. Ez nabil Gobernu zentralari buruz berbetan, ez beste probintzia batzuei buruz, ezta beste autonomia-erkidego batzuei buruz be. 50 ikuskatzaile eta ikuskatzaileordeko talde horri jagokonez, Enplegu eta Turismoko sailburua dan Idoia Mendiaren adierazpenetan, kasuan kasuko planak iragarri ziran, legealdi honetan beste 10 lagun gehiago sartzeko, beste 10 teknikari gehiago, beste 10 profesional gehiago, beste 10 ikuskatzaile eta ikuskatzaileorde gehiago.

Hara, autoatsegintasuna, gitxi edo bat bera be ez. Klausula sozialen ezarpena ez da Fierabrasen baltsamoa, ez dauz gatx guztiak osatzen, baina gai batzuei, adibidez, zeuk aitatu dozunari, generoagaitiko bereizkeriari, aurre egiteko tresna moduan, ondo joan daiteke. Gehiago egin daitekeala? Zalantza izpirik be ez euki. Instituzinoak ulertzen daben mailan dabilzala lanean? Seguruenik. Danok egunez egun hobetzen joateko betebeharra daukagula? Holantxe da, bai. Gobernu zentrala, gobernu periferiko guztiak eta geu, geure apaltasunean, Ganbera honetan be bagagoz egoera horretan.

Gurdia bete klausulena. Erreparau egin deusat, gero! Parkatu egingo deustazu, baina zer dala eta gurdia bete klausula? Datuak daukazuz berbabide, dinot nik, 2.783 klausula sozialak? Tira, itaunean emon ziran. Era berean, apur bat ezagutzen dogu ohitura parlamentarioa, itaunean esaten dana esaten dala be, itandutakoaren erantzuna egokia eta egiazkoa bada be, mozinoan alkar ikusiko dogu, eta hementxe gagoz. Bestetik, gure taldeak mozino hori gaitzetsi behar dau derrigorrean. Izan be, gaur hona eztabaidatzeko asmotan ekarri doguzan gauza horreen munan sartu ahal izango bagina, zehaztasun handixeagoz egin beharko geunke. Tira, jorratu egin daikegu, nik uste.

Bestetik, barriro nabarmendu gura dodaz Osalaneko eta Laneko Ikuskaritzako hartu-emonak, zaintzeari eta kontrolari jagokenez. Erakunde autonomiadun bi, euren autonomia zein substantibotasuna daukiezanak, gizarte osoarentzat lan egiten dabenak, eta ni hor gogoratzen ahaleginduko nintzateke bertan egiten diran adierazpen honeek herritar guztiakana ailegetan dirala, eta ez da serioa zalantzak ixten joatea organu administratiboen jarduketearen inguruan, Osalanek, Laneko Ikuskaritzeak eta instituzinoek eurek be badaukiezan garrantziaren eta sinisgarritasun sozialaren inguruan. Badago bere jardunbidea kolokan jarterik? Bai, ikuspegi politikotik, jakina, baina hainbat zalantza, hainbat susmo aidean ixtea be! Ez dot uste gutako inorentzat egokia danik. Eskerrik asko. Besterik ez.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Álvarez Castrejón. Señor López Odriozola, portavoz del grupo Euskal Herria Bildu, tiene la palabra.

El Sr. **LÓPEZ ODRIOZOLA** jaunak: Muchas gracias por todas las respuestas. De todas maneras, sea cual sea el sentido del voto, aún quedan muchas cosas en el

aire. ¿Qué nos dice la realidad? Que ocurren numerosos accidentes laborales anualmente, debido a unas lamentables condiciones laborales, algunas de las cuales se dan dentro de las empresas contratadas por la administración pública, es decir, no solo fuera. Nos basta con leer los datos que aparecen en los medios de comunicación con la mayor objetividad posible. Principalmente, se trata de empresas contratadas conforme a criterios económicos y criterios para el cumplimiento técnico de la labor encomendada. Lo que se realiza sin tener en cuenta otras condiciones que se pueden trabajar a través de las cláusulas sociales.

Kasu askotan ikusten dogunez, ezbeharren bat jazoten danean, goia behea jotzen hasten da enpresa horren inguruan, eta arazoak azaleratzen dira; berbarako, kontratazino ezegonkorrak, Gizarte Segurantzarak eza edo horregaz lotutako arazoak.

“Honenbeste ordainduko deusut honenbeste lanaldiren truke”. Aparteko ordainsariak, gero azkenean ordaintzen ez diranak, nahikoa izaten dalako lanari eusten segidutea. Hori, ganera, administrazio publikoak kontratau dauzan enpresetan be jazoten da batzuetan, ezbeharren bat jazoten danean, gero hori guztia azaleratu egiten dalako.

Nahikoa da obra batzuetara hurreratzea. Obra horreek eraikuntza zibilerako izan daitezke edo zezelako eszenatokia muntetako. Izan be, orain dala urte bi aitatu zan antzeko mozino batean. Kasuan kasuko argazkia atera ez eze, zer baldintzatan lan egiten daben arretaz begiratzea be bai. Baldintza horreek laneko arriskuen prebentzinoko gabeziak ixten dabez agirian. Segurtasuneko materialak eukitea ez eze (arnesak, jauskeren aurkako gailuak, begi-babesak), erabilerarako prestakuntzea, arnesak lotzeko egitura-lokarriak be badaukaguz berbabide.

Aukeraterik badagoanean, esaterako, beste arlo batera jo ezker, Bizkaiko Foru Aldundiak egiten dauzan bulegoko materialaren erosketa guztiak dira, betibe, erosketa berdetzat edo lehenengo erespide ekonomikotzat jo badaitezke? Hori be bada orain arte aitatu ez dogun zeozer, baina mahai ganean be jarri beharko geunke.

Aitatu egin da barrikuntzea sustatu behar dala, gure tokiko enpresek lehiakorragoak izateko erea euki daien eta, holan, aukera gehiago euki daiezan. Erabat ados.

Edozelan be, honako hauxe da galdera handia: zelan? Aspalditik gabilz buelta-bueltaka barrikuntzako politikakaz eta politika industrialakaz, adostasunak eta desadostasunak eukita. Administrazio publikoetako arlo desbardinetan, badago zehaztutako arlo estrategikorik? Zehaztutako arlo estrategikoak, behar daben berotasuna benetan emon gura deutsegula kontuan hartuta? Badaukagu lurraldeko plan estrategikorik zentzun horretan? Ekoizpenaren bereizkuntzarako estrategia dauka zehaztuta lurralde bakotzak eta, gero, lagundu egin ahal deutso teknologia zehatz batzuk eta produktu zein zerbitzu zehatz batzuk bultzatzen, kanpotik datorren beste edozein enpresa baino lehiakorragoak izan daitezcan eta zero kilometroa puntu lehiakor bakarra izan ez daiten?

Ekoizpenaren bereizkuntzea eta barrikuntzea oso berba erabiliak dira. Ezin konta ahala agiritan erabili dira, Bizkaiko Foru Aldundiko agirietan ez eze, Eusko Jaurlaritzako agirietan, Gobernu zentralaren agirietan be bai. Tira, aholkularitza-enpresek, zer esanik ez, uste dot zuzenean barruan sartzen dauzan botoi bat daukiela ia-ia. Garatu bako jarduketa-arlo zabala daukie. Papera, kasu honetan, dana jasaten dabil, larregi jasaten dabil.

En este Pleno, les instamos, a pesar de no estar de acuerdo con la moción, a que consideren estos temas. Que respeten los convenios de aquí y que, al menos, garanticen que las empresas que trabajan aquí aplican a los/as trabajadores/as los convenios de aquí, independientemente de dónde sean esos/as trabajadores/as. Nosotros/as estamos dispuestos/as a trabajar con ustedes en este tema codo con codo. Tendemos la mano a cualquier partido, si desea trabajar en esto, porque nosotros/as estaremos ahí. Apoyaremos las iniciativas que los

refuercen, pero no solo para salir en las fotos, sino para trabajar, para sudar un poco. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor López Odriozola. Para concluir con el debate, señor Bagan Urtiaga, portavoz del grupo Nacionalistas Vascos, tiene la palabra.

El Sr. **BAGAN URTIAGA** jaunak: Neure lehenengo agerraldian adierazo dodanez, kalidadeko enplegua Bizkaiko Foru Aldundi honen lehentasunezko helburuetakoa da. Agintaldiaren hasieran, ardatz nagusietakoa jarduera ekonomikoa eta kalidadeko enplegua ziran. Horretarako, agirikoa danez, kontratazino publikotik lan egiten da zerga-tresnen bidez, Enplegu Saileko programen bidez eta, era berean, jarduera ekonomikoaren sustapenaren bidez. Ganera, helburuetako bat kalidadeko enplegua da, eta, gure ustetan, bilbe ekonomikoko eragile guztiak bat etorri behar dira horregaz.

Ekitaldi honetarako eta, zehatz-mehatz, Sustapen Sailerako aurrekontuen proiektua bertan aurkezten genduanean, aitatu egiten genduan 65 miloi agertzen zizala aurrekontuan eta, eurretatik, 46 izango zizala Bizkaiko enpresa eta persona ekintzaileentzat, balio erantsiko zerbitzuak eta laguntzak emongo zizala. Ganera, horreetatik 26 itzuli behar ez diran dirulaguntzetarako erabiliko zizala eta, aurreikuspenen arabera, 5.000 bat ETE izango zizala onuradunak. Gaur egun, Bizkaiko enpresentzako gidaliburua dago, eta 2021ean garatuko da. Bertan, zehetasunez azalduta eta errazoituta agertzen dira programak, zerbitzuak nahiz fondoak eta zergaitia. Zertarako? Enpresa horreek nazinoartean ezarteko, barritzeko, ekiteko eta talentua erakarteko eta eusteko aukerea euki daien. Azken batean, lehiakorrak izan daitezkan. Izan be, enpresa lehiakorrakaz, jarduera ekonomikoa egongo da, eta, enpresa lehiakorrakaz, enplegu egonkorra zein kalidadeko enplegua egongo dira. Kontratazino publikotik, jakina, baina beste arlo batzuetatik be bai. Horretan gabilz lanean. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Bagan Urtiaga. Una vez concluido el debate, someteremos a votación la moción. Votemos. ¿Votos a favor de la moción? ¿Votos en contra? ¿Abstenciones?

Por tanto, el resultado ha sido el siguiente: se han emitido 16 votos a favor, 32 en contra y 2 abstenciones. Por tanto, no se ha aprobado la moción.

A continuación, el punto tercero, y se trata, precisamente, de la moción presentada por la señora Amaya Fernández Angulo, respecto al pago del peaje en la AP-68.

3.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Moción derivada de Interpelación ([R.E.11/E/2021/0001362](#))

Autor: Fernández Angulo, Amaya (GM/TB-PPB)

Asunto: Pago del peaje de la AP-68.

Documento **Principal:** ([R.E.11/E/2021/0001362](#))

Boletines: [Admisión a trámite y apertura del plazo de enmiendas](#) (28A)

3.- Honako idatzi hau aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Itaunetik eratorritako Mozinoa ([11/E/2021/0001362SE](#))

Egilea: Fernández Angulo, Amaya (GM/TB-PPB)

Gaia: AP-68an bidesaria ordaintzea

Dokumentu nagusia: ([11/E/2021/0001362SE](#))

Aldizkariak: [Izapidetzeko onartzea eta zuzenketa-eskeak aurkezteko epea zabaltzea](#) (28A)

Expediente: [\(11/B/20/0002239\)](#)

Espedientea: [\(11/B/20/0002239\)](#)

Corresponde el turno a la juntera que ha presentado la iniciativa. Por tanto, señora Fernández Angulo, tiene la palabra.

La Sra. **FERNÁNDEZ ANGULO** andreak: Eskerrik asko, mahaiburu andrea. Mahaikideok, batzarkide jaun-androk, egun on danoi. Buenos días a todos/as.

Mozino hau dakargu eztabaidara, eta martiaren 24an egindako Osoko Bilkuran jorratutako itaunaren ondorioa da. Bertan, itandu egiten genduan zer neurri bultzatuko ete dauzan ahaldun nagusiak, Bizkaian bizi garan persona fisikook eta AP-68ko erabiltzaileok berehalako onura zuzena lortzeko aukerea euki daigun, azpiegitura horretako bidesariari jagokonez. Zer erantzun lortu genduzan? Erretorikea, betiko lekuak eta ezin konta ahala atxakia. Borondate hausiezina dala, behar eta ahal diran neurri guztiak dirala, titulartasuna eskualdatu egin dala, baina emokideak indarrean segiduten dauala, alderdi emokida-emoilea dala, emokidaduna dala, lanean segiduten dogula, norabide onean aurrera egiten gagozala, berandu baino lehen egingo dala eta, zelan ez, Alderdi Popularreko Gobernuaren komodin lagungarria.

Egia esan, arabarrak bidesari sozialeko onuradunak dira 2001. urtetik; bizkaitarrak, ez, ostera. Errioxarrek AP-68ko bidesariaren doakotasunerako lehenengo akordua daukie 1999tik, eta gaur arte kateatu dabez akorduek; bizkaitarrek, ez, ostera. Aragoarrek orain dala urte luze daukiez hobariak AP-68ko bidesarian; bizkaitarrek, ez, ostera. Izan be, gai honetan, distrakzino-maniobrak, ke-kortinak dira nagusi, gai honetan Bizkaiko Foru Aldundiak bizkaitarrei eskaintzen deutesen aurkezpen-gutuna honako hauxe dalako argi eta garbi: ez dogu inoiz hobaririk euki. Halanda be, orain, titulartasuna eukita be, bidesariaren hobariak zailtasun tekniko eta juridiko ezin handiagoko oztupoakaz egiten dabe estropezu. Beste administrazio batzuek, ostera, titulartasuna eta kudeaketea euki barik, estaldura juridiko eta tekniko ahal izan deutesie bidesariaren hobariari.

Hara, arabarrek 2001etik daukie bidesari soziala AP-68an, akordu baten bidez, bai, Foru Gobernuak bere buruagaz egindakoaren bidez, Foru Gobernuaren eskumen eksklusibopeko aldebakarreko akorduen bidez, gai tekniko gatz barik eta azalpen juridiko landu barik, horretarako nahikoa izan dalako borondate politikoa eukitea, titulartasun barik, kudeaketa barik. Horrezaz ganera, neurri hori ez da ezelan be aldatu kolore politiko desbardineko gobernuakaz, PSEko eta EAJko gobernuakaz be ez.

Zergaitik ezin dau egin eta ez dau egin Bizkaiko Foru Gobernuak Arabako Foru Gobernuak arabarren alde egin ahal izan dauana eta egin daikeana? Bizkaitarren RHan ete dago beti ordaintzaile porrokatuak izatea? Arabako ereduaren antzera, beste autonomia-erkidego batzuek doako bidesariak edo hobaridunak daukiez AP-68koak be badiran tarteetan, hitzarmenen bitartez. Esan dodanez, Errioxako tartean, 1999. urtetik. Era berean, hitzarmenak be kateatu dira Espainiako era bateko eta besteko gobernuakaz, Alderdi Popularreko gobernuakaz, Alderdi Sozialistako gobernuakaz. Aragoiko tartean, 2009ko zezeilean, Alderdi Sozialistako gobernu baten eskutik, ganera, tarte batzuetako zenbatekoan hobariak ezarten hasi ziran, eta erabateko hobariak gauzatu ziran 2009. urteko zemenditik.

Dana dala, esan danez, Bizkaiko Foru Aldundiak berak be lortu dauz AP-68aren inguruko hitzarmenak. Orain dala urte bi hitzarmena sinatu eban Estaduko Administrazio Orokorragaz eta AVASA soziedade emokidadunagaz, AP-68 autopistearen eta Superhegoalde faraonikoaren arteko lotunea eregiteko. Adarreko foru-diputaduen esanetan, balio estrategiko handiko hitzarmena zan; tira, propagandistikoa, esango neuke nik. Emoten dau

bidesari bizkaitarreko ordaintzaile porrokatuek ez daukiela baliorik Foru Aldundiarentzat, bidesari horretarako, horretarako, ezin dalako ezelako hitzarmenik lortu, antza.

Klasikoen esanetan, errealitatea egia bakarra da, eta, egia esan, ez daukagu ez foru-dirulaguntzarik, ez bidesariaren inguruko hitzarmenik. Bizkaitarrok Edengo sortaldean segiduten dogu, segiduten dabe bidesariari jagokonez, Foru Gobernuak bidesari honen inguruan egin dauana alperetasun hutsa izan da eta da: errudunen bilaketea eta justifikazio antzuak. Betiko moduan, Alderdi Popularreko Gobernuak aitutzen dozue, edo, era berean, era berean, pandemia aitutzen dozue. Izan be, patxadea euki beharra dago bizkaitarren aurrean, 20 urteko ezintasunaren eta nasaitasunaren ostean, Batzorde Teknikoko lanak hasteko epea hasi zanetik urte bi igaro ostean eta Batzorde Teknikoko lanak hasteko epea amaitu zanetik urtebete igaro ostean eta epea amaitu zanetik urtebete igaro ostean, pandemia dalako emoten jaken, bizkaitarroi emoten jakun atxakia.

Izan be, nire ustetan, zuok, Alderdi Sozialistako jaun-androk, Euzko Alderdi Jeltzaleko jaun-androk, oso ondo ikusten dozue bidesari sozialarena. Izan be, sarri askotan esan dozue, baina arabarrentzat ikusten ei dozue ondo, eta hitzarmenena aragoarrentzat nahiz errioxarrentzat ixten dozue zuok. Halanda ze, bizkaitarrok ordaindu egin behar dogu, hamarkadetan egin dogun lez, eta ordaintzen segidu beharko dogu. Izan be, gogoan euki behar dogu bidesariaren ordaintzearen atzean personak dagozala, familiak dagozala eta eurentzat ahalegin nabaria dala bidesari honen kostua.

Eskumenen inguruko aldarrikapenak ez dira muskulu politikoaren erakustaldiak bakarrik izan behar, historikoa dan estrategiaren zatiak, eta, horren ondorioz, alderdi indartsu baten pisu politikoa egiaztau behar da Madrilen eskakizunen aurrean, tanto negoziagarriak erdiesteko. Herritarrentzat erabilgarriak diranean, personentzat egiten diranean baino ez daukie zentzunik, eta itaunean esan neban. Izan be, honelako gaitan, zer atera dogu personok?, zer atera dogu bizkaitarrok gai honetatik?, zein da urte biren ostean lortu dogun onura zuzena? Bat bera be ez, beti baizen txarto.

Bizkaian, hobariei buruz berba egiten da, ia-ia pekatua be bada doakotasunari buruz berba egitea. Esan gura dot guk benetan uste dogula etorkizunean erabiltzaileentzako doako tartek egon behar dirala, baina, tira, ez gintzatekez espezie arraroa, *rara avis* izango, ez, Aragoiko herritarrek lakoak izango gintzatekez, edo Errioxan jazoten dan lez, holako gauzak beste lurralde batzuetan be jazoten diralako. Halanda ze, ez deusagu uko egiten hori eskatzeari eta epe ertainari begira hori eskatzeari.

Guk, Arauz Besteko Proposamen honetan, eskatzen doguna, eta aurkeztu diran zuzenketak aitatu gura dodaz, guretzat onargarriak dira Elkarrekin Podemos taldearen zuzenketak. Era berean, guretzat oso zentzunezkoak dira Euskal Herria Bildu taldeak egiten dauzan proposamenak. Uste dot aurrerago aztertu daitekezala eta gai honetan be txertatu daitekezala. Guk honako hauxe eskatzen dogu argi eta garbi, eta bizkaitarrek jakitea gura dogu: AP-68 autopistan, Bizkaia zehartzen dauan tartean, berehala ezartea gitxienez beste azpiegitura batzuetarako (AP-8a, Metropolialdeko Hegoaldeko Saihesbidea, Artxandako tunelak) erabilten dan dirulaguntza-araubide berbera. Era berean, Bizkaiko Foru Aldundiak oso kontuan hartzea hur-hur daukan beste aldundi batek, arabarrak, egiten dauana, bere lanak egin dauzalako, herritarren eskaerei zein erreklamazinoei erantzun deuselako eta, gure eretziz, Bizkaiko Foru Aldundiak be bere egin behar dauzalako gai horreek. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora Fernández Angulo. Como se ha dicho, se han presentado enmiendas por parte de Elkarrekin Bizkaia y EH Bildu. Por tanto, corresponde el turno al grupo Elkarrekin Bizkaia. Señor Lobato Pascual.

El Sr. **LOBATO PASCUAL** jaunak: Muchas gracias, señora Presidenta.

Talde Bereziko ordezkariari entzundakoan, uste dot tarifen egoera honetara ailegau arte jazo dan guztia une honetan berrikusten jarteak, uste dot, ezer gitxi eskainiko dauala, iraganean txartoen nork egin dauan argudiatu gurean talde politikoen artean garatutako ika-mika antzutik harago. Gure eretxiz, ibilbide hori ikuspegi politiko hutsetik hartu behar da kontuan, baina argi eta garbi euki behar dogu eztabaidagai hau zertarako ekarri dan barriro Ganbera honetara, urratsen bat emon gurean, txikia bada be, AP-68 autopistea darabilen zergadun bizkaitarrek jasandako tarifa-arazoa konpondu ahal izateko. Ekimen honen proposamengileak argi eta garbi azaldu dau aurreko agerraldian. Okupazino handiko errepideak dagoz Bizkaian; esate baterako, AP-8a, Artxandako tunelak eta Metropolialdeko Hegoaldeko Saihesbidea, eta bertako erabiltzaileek 2017ko urtarriletik daukie tarifen sistema integrala ordainpeko errepide horreetan. Horri esker, hilean 32,63 euro ordaintzen dabez gehienez. Erabiltzaile horreek AP-68a darabilen erabiltzaileek ordaindutako zerga berberak ordaintzen dabez. Erabiltzaile horreek ez dabe ulertzen eurak bizkaitarrak izatea eta herrikideek lako tratua ez jasotea. Erabiltzaile horreentzat arrotzak dira errepidearen kudeaketearen azalpenaren eraginaren inguruan egindako aurreko kudeaketa negargarriak eta gaur egun egon ez dagozanak edo nahikoak ez diranak. Horixe bera da gaurko eztabaidagaia. Aurreikuspenen arabera, talde politikoez bereizkeriazko tratu hori konpontzeko adostasuna lortu behar dabe gaur. Beste arazo batzuk dagozala berabide daukagun errepidearen ondorioz? Jakina, badakigu. Era berean, jakin badakigu bizkaitarrek euren zergen bidez ordaintzen dabezana gure soldata, euren arazoak konpondu daiguzan eta ez azaldu deiguzan.

Geure herritarren arazoak konpondu daiguzan. Batzar Nagusiok horretarako eratu ziran XIV. mendean, eta gure zeregina horixe bera izan behar dala pentsetan segiduko dozuelakoan nago.

Talde proposamengilearen proposamenari jagokonez, ekimenean ikusi daikezuen, puntu bi baino ez dakar. Argiak eta zehatzak. Lehenengo eta behin, Bizkaiko ahalmen handiko beste errepide batzuetan ezarten dan dirulaguntza-araubide berbera ezartea, eta hori bidezkoa eta egokia dala ulertu daikegu. Bigarrenez, Amurrioko, Laudio eta Aiarako bailarako herritarrek jasaten daben tarifa-bereizkeria konpontzea, lurraldeen eta eskumenen gerra honetan inorena ez dan lurrean dagoz-eta. Uste dogu aldarrikapen biak bidezkoak dirala eta ahal danik eta lasterren konpondu behar dirala. Ezin dogu itxaron errepidearen titulartasuna eta kudeaketea 2026an foru-arlokoak izan arte eta urtenbidea goizerik gauera mirariz agertu arte. Urtenbidea fronte batzuetatik landu beharra dago, eta kasuan kasuko sailak kudeatu behar dau. Ondotxu dakizuen, Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Saila da hori.

Gure eretxiz, talde proposamengilearen ekimena bidezkoa eta beharrezkoa bada be, ez da oso asmo handikoa bere garapenari begira. Ez da estakurua, oster, uste dogulako beharbada holan dala Ganbera hau osotzen dogun indar politiko desbardinaren arteko adostasun handiena lortu gurean, urtenbidea ahal danik eta lasterren zehaztu daiten. Dana dala, gure taldearen ustetan, aukerarik badagoanez, harago joan behar gara. Zuzenketea aurkeztu dogu, eta jatorrizko ekimenean 3 puntu eranstea proponiduten dogu bertan. Uste dogu, Ganbera honetan eta kasuan kasuko batzordeetan nekatu arte behin eta barriro esan dogunez, pribaduari barik garraio publikoari emon behar jakola lehentasuna. Ezelako zalantza barik, okupazino handiko errepideetako tarifen kudeaketea arreta handiagoz aztertu beharreko gaietako da. Horrexegaitik, mahaia eskatu dogu, aukerea euki dogun guztietan, eztabaidatu ahal izateko, geure erespideak zein gizarte zibilarenak azaltzeko eta helburuak nahiz urtenbideak zehaztu ahal izateko. Ondotxu daki Pradales jaunak. Aldundi honek ez dau sekula eskunarrua hartu. Jarrera hori inoiz aldatuko al dau!

Labur-labur azalduko dot geure proposamena. Ez dira gehieneko zehaztapena daukien proposamenak, ahal dala, etorkizunari begira koordinazinoan garatu eta zehaztu beharreko lan-proposamenak baino. Proposamen horreek jatorrizko ekimenaren

osogarri dira, eta, eskaintzen dabezan neurriei esker, ibilgailu partikularren errepideko zirkulazinoa gitxitu ahal izango da, herritarrentzako zerbitzuak hobera egingo dau kalidadeari begira eta, horrezaz ganera, ingurumeneko kutsadurearen eragina txikiagoa izango da.

Geure zuzenketearen lehenengo puntuan, Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzen deutsagu garraio kolektiboaren erabilerea suspertu daian bere ustetan egokiak diran formulen bitartez. Gure errepideetan bidaiari bakarreko autoen ehuneko handia egotea ekidin beharra dago. Hori egiteko formula asko dagoz, eta erakargarriak izan daitezke erabiltzaileentzat. Gure eretziz, zentzun horretan kontuan hartu beharreko tresnea izan daitezke bidesariak. Eztabaida hori edegi daigun, egokienak ezarteko.

Bigarren puntuan, funtsezko zeozer nabarmentzen dogu. Ibilgailu partikularren erabilerea gitxitu gura badogu, errepide horretako garraio publikoaren hobekuntza nabaria proponiduten dogu bertan. Ezin deutsegu herritarrei eskatu garraio publikoa erabiltzeko, zerbitzuko preminei aurre egiteko besteko gaitasunik ez badauka. Ibilbideak, ordutegiak hobetu daiguzan. Zerbitzu erosoagoa eskaini daigun. Zer hobetu ugari dago, eta, ganera, behar besteko erakargarritasun ekonomikoa be euki behar dabe, gure herritarrek modu sistematikoan erabili daiezan. Ahal dogun guztia egokitu daiguzan tarifak, erabiltzaileentzat hain karga handia izan ez daitezkan. Badago hori guztiori egiterik, garraio publikoaren aldeko apustua egiteko benetako borondaterik badago. Ahaldun nagusiak behin baino gehiagotan adierazo dau holantxe dala, baina benetan uste dogu zentzun horretan egiten diran ahaleginak urriak dirala. Handigurakoak izan gaitezkan.

Azkenengo puntuan adierazten dogu ekimenaren jatorrizko puntuak eta erantsi gura doguzan honeek honako honeetxen arteko ahal danik eta alkarrizketa handienaz ebatzi behar dirala: instituzinoak, talde politikoak, enpresa pribadua eta, batez be, gizarte zibila; esate baterako, gatazka honi konponbidea emoteko asmotan eratutako era bateko eta besteko plataformen bidez. Ahal danik eta eragile gehienei entzuten ez bajake, baleiteke emondako urtenbidea herren geratzea faktoreren batean. Gaur, ahalmen handiko errepideetako bidesariak era bidezkoagoan eta eraginkorrangoan kudeatzeko aukerea daukagu. Gure esku dago aukera horri heltzea edo bete-betean hobetu daitezkean gaur eguneko egoereagaz segidutea. Nada más. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Lobato Pascual. Como el grupo Euskal Herria Bildu ha presentado una moción, su turno. Señor Méndez Urigoitia, tiene la palabra.

El Sr. **MÉNDEZ URIGOITIA** jaunak: Sí, muchas gracias, señora Presidenta. Buenos días a todos/as.

Como la señora Fernández explicó en la interpelación presentada el día 24 de marzo, no es la primera vez que se aborda esta iniciativa en esta Cámara, pero hagamos un poco de memoria. Se le olvidó decir que la iniciativa que se debatió en enero de 2020 fue propuesta por el grupo EH Bildu, y decía lo siguiente:

Las Juntas Generales de Bizkaia instan a la Diputación Foral de Bizkaia a poner en marcha lo antes posible para los/as usuarios/as vizcaínos/as de la autopista AP-68 el sistema de bonificaciones de límite de gasto que ya aplica en las vías de La Supersur, la AP-8 y los túneles de Artxanda, que son de su competencia.

El texto es muy similar al que ustedes proponen en su moción. En la propuesta del Grupo Mixto, ustedes lo solicitan “inmediatamente”, *berehala*, y, en nuestro caso, solicitamos hacerlo “lo antes posible”.

Por tanto, en aquel enero de 2020, ustedes se abstuvieron, porque no estaban preparados/as en aquel momento, al parecer, a pesar de los gestos, para votar a favor de una iniciativa que presentaba EH Bildu, aunque su propuesta y la nuestra eran casi idénticas.

Nosotros/as no vamos a hacer lo mismo, y adelanto que nosotros/as aquí vamos a votar a favor de la moción, porque creemos que va en la misma dirección y porque consideramos que es un sinsentido actuar de manera partidista ante un tema tan importante.

Sin embargo, a nuestro parecer, en nuestra enmienda queremos presentar dos nuevos puntos que contribuyen a su mejora y la complementan.

Las Juntas Generales de Bizkaia instan a la Diputación Foral de Bizkaia a, donde el primer punto sería:

- Analizar las medidas pertinentes (tanto respecto a las bonificaciones como respecto a otras opciones) y a ponerlas en marcha lo antes posible en la carretera N-625, a su paso por Bizkaia, para la regularización del tráfico de vehículos pesados.

El segundo punto sería:

- Proceder a la reflexión sobre la financiación de las carreteras de alta capacidad del territorio, para terminar con la discriminación entre comarcas.

Estas son las propuestas que queremos añadir al texto original.

Era berean, gogoratu egin gura dot 2020ko urtarril haretan, Gobernuari eusten deustien alderdiek (EAJ eta PSE) ez ebela adosteko ezelako asmorik euki eta behin betiko adostu zan beste ABP baten bidez kontraprogramau ebela. Honako hauxe inoan:

Foru-arloko titulartasun eta kudeaketako bidesaripean dagozan errepide-azpiegitura guztiak gastu-mugearen sisteman sartzea.

AP-68ari jagokonez, kudeaketa zuzena geure gain hartu arte eta Transferentziari buruzko Dekretuan aurreikusitako Batzorde Teknikoaren lanak amaitutakoan, enpresa emokidadunagaz dirulaguntzen ezarpena aztertzea, gastu-mugearen sistema albo batera itxi barik.

Besteak beste, honako hauxe kontuan hartu beharko da azterketa horretan: egindako bidaiei buruzko informazio-prozedurea, iruzurra ekiditeko behar diran mekanismoak eta, holan bajagoko, alderdien artean adostutako sistema ezarteko behar dan inbersinoa.

Orduan abstenidu zana EH Bildu izan zan, nire taldea, konfiantzako botoa emon geuntsalako ekimen honi, bertan zehaztutako urratsak beteten baziran, zentzunezko epealdian AP-68a gastu-mugearen sisteman sartu eitekealakoan.

Gaur, urtebete baino gehiago igaro danean, 15 hilebete geroago, hain zuzen be, zuok lanak noiz egingo zain zagoze oraindokarren, Pradales jaunak Kontrolerako aurreko Osoko Batzarrean autortu eban lez. Izan be, bere diskursoaren amaieran esan ebazan berbei eusten badeutsegu... “Ezelako zalantza barik, AP-68a tarifen sistema integralean sartuko da BERANDU BAINO LEHEN”.

Halanda ze, EH Bildun, ez dogu ezelako eragozpenik ikusten, Talde Bereziak gaur aurkeztu deuskun ekimena onartu daiten eta nire taldeak zein Elkarrekin Bizkaiak aurkeztu dabezan zuzenketak jorratu daitezkan.

Gure zuzenketak onartu egingo zizalako uste genduan arren eta Fernández andreak euren balioa azpimarratzeko egin dauan kinua eskertzen dodan arren, uste dot geroago eztabaidatzea errakuntzea izango litzatekeela, arazoa izango litzatekeela, horrek adierazo egin gura leukealako gaur zarratu gura geunkean eztabaida hau atzeratzen segiduko geunkeala.

Hona hemen, labur-labur, EH Bilduk bidesarien sistema horren inguruan aurkeztutako proposamenen aurrean daukan jarrera:

- EH Bilduk baietz dinotse hileko gastuaren mugearen ezarpenari eta bidesarripeko beste errepide batzuetan ezarritako hobari-sistemeari, Bizkaiko egoiliarak diran AP-68ko erabiltzaileen onurarako izango dira-eta.

- EH Bilduk baietz dinotso adostasun hau AP-68an Bizkaia eta Araba artean egiten diran joan-etorrietara eramateko prozesuari. Uste dogu aldundien arteko erakundearteko adostasuna lortu beharra dagoala.

- EH Bilduk baietz dinotso kasuan kasuko neurrien azterketari (hobarien bidez edo beste edozein aukeraren bidez), N-625 errepidean, Bizkaiko ibilbidean, ibilgailu astunen zirkulazinoa erregularizetako.

- EH Bilduk baietz dinotso, barriro be, lurraldeko ahalmen handiko errepideen finantzaketari buruzko hausnarketaren hasierari, eskualdeen arteko bereizkeriari amaiera emoteko.

En otros territorios, se están adoptando medidas (en esta Cámara, hemos hablado en más de una ocasión sobre la ponencia que se está debatiendo en Araba), y se están creando foros de participación para estar preparados/as en el ámbito de la financiación, para cuando la Diputación asuma la gestión directa de la AP-68.

¿No creen que es necesario constituir una mesa de diálogo entre los grupos políticos que conformamos esta Cámara?

Parece que todos los grupos estamos dispuestos a aplicar medidas de bonificación a los/as usuarios/as habituales de la AP-68, para así poder paliar las consecuencias a nivel económico y para superar las situaciones de discriminación surgidas en función de la comarca de origen.

Por tanto, ¿dónde reside el problema? ¿A qué estamos esperando? ¿Cuándo vamos a abrir este debate en Bizkaia? EH Bildu está dispuesto a ello, y, en la enmienda, manifestamos claramente la apuesta.

La intención de EH Bildu es establecer un sistema integral de pago para todas las vías de alta capacidad de Bizkaia, pero no nos cerramos a otras opciones. Por eso creemos que el objetivo final debe ser la homogeneización del sistema de peajes en todo el territorio, y no buscar soluciones puntuales para cada vía.

Amaitzeko, ahaztu be ezin dogu egin, ez dogu garraio publikoa ahaztu gura. AP-68an bertan, garraio publiko multimodalaren erabilera sustatu behar dogula uste dogu, hau da, ondasunak eta zerbitzuak azkar, eroso, jasangarritasunez eta bidezketasun handiagoz eskuratzeko aukerea eskaintzen deuskun garraio publikoa. Berbarako, OHI erreiak atondu geinkez edo autopista horretarako sarbideetan autobusei emon geinkioe lehentasuna. Nada más. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Méndez Urigoitia. Señor Jerónimo Moreno, portavoz del grupo Socialistas Vascos, tiene la palabra.

El Sr. **JERÓNIMO MORENO** jaunak: Buenos días. Muchas gracias, señora Presidenta. Egun on batzarkide danoi, sareetan segiduten gaituzuenoi eta Osoko Batzar hau egitea eta zabaltzea lortzen dozuen profesionaloi.

Itaunaren ondorioz sortutako mozino honetan, AP-68 autopistea erabiltean dirulaguntzak eta murrizketak ezarteko aukerea proponiduten da, nahiz eta gero erregistrautako zuzenketetan hasierako mozinoagaz zerikusi handirik edo ezelako zerikusirik ez daukien beste ekintza batzuk proponiduten diran.

Gai honi jagokonez, ekin eta ekin egingo dot, diputaduak gai honi buruzko itaunean eskaini ebazan azalpenak argiak baizen luzeak izan ziran. Azkartasuna edo preminatasuna, talde batzuek gauzak holantxe egin daitezkeza uste dabela kontuan hartuta, hurrago dagoz irudi idilikoetatik gaur egun daukagun benetako egoeratik baino.

Lehenengo eta behin, talde sozialistearen jarrera zehaztu gura dot, hau da, foru-arloko titulartasun eta kudeaketako bidesarrieko errepide-azpiegitura guztiak gastu-mugearen sisteman sartzea. Batzar Nagusiotan igazko zezeilean onartutako ABPn adostu zanez, ABP luzeagoa zan arren, uste dot paragrafo honek argi eta garbi adierazoten dauala zein diran bertan adostutako konpromisoak.

AP-68ari jagokonez, konpromiso hori beteteko gabilz lanean. Ganbera honetan azaldu da. Gai batzuk gabilz enpresa emokidadunagaz aztertzen, ABP horretan adostu zan lez, foru-arloko titulartasun eta kudeaketako generako errepide-azpiegiturarako indarrean dagoan sisteman sartu daitezkan. Barriro dinot: foru-arloko titulartasuna eta kudeaketea, datuen babesa, ekipamentu teknologiko eta fisikoa, Interbiaken eta gaur eguneko kudeaketearen enpresa emokidaduna dan AVASaren sistema informatikoen arteko bateragarritasuna.

Joan dan zezeiletik, Arabako eta Bizkaiko aldundiek testua daukie adostuta, diputaduak adierazo euskun lez. Lanak nahikoa aurreratuta dagoz, pandemiako gaur eguneko inguruabarrak inguruabar, eta horretarako sortu zan Batzorde Teknikoak bere emoitza emongo dauz berandu baino lehen, diputaduak esan eban lez.

Ez neuke Fernández andrearen oposizino-lana ezelan be gutxietsi gura, baina oposizino zereginetan zabilzanean gauzak egiteko euki gura dozun azkartasuna ez dator bat zure alderdia, Alderdi Popularra, gobernuan dagoanean zeregin horiek egiteko daukan abiadureagaz. Zure ustetan, lanean ibilitako 15 hilebete horreek epealdi luzeegia dira, gaur eguneko pandemian tarifa finkoa ezarri ahal izateko? Halanda ze, zelan ikusten dozu 15 urte izatea? 15 urte dinot, horixe bera izan zalako luzapen-epealdia, zure alderdiaren, Alderdi Popularraren Gobernuak epealdi horretarako luzatu eutsalako emokidea enpresa pribaduari. Izan be, luzapen hori egin ez balitz, gaur egun AP-68a oso-osorik izango litzateke bizkaitarrona, titulartasuna nahiz kudeaketea, eta ez geunke hirugarrenakaz adostasunik lortu beharko, ganerakoetarako indarrean dagoan foru-sistemea ezarteko.

Ez, ostera. Ezin izan da holan izan. Titulartasuna eskualdatu da, baina ez kudeaketea, oraindakarren 2026ko zemendira arte dagoalako enpresa pribaduen esku. Halanda ze, eta erkaketea onartuko deustazue, etxebizitzea heredau dogu, baina maizterra dauka, eta 2026ra arte bertan bizitzeko kontratua dauka. Ezin da beste leku batzuetan lez jokatu. Ez dot Venezuelako adibidea jarriko. Argentina hartu daigun, eta bertako petrolio-konpainia ezagun-ezaguna. Jakina, badago jo eta hausi eta segurtasun juridiko barik egiterik, baina horrek ondorioak, ondorioak dakar, eta, gero, danon artean ordaindu eta pagau behar dogu

honenbestena, AP-68aren kudeaketa pribaduaren aldi baterako luzapenagaitik. Errakuntzea izan zan eta bizkaitarren interesen kalterako erabat, eta zure alderdiak, Alderdi Popularrak onartu eban, eta sozialistok gogor kritikau genduan bere garaian.

Halanda ze, azkartasuna bai, ahal dan guztia, baina benetakoa, ikugarria, gauzatu daitekeana, eta ez zure alderdia gobernuan edo oposizinoan dagoanean aldatzen dana edo gero herritarren kalterako ondorioak ekarri daitezana. Izan be, emoten dau bertan AP-68ko tartea doakoa izateko adostasuna lortzen badogu, inork ordainduko ez leukeala, zuk adibide moduan jarri dozuzan beste instituzino batzuetan ordaintzen ez daben lez, antza: Araban edo Errioxan be bai. Ez, ba, ordaindu egiten dabe, baina danon artean ordaintzen dogu, ez dabe erabiltzaileek ordaintzen. Hori dala eta, era bateko eta besteko formulak ezarri daitezke AP-68 hori kudeatzeko: erabiltzaileek oso-osorik ordaintzea, heredau dogun egoerea, eta gaur egun indarrean dagoana, hau da, erabiltzaileek ezer ez ordaintzea. Hau da, ez ezer ez ordaintzea, herritar guztiok danon artean geure zergen bidez ordaintzea baino, azpiegitura hori erabili nahiz erabili ez, hau da, beste instituzino mugakide batzuetan egiten dan lez. Ostantzean, azpiegitura askotan erabilten daben erabiltzaileek tarifa finkoaren bidez ordaintzea, egiten daben erabilereagaitiko gehienekoa zehaztuta. Horixe bera da Aldundiak ezarri gura dauan formulaea, eta horretan gabilz lanean.

Zuzenketei jagokenez, esan egingo deusuet proponiduten dozuezan hobari-neurriek hausnarketa berera garoezala. Gaur egun, behintzat, zer dinotsagu gaur eguneko kudeatzaileari, ibilgailu astunek ez ordaintzeko? Zera esango deuskue: “ez, ba, zeuok ordaindu danon artean”. Bardin deutso, kudeatzaileari bost ardura, enpreseari danon artean ordaindu beharko deusagu-eta. Ahalmen handiko errepideen finantzaketari buruzko hausnarketari jagokenez, beharbada hausnartu egin beharko geunke, baina beste foro batean, teknikoagoan, agian, eta, seguruenik, ostean hausnartu beharko dogu.

Elkarrekin Bizkaia taldeak proponidutako zuzenketak beste foro batekoak dira, nire eretziz. Garraio kolektiboa sustatzea, jakina. Zelan, ostera? Autopisten dirulaguntzearen doakotasuna kontuan hartuta, hori ez litzateke egokia izango. Hain zuzen be, horixe bera proponiduten da mozino honetan: errepide honetako iragaitzearen doakotasuna edo dirulaguntzea. Badago garraio publikoa aztertzerik, bai, baina, zer esanik ez, ez mozino honetan. Holan bajagoko, sail eskudunean kudeatu ahal izango da.

Erabagi horreek alderdi politikoakaz, enpresakaz eta giza taldeakaz hartzeko prozesuari jagokenez, ez legoke ezelako eragozpenik, baina demagogia barik. Ez gaiezala barrero be jarri erabateko doakotasuna ona dala dinoan egoerearen aurrean, erabateko doakotasunik ez dagoalako edo gai honetan, ez, behintzat. Hona hemen erabagi beharrekoa: erabilten dauanak ordaindu behar dauan, danon artean honenbestena ordaintzen dogun, erabili nahiz erabili ez, edo sistema solidarioagoa ezarten dogun, hau da, gehien erabilten dauanak gehiago ordaintzea muga batzuk ezarrita. Horri esker, ganera, artapenetan eta beste azpiegitura batzuetan inbertidu ahal izango da batutako dirua, eta baleiteke erabiltzaileek beste garraiobide jasangarriagoak aukeratzea, kutsadurea eta ingurumenaren ganeko eragina gitxitzeko. Orain arte bidesari sozialtzat jo doguna, bidesari soziala be bada-eta. Besterik ez. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Jerónimo Moreno. Señora Edesa Gómez, portavoz del grupo Nacionalistas Vascos, tiene la palabra.

La Sra. **EDESA GÓMEZ** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta. Buenos días a todos/as.

Tira, Talde Berezia-Popularrak Azpiegituretako diputaduak erantzun egin eban itaunetik eratorritako mozinoa aurkezten dau. Fernández andreak mozino honetan zer eskatzen dauan? Foru-titulartasuneko bidesarripeko generako azpiegituretan ezarten dan dirulaguntza-araubide bera berehala ezartea eta, kasu honetan, Arabako Aldundiagaz beharrezko adostasuna lortzea.

Hara, garrantzitsua da diputaduak Kontrolerako aurreko Osoko Batzarrean erantzun ebana argi ixtea. Emon ebazan giltzarriek argi ixten dabelako, batetik Aldundi honek AP-68an daukan interesa, eta, ganera, argi ixten dabe errepide hau Bizkaiko gaur eguneko tarifa-sisteman sartzeko borondatea dagoana.

2020ko urtarrilaren 1ean, badakigunez, Bizkaiak autopistearen titulartasuna jasoten dau gure lurraldeari jagokozan 22 kilometroetan. Titulartasuna jasoten dau, baina ez kudeaketea, eta hortxe dago bidesarian hobariak daukiezan ahalmen handiko generako errepideakazko aldea.

Izan be, badakigunez, AP-68aren kasuan, kudeaketea emokidadun baten, enpresa pribadu baten esku dago. Halanda ze, Aldundiak ez dau autopistea kudeatzen, eta, horren ondorioz, Aldundiak ez dauz bidesariak batzen.

Hori, ostera, ez da eragozpena, Aldundi honek bete-betean lan egin daian, AP-68a darabilenak dirulaguntzetako onuradunak izan daitezkan, Bizkaiko bidesarripeko errepideetako generako erabiltzaileak lez, eta foru-arloko titulartasun eta kudeaketako autopistak darabilezan guztientzako aukera-bardintasunean aurrera egin daiten.

Prozesu gatxa da, eta, esku pribaduetan dagoanez, gai administratiboak, teknologikoak eta finantzarioak konpondu behar dira, baina beharrezko lana da, eta Foru Aldundi hau horretantxe dabil lanean, diputaduak Kontrolerako aurreko Osoko Batzarrean argi eta garbi azaldu eban lez. Bestetik, Aldundiak autopistea kudeatzen dauan enpresa emokidaduna dan AVASAgaz lan egiten dau mekanismo guztietan, AP-68 autopistea gure lurraldean gaur egun indarrean dagoan sisteman sartzeko, eta 3 faktore lantzen dagoz, diputaduak azaldu eban lez: datuen babesean, iruzurra ekiditeko ekipamentu teknologiko zein fisikoan eta AVASaren nahiz Bizkaiko Foru Aldundiaren sistemen bateragarritasunean. Bestetik, Batzorde Teknikoaren lanak dagoz, eta batzorde horrek inplikautako administrazioen lanak arautzen dauz. Lana aurrerantz doa, eta azken akordua noiz zarratuko zain dagoz.

Hori guztia, testuinguru hau kontuan hartuta, zergaitik ez dogu babestuko Fernández andreak bere proposamenean proponiduten dauana? Berehala ezartea gura dozuelako, hori ezinezkoa danean, Fernández andrea. Ezin da berehala ezarri, hori ezarteko esan barri dodan guztia konpondu behar dalako ezinbestean, Fernández andrea, ezinbestean. Arabaren adibidea jarri dozu barriro be. Esan deusugunez, tira, eredu mugatua da, eta ez dau aukera-bardintasuna kontuan hartzen. Neuk be eskatuko neuskizu, Fernández andrea, ausarta izan zaitezala eta zeure errua edo zeure alderdiarena zeure gain hartu daizula, euki badaukazulako, kasu honetan badaukazu, eta handia, eta, ganera, etenbako kontraesanetan jausten zara.

Pradales jaunak argi itxi eban Bizkaiko Foru Aldundiaren jarrera, hau da, AP-68a Bizkaiko gaur eguneko tarifa-sisteman sartzea, baina, Fernández andrea, ezin dogu berehalakotasuna eskatzen dauan mozinoa babestu horretan lanean gabilzanean eta, bermez ezarri ahal izateko, oraindokarren gai batzuk ezinbestean konpondu behar diranean.

Tira, Euskal Herria Bilduk eta Podemosek aurkeztu dabezan zuzenketei jagokenez... Euskal Herria Bilduren zuzenketeari jagokenez, beste eztabaida bat proponiduten dozue, eta, ganera, euki euki dogu. Ondo baino hobeto dakizue Aldundia, ganera, horretan dabilena lanean, Errepideen LPSn, lan-taldearen babes zabalaz onartu zan agirian zehazten dan

ibilbide-orri horren arabera. Gai horreek Errepideen Lurralde Plan horretan jorratuko dira, eta ez orain, une honetan. Elkarrekin Bizkaiaren zuzenketeari jagokonez, zeozelan be, beste eztabaida bat da. Edozelan be, esan egin gura deusuet, badakizuenez, Aldundi honek apustu argia egiten dauala mobikortasun jasangarriaren alde eta beti-beti lan egiten dala kalidadeko garraio publikoaren etenbako hobekuntzan.

Amaitzeko, tira, gure taldeak 2020ko zezeilean Ganbera honetan lortu zan adostasun hori berresten dau. Bertan, hain zuzen be, honako hauxe da asmoa: foru-arloko titulartasun eta kudeaketako bidesaripean dagozan errepide-azpiegitura guztiak gastu-mugearen sisteman sartzea eta, AP-68aren kasuan, enpresa emokidadunagaz dirulaguntzen ezarpena aztertzea, sistema hori albo batera itxi barik eta era bateko eta besteko faktoreak aztertuta. Agindu hori berori onartu zan Ganbera honetan. Aldundi honek agindu horri eusten deutso, eta agindu hori berori berresten dogu. Hori dala eta, ez dogu zuon proposamena babestuko. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Gómez Edesa. A continuación, pasaremos al turno de réplica. Para ello, señora Fernández Angulo, portavoz del Grupo Mixto-Partido Popular Bizkaia, tiene la palabra.

La Sra. **FERNÁNDEZ ANGULO** andreak: Eskerrik asko, mahaiburu andrea.

Egia esan, nire eretxiz, AP-68ko bidesariagaz bizitzen gagozana adarjote ikaragarria dala esan daiteke ezelako arazo barik. Jakina danez, paperak dana jasaten dau, baina, Batzar Nagusi honetan konturatu be egin garanez, tribuneak be bai. Pentsetan neban Euskal Sozialistak eta Euzko Abertzaleak taldeetako ordezkariak tribuna honetara urtetan ebenean, lehenengo eta behin euren agerraldian esango ebela, lehenengo eta behin parkamena eskatuko euskuela Bizkaiko herritarroi, guri adarra jotearren, euren jarrera zurituezina izatearren eta justifikazioak ez elako zerikusirik ez eukitearren, atxakia piloa eta mordoa baino ez da-eta.

Borondate hausiezinari buruz berba egiten dozue zuok, etxebizitza heredau dozuela, zelako suertea euki dozuen, baina tamalgarria dala maizterragaz etortea, eta, jakina, betiko moduan, Alderdi Popularreko gobernuak demonizeten dozuez. Ganera, zuok, sozialistok, lehenengoak zarie horretarako, edozertarako prest zagoze gai honetan, baina emoten dau zuoi ahaztu egiten jatzuela gai honetan protagonismo handia euki dozuela beti, eta adibide bat aitatu deusut.

AP-9aren kasuan, Alderdi Sozialistakoaren aurretik egon zan gobernuak, UCDkoa zanak, zehaztu eban epearen arabera, emokidea 2013an amaitu behar zan, eta gaur egun oraindakarren politikan segiduten dauan ministro bat, Borrell jauna, izan zan 2023ko abuztuaren 18ra arte luzatu ebana. Halanda be, egiaztatu egin da sobrako adibideak dagozana Araban, eta, gero, EAJk gai batzuetan daukan arima bikotxari buruz be berba egingo dogu. Aragoiko Gobernuan, Errioxan, egiaztatu egin da, alkarren segidako gobernuakaz be bai, oztopoa ez dana eta zuok tribuna honetako talde salbuetsiak zariena, horixe dana egiten dozuena, nahi izan ezker badagoalako hori egiterik eta borondate politikoa baino ez dalako euki behar. EAJko ordezkariari jagokonez, arima bikotxa aitatu dot gai honetan, Araban badagoalako egiterik. Badago oztopo juridiko eta tekniko horreek gaintzerik, oraintsu be badago bidesarian hobari horreek Laudio eta Bilbo arteko AP-68ko gidarientzat hedatzerik, baina emoten dau EAJk Bizkaian daukan hauteskunde-nasaibideak aukerea emoten deusala AP-68a darabilgun milaka bizkaitarroi ezelako kostu barik jaramonik ez egiteko. Emoten dau Arabako EAJ perretxikotan dabilela; eta Bizkaikoa, Aldundi honetan, Rolexetan.

Iparraldeko Superhegoaldea doakoa izatea gura dozue. Entzun, ahalmen handiko errepede honetan bidesari soziala abian jarteko eskatzen da mozinoan. Superhegoaldeko obra faraonikorako hobeto erabilten diran baliabideetarako, horretarako, bai, bazarie Estaduagaz, AVASAgaz akorduak lortzeko gai, lotune hori egiteko. Hori bai dala lehentasunezkoa Foru Gobernuari eusten deutesien taldeentzat. Horrek ez dau ezelako kritikarik merezidu tribuna honetan. Personentzako, bizkaitarrentzako akordua danean, ostera... Izan be, ezin dogu ahaztu proponiduten gabilzan bidesarien gai hau zera daukan eztabaidea dala edo esan egin geinkeala bidesarien politikea poliedrikoa dala, badaukalako eraginik segurtasunean, ekonomian, kutsadurearen garraioan, jasangarritasunean, mobikortasunean, denporearen aurrezpenean. Era berean, batez be, bardintasunari begira be berba egin dozu horri buruz. Azken batean, bidesariek kostu handiak inponiduten dabez eta inponiduten dabilz bizkaitarrentzako gizarte-ondoizateari begira be bai, eta desbardintasunezko egoeran jarten gaitue Arabako biztanleakaz, barbarako. Zuok beste alderdi batzuk kritiketan dozuez, baina, entzun, nik neuk gogoratu egin gura dot Bizkaiko Foru Aldundiak zer egin dauen 2003an AP-8ko emokidea amaitu zanean. Ez dot uste bertan Alderdi Popularreko gobernurik egoanik, nik uste. Ez, ez dakit.

Autopistako bidesaria kendu beharrean, adostu zan lez, sasi emokidadunak izatea erabagi zenduen, bertako erabiltzaileen dirua batzen segiduteko. AP-8ak, barriz, A-8 bihurtu zanean, Galiziaraino zirkuletako aukerea emoten deusku, eta Alderdi Sozialistearen gobernupean be badagozan autonomia-erkidegoak zehartzen dauz. Urte horretatik gobernu dau, hain zuzen be.

Zer jazoten da, bada, bertan gobernuak oparitzen dabela? Bidebakokeriaz jokutzen dabe? Ez dira justizia sozialaren erespideetan oinarritzen? Ez daukiez gogoan euren herritarrak?

Mesedez, ez daiguzan erabili, dinodanez, ez dira justifikazioak, atxakiak baino. Horixe bera da tribuna honetan erabilten zabilzena. Ganera, ez jaku ahazten Ermua-Galdakaoko bidesaria be hortxe dagoala bizkaitarrentzat, eta AP-68tik hur dagozan herriak be badaukaguz gogoan: Urduña, Orozko, Arakaldo, Arrankudiaga, Ugao-Miraballes, Arrigorriaga. Bizkaiko Foru Aldundiak be diruz laguntzen ez dauan bidesari-tarte bakarra da hau. Nire ustetan, bidesariakaz zerikusia daukien gai batzuk atondu behar dira, eta, zer esanik ez, emondako berbea bete behar da, emoten daualako, lehen esan dodanez, bertan tribuneak dana jasaten dauala. Lehena eta geroa dagoz. Titulartasuna eskualdatu baino lehen, horixe bera zan bidesaria ezarteko urtenbidea, baina, eskualdatu ostean, tribuna honetan baino ez zenduen esaten zuok, eta, jazo ostean, gai gaindituezinak dira nagusi. Lehen egunean, akabua izan zan, tribuna honetan arazoa pribilegio-egoerea zala esan zeunskuenean, Araban banku-erakunde batzuek azosten zalako eta, jakina, beharbada Alderdi Popularrak, ez dakit iradoki gura zenduen batzuen onurarako be jokatu gura genduala Bizkaian. Hara, badago PFEZa bankearen bidez egiterik, banka elektronikoaren bidez egingo da ordainketea? Jakina, baina adostutako erakundeakaz egin daiteke, ezin da danakaz egin, adostutakoakaz baino ez.

Halanda ze, uste dot gai honek emondako berbearen betearazpenagaz daukala zerikusia, bizkaitarren berbea, euskal herritarren berbea. Justiziagaz dauka zerikusia, baina bardintasunagaz be bai, arabarren aldean aurrerantzean desabantailan ez egoteko prozesuagaz eta eskumenen, politikearen, hartzen diran erabagien erabilereagaz be bai. Gero, ganera, ikusi daigun, laster foru-dekretua, prisazko araua eukiko dogu berbabide. Tira, ba, hauxe be badago dekretu bidez egiterik, baina bizkaitarren ondoizatea gogoan eukita.

Barriro dinot. Bigarren txandan, oraindokarren behar besteko aukerea daukazue, tribuna honetara urteteko, bizkaitarroi parkamena eskatzeko eta proposamen honegaz bat egiteko, bestetik, zuok Batzar Nagusi honeetan bertan, Ganbera Parlamentario honetan eta tribuna honetan bertan hartu zenduen konpromisoa jasoten dauala kontuan hartuta. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora Fernández Angulo. Señor Lobato Pascual, portavoz del grupo Elkarrekin Bizkaia, tiene la palabra.

El Sr. **LOBATO PASCUAL** jaunak: Taldeetako ordezkari guztien eretxiak entzundakoan, egia da norberak, honelako eztabaida parlamentarioari hasiera emoten deutsanean, ezustekoren bat egongo dan itxaropena daukana, hau da, tribuna honetara igoten diran bokaletako batek gu harri eta zur ixtea proposamen baten bidez edo alternatiba baten bidez edo ustezko urtenbide baten bidez. Zoritxarrez, uste genduana entzuten dogu, ekimenak prestetan gengozala uste genduana, zehetasun harrigarri txikiren batetik harago; esate baterako, Jerónimo Moreno jaunak irakurtean euki dauan errakuntzea. Berbarako, gure zuzenketan zerbitzuaren doakotasuna eskatzen genduala adierazoten euskun. Nik neuk autortu egiten deutsut. Fernández andreaken itaunetik eratorritako mozinoa jaso genduan, zerbitzuaren doakotasuna eskatzen eben egiaztatu genduan lehenengo eta behin, eta ez eban eskatzen. Seguruenik, eskatu izan baleu, gure taldearen jarrera erabat desbardina izango zan gaur daukagunaren aldean, edegi behar dan eztabaidea dala uste dodalako, lehenengo agerraldian esan dodanez.

Leporatu egin jaku geure zuzenketan dakarguzan era bateko eta besteko puntuek jatorrizko ekimenagaz zerikusi handirik edo ezelako zerikusirik ez daukiela. Uste dot proposamen erreala goa egin behar dogula errepidearen kudeaketeak dakarrenari eta horren ondorio guztiei buruz. Izan be, gure eretziz, ez litzateke AP-68a banan-banan jorratu beharko, foru-administrazioaren errepide guztiak batera landu beharko litzatekezalako, hartutako erabakiak koherenteak izan daitezkan eta guzti-guztietan eragina euki daien. Guretzat, ganera, aurkeztu dogun 3 puntuko zuzenketa oso garrantzitsua da, garraio publikoa daukagulako berbabide. Agirikoa danez, garraio publiko hori errepidez egiten da; eta, kasu honetan, AP-68aren bidez. Gure ustetan, bidesariak tresna moduan erabili behar doguz, Bizkaiko garraio publiko sustatzeko edo bultzatzeko, autoak errepidetik aterateko. Ez dakit oinetakoak gehiago erabiliko doguzan, ahaldun nagusiak inoanez, ez daukagulako bertatik korrika egiterik, baina, gitxienez, ibilgailuak ateratea.

Hainbat eta hainbat formula dagoz. Guk ez dogu euretako baten defendatzaileak be izan gura, baina, berbarako, otu egiten jat foru-kudeaketako autopistetan emon daikeguzan hobarien helburua izan daitekeala, esaterako, tarifa horreek oso onuragarriak izatea okupazio handiko ibilgailuentzat. Dana dala, esan deutsudanez, uste dot garrantzitsua be badala zuzenketan daroagun hirugarren puntua nabarmentzea. Hau da, alderdi guztiak jesarte proposiduten dogu, AP-68an eta foru-kudeaketako errepide guztietan zer komunikazio-sistema gura dogun zehaztu ahal izateko.

Nire ustetan, agirikoa danez, talde politiko guztien jarrerak entzun ostean, mozino honek eta horren ondorioz sortutako zuzenketek arrakasta txikia eukiko dabe aurrera egiteko, baina proposidu egin gura neuskizue, Pradales jaunaren kasu zehatzean, bera dalako sail hori kudeatzen dauana, behar besteko ahalegina egitea gure zuzenketan aurkezten dogun azken puntuaren alde. Ahal dan eragile guztiakaz jesarri, egunen batean geugaz jesarri eta era bateko eta besteko taldeok foru-errepideetan euki gura geunkean kudeaketari buruz eztabaidatu, instituzino danakaz jesarri, agirikoa danez errepideak kudeatzen dabezan enpresakaz jesarri, baina plataformen bidez antolatu dan gizarte zibilagaz be jesarri.

Agirikoa danez, alkarrizketeak ez dau ezelako kalterik egiten. Badakigu zein dan Ganberako zenbakien errealdadea, eta badakigu urtetan daben erabagiek Gobernuari eusten deutsien taldeen adostasuna euki beharko dabena, baina, beste barik, geugaz jesarri. Nik, behintzat, urte bi daroadaz instituzino honetan, eta ezinezkoa izan da. Behin baino gehiagotan egin dogu, eta zuk badakizu, eskabide hori: “mesedez, jesarri eta berba egin daigun, zehaztu

ahal izateko". Gero, zeuok erabagiko dozue, agirikoa danez, zuon ustetan zer dan egokiena, errealidade parlamentarioa errespetauko dogulako.

Beste barik, batzorde guztietan behin eta barriro esan dogun berbera: oraindokarren prest gagoz jesarteko, zuokaz berba egiteko eta herritarren eskaera guztiak eta Bizkaiko errepideetako errealidadea kontuan hartzen dauzan urtenbidea eskaintzeko. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Lobato Pascual. Señor Méndez Urigoitia, portavoz del grupo Euskal Herria Bildu, tiene la palabra.

El Sr. **MÉNDEZ URIGOITIA** jaunak: Muchas gracias de nuevo, señora Presidenta.

EH Bildukook barriro dinogu, barriro dinogu finantzaketa-sistema integrala sortu beharra dagoala Bizkaiko ahalmen handiko errepideetarako. Gure eretxiz, ezin dogu onartu eskualde batzuk izatea modu desorekatuan eta, aldi berean, bereizkeriaz finantzetan dabezanak Bizkaiko Foru Aldundiak ahalmen handiko errepide horreetan bultzatutako sistemeak sortu dauzan artapen-kostu neurribakoak.

Horrezaz ganera, mobikortasunaren arloan persona guztientzako aukerabardintasunaren alde egiten badogu, uste dot sistema orekatua eta irisgarria bermatu beharko geunkeala eskualdeen artean mobiduteko, eta garraio publikoa be ezin da hortik kanpo geratu. Edesa andrea, Jerónimo jauna, honako hauxe euki dozue berbabide: prisak, azkartasuna, berehalakotasuna, jakina, larrialdi klimatikoa, hau da, Urkullu jaunak, Urkullu lehendakariak, 2019an deklarau ebana. Uste dogu agirikoa dala giza aztarna ekologikoa gitxitu behar dana. Uste dogu oso denpora gitxian murriztu behar dogula erregai fosilen kontsumoa eta isuri-iturri nagusietakoa dana, ibilgailu pribaduak, alegia. Horregaitik, bidesarien helburua be izan behar da erregai fosilen kontsumo hori gitxitzea eta ibilgailu pribaduen erabilerea murriztea eta arautzea. Gure ustetan, tresna hori be esportau behar da. Horrezaz ganera, uste dogu preminazkoa be badala lehenbailehen egitea, eskualdeen arteko bereizkeria desagertu daiten. Espainiako gobernu desbardinen artean euki dozuezan ika-miketean, transferentzietan, luzapenetan sartu barik, egia da Bizkaiko Foru Aldundiak zorra daukana 2017. urtetik, eta Orozkotik Bilboraino doan tarte gaur egun ahalmen handiko errepideetan Aldundi honek diruz laguntzen ez dauan tarte bakarra da.

Estaduko bidesariei buruz be berba egiten badogu, adibideak jarri dira hemen: Aragoi, Errioxa. Oraintsu, Espainiako Gobernuak plana aurkeztu dau Bruselan, autopistetako eta autobideetako bidesaria kobretako eta artapen-eredua bideragarri egiteko. Erabilereagaitiko ordainketa-sistemea da proponidu dauana, eta uste dogu azken urteotan gai honetan egin dan lehenengo proposamen zehatza dala. Halanda ze, uste dogu kontuan hartu beharko litzatekeala edo ez, ez dakigu. Izan be, Jerónimo jauna, zuk azaldu dozuna, bidesaria ordaintzeko aukerei edo moduei buruz berba egin dozunean edo ez, diruz lagundutako erabilerea aitatu dozu zuk. Hain zuzen be, ez dozu esan, baina itzalpeko bidesaria iradoki dozu. Horixe bera da eskatzen deusugun eztabaidea, horixe bera da EH Bilduk bere zuzenketan proponidu dauan bigarren puntua. Horixe bera da edegi gura dogun eztabaidea eta Bizkaian edegi egin behar dala uste doguna.

Horrezaz ganera, Pradales jaunak martiaren 24an aurkeztu euskuzan zeregin horreek guztiak eskatu beharko dira. Tira, ba, egin daitezala, azkartu daitezala, gelditu ez daitezala. Ganera, uste dogu Batzorde Teknikoak bere lana amaitu behar dauala eta bere konpromisoak bete behar dauzala lehenbailehen. Uste dogu hori, hori agirikoa dala. Era berean,

egia da faktore teknikoei aurre egin behar jakena, ez dogu ukatzen. Berton, datuen babesa, iruzurraren kontrola, bateragarritasun teknologikoa euki genduzan berbabide, oker ez banago. Dana dala, uste dogu ezin dogula hori egon badagozan atzerapenen atxakia moduan erabili. Uste dogu alkarlan-hitzarmena zarratzeko sasoi dala, uste dogu lehenbailehen egiten ahalegindu behar garala, uste dogu AVASaren eta Aldundiaren arteko hitzarmena ahal danik eta lasterren egin behar dala.

Era berean, ibilgailu astunei buruz berba egin gura neuke. Izan be, gaur aurkeztu dogun beste puntua zan. Jerónimo jauna, uste dot ulertu egin deusudala esan dozula beharbada ez daukala zerikusi handirik jatorrizko testuagaz. Guk erabat kontrakoa uste dogu. Uste dogu alternatibea emon behar jakela ibilgailu astun horreei, ibilgailu astunek autopistetan bertan daukiezan ondorioakaitik eta, horrezaz ganera, Bizkaiko eskualdeko errepideetan sorrarazoten deuskuenagaitik. Adibidez, berton Aragoiri buruz berba egin danean, Errioxari buruz berba egin danean, egia da Estaduko Administrazio Orokorrak, Errioxako Gobernuak eta Autopista Vasco-Aragonesak ibilgailuentzako, ibilgailu astun zehatz batzuentzako hobari-neurriak daukiezana, A-68 autopistatik igaroten diranean. Holan, bada, ia-ia %75 laguntzen da diruz, Zanbrana-Tutera tarteko ibilbide guztietan. Errioxa dala? Dana dala, Araba eta Nafarroa artean pasetan da, halanbeharrez, eta, edozelan be, hitzarmen hori daukie, diruz lagunduta egon daiten. Beste adibide bat daukagu hemen, hur-hur, hau da, Ziorraga eta Altube artean 2. kategoriako ibilgailu astunentzako doako igarobidea dago, udalerrietatik igaro ez daitezan.

Horixe bera da eskatzen doguna: horrelako neurriak hartzea, udalerrri batzuetan, Arrigorriagan, Ugaon, Arrankudiagan edo Arakaldon, berbarako, saihebidetaren alternatiba bat euki daien. Horrezaz ganera, Arrigorriaga eta Laudio artean ia-ia aurreratzeko tarte bakar bat be ez dagoala kontuan hartuta, uste dogu Bizkaiko udalerrri horreei be emon behar deutsegula urtenbidea, eta uste dogu mobikortasun jasagarria euki behar dabela euren herriguneetan. Nada más. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Méndez Urigoitia. Señor Jerónimo Moreno, portavoz del grupo Socialistas Vascos, tiene la palabra.

El Sr. **JERÓNIMO MORENO** jaunak: Eskerrik asko. Egun on barriro be.

Berba egin dauan azkenengotik hasiko naz. Méndez jauna, gauza batzuetan ados nago, zer esanik ez, eta badinot badinozulako preminea dagoala AP-68ko bidesari honen gaian. Hain zuzen be, egon badago, eta, orain, horretan gabilz lanean. Uste dot diputaduak ondo baino hobeto azaldu euskula zeozelan egiazkoa dala nahikoa laster egingo dana. Badinozu urtebete dala, hilebete batzuk dira, 15 hilebete dira. Tira, ba, 15 urte baino gitxiago dira. Esan egin gura dot proponidu dana eta Bizkaiko Foru Aldundiko hobari-sisteman sartzeko ebazpenaren betearazpena egiten dagozala. Hori dala eta, zure proposamenetik hasi naz, guk erakutsi egin gura dogulako Alderdi Sozialistek hori beteteko borondatea daukala, AP-68ak, gure lurraldea zehartzen dauan AP-68ko tarteak, foru-arloko titulartasun eta kudeaketako ganerako azpiegiturek lako formulea euki daian. Banaketa hori egitea be! “Bardin deutso kudeaketea dan, kudeaketea ez dan, jaubetzea dan”. Hara, Fernández andrea, ez deutso bardin, baina. Izan be, ez da gauza bera, zergen bidez aukeratu behar dalako, aukeratu egin behar dalako eta bizkaitarren zergen bidez aukeratu daitekealako, zeuk aitatu dozuzan beste lurralde batzuetan zergen bidez aukeratu daben moduan, zerga horreek gai batean edo beste batean gastauko diran.

Hori dala eta, guk formula bat aukeratu dogu hemen, bidesari sozialarena, alegia, gehien darabilenak gehiago ordaindu daian eta erabat doakoa izan ez daiten. Izan be, ez dago doakotasun osorik, demagogia da, guzurra da, zergen bidez ordaintzen da. Zuk, ganera,

askotan Ganbera honetara zergen murrizketea dakarskuzula kontuan hartuta, zergak jatsi behar dirala eta zergak jatsi behar dirala, hau da, zergak jatea baina prestazino sozial gehiago eukitea; AP-68aren doakotasuna, besteak beste. Zelan egiten da hori? Ez dakit. 2 gehi 2 3 dirala dinoen batuketa horreek ikusi beharko! Izan be, zergak jasten badira baina gastu soziala igoten bada, nonondik urten behar dau, nonondik urten behar dau.

Zuk dinostazunez, parkamen eske etorri beharko nintzateke bertora. Ez dakidana da zergaitik ez zatozan zu hona azalpenak emoten, bost urtean autopistea birritan asfaltetearren kudeaketa hori beste 15 urtez zergaitik luzatu zan azaltzen, zergaitik eta 15 urteko luzapen horren atzean zer egoan azaltzen. Hain zuzen be, horixe bera da niri buruko min handiena emoten deustana. Borrellen adibidea jarri deustazue. Esan egin gura dot Borrell izan zala Bilbao Ría 2000ko inguruabar haren egilea, ezin onuragarriagoa izan dala lurralde honentzat eta gauza zoragarriak egin dauzala. Hori dala eta, hori oso harira ez datorrela uste dot.

Podemoseko Lobato jaunak esan dauanari jagokonez, berak bere agerraldian bertan esan dau proposamenak zehaztu barik egozala, ikusten ebazala, baekarzala, baina ez egozala lar zehaztuta. Beharbada, neure agerraldian doakotasuna baino ez dot euki berbabide, baina, edozelan be, ez neutsun esan gura doakotasuna, doakotasuna zala edo dirulaguntzea. Halanda be, eskatu egin gura neutsun, uste dot zentzun horretan zeozelako adostasuna daukagula zure taldeagaz. Ezin da berbera eta kontrakoa izan. Ezinezkoa da errepede honeen erabilerea finantzatea eta, aldi berean, errepedeoi zergak ezartea, ahal danik eta gitxien erabili daitezkan, eta beste garraio bide batzuk erabiltea.

Edozelan be, egia da, eta, amaitzeko, azkenik, Bilduko jaunak lurralde-mailan, maila sektorialean eta ingurumen-arloan behar dogun eztabaideari buruz egiten eban hausnarketea aitatu gura neban. Izan be, alde horretatik, uste dot tribuna honetan behin baino gehiagotan egon garala ados Bizkaiko Foru Aldundiak daukan eredia, onartu barri doguna, gauzatu egin behar dala esaten danean. Lehenbailehen egin behar dogu, hori egia da, baina, horrezaz ganera, uste dot eredu zabaltxuagoa euki beharko geunkeala eta gaintitu be egin beharko geunkeala, ez nabil eskumenei buruz berbetan, baina, edozelan be, ikuspegi handixeagoa, ikuspen, epe luzeagorako ikuspegia euki beharko geunkeala, lurraldeko, Euskadiko, Espainiako eta Europako eremua be kontuan hartuta. Besterik ez. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Jerónimo Moreno. Para concluir el debate, señora Edesa Gómez, portavoz del grupo Nacionalistas Vascos, tiene la palabra.

La Sra. **EDESA GÓMEZ** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta.

Ezelako zalantza barik, Fernández andrea, zure jarrera edo zure alderdiarena bitxia da, zeozelan esatearrean. Estatu Espainoleko Gobernuan egoan zure alderdia izan zan oztopo gehien jarri ebazana, bizkaitarrak dirulaguntzetako onuradunak izan eitezkan, zure alderdia izan zalako emokidea aldebakartasunez galdu ebana. Gaur egun, ostera, defendatzaile handiena zara, kaltetuena, ernegatuena be bai. Tira, uste dot kontraesan horretan jausten zarala seguruenik errudun edo zorretan sentiduten zaralako bizkaitarrakaz. Honelako mozinoaren bidez ordaina hartu gura izatea be!

Horrezaz ganera, bestetik, argi dago zuk idazten dozun mozinoak asmo argia daukana eta asmo hori onartua ez izatea dana. Zergaitik? Joan dan Osoko Batzarrean diputaduak emon eutsuzan azalpenak entzundakoan, berehalakotasuna eskatzen dozulako. Badakizu ezinezkoa dana, Fernández andrea, eta, jakina, jakin be bazen kian ezetz esango geuntsuna. Era berean, jakin bazen kian behar besteko aukerea eukiko zenduana zera esateko: “nire alderdia, Aldundia, tira, ba, ez dozue bizkaitarren onurarako jokatu gura, etab., etab.” Tira,

nik neuk estrategia txarra ez dala autortzen dot, baina, Fernández andrea, errealidadea beste bat da, eta errua, zeure errua eta zeure alderdiarena zeure gain hartzeko garaia da, zeozelan esatearren.

Lobato jauna, nik ez dot esan zuok propondutuen dozuenak, zuzenketeak gure eztabaidagaiagaz ezelako zerikusirik ez daukanik, baina uste dot AP-68an nahiz beste edozein autobidetan ezarri daitekeala. Diputaduari eskatu deusazu jesarri gaitetzala, berba egin daigula. Ez dakit badakizun joan dan legealdian jesarri eta berba egin gendua, luzaroan. Era berean, lan-taldea be sortu zan, eta, lan-talde horretatik, agiriak urten eban. Gidalerroen agiri horrek, hain zuzen be, Aldundi honen ibilbide-orria zehazten dau, eta, Aldundiaren ekintza-ibilbide hori zehazten dauan gidalerroen agiri horretan, garraio publikoa bultzatuko dala azaltzen da. Horrezaz ganera, azaldu egiten da ibilgailu pribaduaren aldaketa modala egingo dala mobikortasun jasangarriagorantz. Agiri horretan agertzen da, baina, dana dala, nasai, jesarri egingo garalako, barriro jesarriko garalako.

Méndez jauna, Lobato jaunari dinotsadanez be, LPSn be kontuan hartu diran beste aldagai batzuk eskaintzen dauzan zuzenketea be sartu dozu. Era berean, jesarri egingo gara, jesarri egingo gara eta horri buruz berba egingo dogu. N-625ari jagokonez, ez dago, Bizkaian ez dago BI-625ik.

Amaitzeko, eta, hausnarketa moduan, uste dot garrantzitsua dala argi geratzea. AP-68a autopista garrantzitsua, oso garrantzitsua da Bizkaiarentzat. Halanda ze, Aldundia titularra danez eta etorkizunean kudeatzailea izango danez, lurraldeko ahalmen handiko sarea modu globalean kudeatu ahal izango da, eta, halanda ze, horri esker, zerbitzu integrala eta eraginkorragoa emongo jake erabiltzaileei. Aldi berean, aukera barriak edegiko dira, lurraldeko konektibotasuna eta lehiakortasuna hobetzeko.

Argi geratu danez, AP-68a Bizkaiko gaur eguneko tarifa-sisteman sartzea da Aldundiaren borondatea. Lana da, lan gatxa da, baina aukera-bardintasuna ekarriko dau bizkaitar guztientzat, eta, hori egiteko, mahai ganean dagozan era bateko eta besteko faktoreak konpondu behar dira ezinbestean. Aldundi honek Batzar Nagusion agindupean lan egiten dau, gai honetan nahiz Errepideen Lurralde Plan Sektorialean, eta gure taldeak 2020ko zezeileko akordu hori be berresten dau. Halanda ze, gure botoa, eta barriro dinotsuet, ezezkoa izango da. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Edesa Gómez. Una vez concluido el debate, someteremos a votación la moción. Si no le he entendido mal a la proponente de la iniciativa, no acepta las enmiendas. Ez dozuz zuzenketak onartzen, Fernández andrea?

La Sra. **FERNÁNDEZ ANGULO** andreak: Bai, baimena emoten badeustazu, mahaiburu andrea, lehenengo agerraldian adierazo dot Elkarrekin Bizkaia taldearen zuzenketak onartzen doguzala eta abstenidu egingo garala, oraingoz ezin dirala EH Bildu taldearen zuzenketak sartu. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Eskerrik asko, Fernández andrea, argitzearren. Por tanto, someteremos a votación la moción original, incluyendo la enmienda presentada por parte del grupo Podemos. Por tanto, dicho lo cual, la moción, incluyendo la enmienda de Podemos Bizkaia. ¿Votos a favor? ¿Votos en contra? No hay abstenciones. Por tanto, el resultado ha sido el siguiente:

En total, se han emitido 50 votos. Ha habido 18 votos a favor, 32 votos en contra y ninguna abstención. Por tanto, no se ha aprobado la moción.

El punto cuarto del Orden del Día se refiere a la Norma Foral de Urgencia.

4.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Decreto foral norma de urgencia ([R.E.11/E/2021/0001338](#))

Autor: Diputación Foral de Bizkaia

Asunto: Decreto Foral Normativo 4/2021, de 23 de marzo, de medidas extraordinarias adicionales relacionadas con la COVID-19 y de apoyo a la reanudación de la actividad económica.

Documento Principal: ([R.E.11/E/2021/0001338](#))

Boletines: [Admisión a trámite](#) (8A)

Expediente: ([11/A/04/0002229](#))

4.- Honako idatzi hau aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Presako foru arau-dekretua ([11/E/2021/0001338SE](#))

Egilea: Bizkaiko Foru Aldundia

Gaia: 4/2021 Foru Dekretu Arauemailea, martxoaren 23koa, COVID-19ari loturik dauden eta jarduera ekonomikoari berriro ekiten laguntzeko diren aparteko neurri osagarri buruzkoa

Dokumentu nagusia: ([11/E/2021/0001338SE](#))

Aldizkariak: [Izapidetzeko onartzea](#) (8A)

Espedienteak: ([11/A/04/0002229](#))

En este caso, es el artículo 143 el que determina el procedimiento. Por lo tanto, Sr. Iruarrizaga Artaraz como representante de la Diputación, tiene la palabra.

El Sr. **IRUARRIZAGA ARTARAZ** jaunak: Muchas gracias, señora Presidenta. Buenos días a todos/as. Egun on danoi. Jasaten gagozan pandemiaren igorpenak bere horretan segiduten dauala kontuan hartuta eta abian dagoan txertaketa-prozesuak errealidade sanitarioa eta, horren ondorioz, ekonomikoa sortuko dauan itxaropenaz, Bizkaiko Aldundiarentzat lehentasunezkoa da zergadun zigortuenak babesten segidutea eta, horretarako, jarduera ekonomikoa bultzatzea eta Covid-19aren ondorioz hartutako neurri murriztaileek gehien kaltetutako sektoreak bizibarritzea.

Holan, 4 artikulua osogai daukazan Foru Dekretu Arauemoile honetan, egoerearen araberako ezohiko neurri bi zehazten dira, 2020ko urtarrilean kasuan kasuko foru-dekretu arauemoileen bidez onartu ziranen haritik, eta honako hauxe da neurri bi horreen funtsezko helburua: pandemiak gehien kaltetu dauzan sektore ekonomikoei laguntzea eta jarduera ekonomikoa barrero abian jarteko prozesua bultzatzea.

1. artikuluari jagokonez, 2020. urteko 1. 10. eta 11. foru-dekretu arauemoileen bidez 2020ko ekitaldiko ordainketa zatituetarako xedatu zan lez, 2021eko lehenengo hiruhileko bietan Persona Fisikoen Errentearen ganeko Zergea autolikidetak eta konturako ordainketa zatitua egiteko betebeharretik salbuetsita egongo dira jarduera ekonomikoak egiten dabezan persona fisikoak.

2. artikuluan, jokoaren ganeko zergeari jagokonez ezarri behar izango dan neurria zehazten da, Foru Dekretu Arauemoile honen bidez urteko kuota finkoa egun naturalen arabera hainbanatuko dala xedatzen dogulako.

Bestetik, 3. artikuluan, zerga-biztugarria zehazten da, pandemiaren ondorioz nabarmen kaltetutako jarduerak euki daben maizterrei laguntzeko. Horretarako,

bultzagarria zehaztu da, jardueraren garatzen dabeneko lokalen alogatzaileek alogeretako errenten jatsierak negoziatu daitezkeen. Ondorio horretarako, persona fisiko edo juridikoak diran alogatzaileentzako zerga-biztugarria zehazten da, betebe, alkarregazko adostasunez eta 2020ko martiaren 14tik aurrera 2021. urtean sortutako hilekoei jagoken aloger-errentea jasten badabe.

Hona hemen biztugarri hori eskuratzeko funtsezkoak diran eskakizunak: alogerako kontratua Uri Errentamentuei buruzko 20/94 Legearen 3. artikuluan aurreikusitakoetako izatea eta aloger-errentan borondatez adostutako jatsiereari gitxienez 3 hilebetez eustea 2021. urtean, osteko konpentsazio edo berreskurapen barik. Era berean, azpimarratu egin beharra dago zehaztutako neurriak alogeraren helburu diran higituezinetan egiten diran jardueren arloa zedarrizten ez badau be, horren ondorioz oro har ezarri behar dala kontuan hartuta, neurri horrek ahal dan heinean arindu gura dauzala Covid-19agaitiko pandemiak sektore zehatz batzuetako diru-sarreretan sorrarazo dauzan eragin txarrak. Hau da, zehatz-mehatz, honako honeetxek daukaguz berbabide: ostalaritza eta jatetxe-arloa, merkataritza txikizkaria, turismoa, ekitaldiak, jardueraren kultural zein artistikoak eta, batez be, arte eszenikoak nahiz musikeagaz zerikusia daukienak.

Zerga-biztugarri horren eukiari jagokonez, zergei begira kengarria dan gastutzat hartzen da, Soziedadeen ganeko Zergako eta gure lurraldean daukien establezimendu iraunkorraren bitartekaritzaeren bidez lan egiten dabene Ez Egoiliarren Errentearen ganeko Zergako zergadunentzako zerga-oinarria zehazteko orduan.

Modu berean, alogatzaileak Persona Fisikoen Errentearen ganeko Zergako zergadunak diranean, alogera jardueraren ekonomikotzat jotene bada, gastu kengarrizat hartuko da, jardueraren horretako etekin garbia zehaztu ahal izateko. Ganera, alogera kapital higituezinarren, lokalen alogeraren edo kapital higigarriaren etekina bada, negozioko alogera bada, etekin garbia zehazteko orduan gastu kengarrizat hartuko da aloger-errentako jatsierearen zenbatekoa, eta gastuen ezarpenak ezin izango dau etekin garbi negatiborik sortu, zergeari buruzko arau orokorren arabera. Aloger-errentako jatsierearen zenbatekoan emon daitekean soberakinak, gastu kengarri moduan ezarri ezin bada, behar besteko eskubidea emongo dau, kuota osoan soberakin horren %15eko kenkaria ezarteko. Kuota oso nahikorik ez egoteagaitik kentzen ez diran zenbatekoak 2022. urteko zergaldiko autorpenetan ezarri ahal izango dira.

Bestetik, 4. artikuluan, Covidak modu berezian kaltetutako jardueraren ekonomikoen garapena barriro abian jarteko asmotan eta, birusa hedatu ez daitene, osasun-agintariek bultzatutako baldintza barrietara egokitzeko asmotan, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako lehenengo zergaldietan sortutako gastuen %15eko ezohiko kenkaria ezartene da kuotan. Gastu horreek honako honexegaz daukie zerikusia: jardueraren ekonomikoak kanal alternatiboen erabilerara egokitzea, ondasunak merkaturatzeko edo zerbitzuak, jardueraren emoteko; instalazioak egokitzea, jente-kopuruaren kontrola eta erreserben kudeaketea errazteko edo unean-unean Covidaren igorpena ekiditeko beharrezkoak diran prebentzio-neurriak bermatzeko; eta instalazioak edo zerbitzugintzarako sistemak, aurrez aurrekoak edo urrunekoak, barritzea eta eguneratzea.

Persona Fisikoen Errentearen ganeko Zergako, Soziedadeen ganeko Zergako eta establezimendu iraunkorraren bitartekaritzaeren bidez lan egiten dabene Ez Egoiliarren Errentearen ganeko Zergako zergadunak izango dira kenkari horretako onuradunak, Covidaren hedapenagaitiko osasun-altertearen ondorioz sortutako egoerearen aurrean hartutako osasun-neurriak beteteko asmotan jardueraren eten behar izan dabenean edo, eten ez badabe, euren jardueraren edo euren etekina nabarmen murriztu danean. Zehaztu egin behar da kenkari hori bateratuezina izango dala inbersino edo gastu berberakaz lotutako beste edozein zerga-onuragaz.

Azkenik, xedapen gehigarri bakarraren bidez, 125/2019 Foru Dekretuaren bidez onartuta dagoan diru-bilketari buruzko araudi barriko arautegia ezarteagaitiko bilketa-

prozedurearen garapena egokitzen da, eta, horretarako, teknikoak baino ez diran era bateko eta besteko egokitzapenak sartzan dira araudi horren 4. xedapen igarokorrean.

Bizkaiko Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 8. artikulua 2. idatzatian zehaztutako aurreikuspenak eta Covidaren agerraldiagaitik sortutako ezohiko egoera ahal dan neurrian arintzeko asmotan podere publikoek berehalako jarduketea garatzeko daukiezan preminak kontuan hartuta, Foru Dekretu Arauemoilearen bidea erabili beharra dago. Holan, bertan zehaztutako neurriek berehalako ondorioak eukiko dabez, eta, une honetan egiten gagozan lez, euren barri emongo jake Batzar Nagusioi, ostean berretsi daiezan, euren eretxiz egokia izan ezkeru. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Iruarrizaga Artaraz. Vamos a comenzar con el turno de réplica. Para ello, señora Fernández Angulo, portavoz del Grupo Mixto-Partido Popular Bizkaia, tiene la palabra.

La Sra. **FERNÁNDEZ ANGULO** andreak: Eskerrik asko, mahaiburu andrea. Lehenengo agerraldi-txanda honetan, faktore biren inguruko bereizkuntzea egin gura neuke: batetik, formeari jagokonez; eta, bestetik, proponiduten dan Prisazko Foru Dekretu Arauemoilearen eukiari jagokonez.

Joan dan martitik, igazko martitik, osasun-krisian gagoz, eta zerga-arloko erabagiak hartzen gabilz. Uste dot nire taldeak errespetu handi-handiz jokatu dauala, baita oposizinoko generako taldeek be bai, nik uste. Errespetau baino ulertu egin dogu Prisazko Foru Dekretu Arauemoilea erabili izana. Dana dala, uste dot gaur egun inork ezin dauala preminatasuna justifikau, gaur egun daukagun egoera erabat aurreikusgarria zalako orain dala hilebete bi, hilebete bi barru eukiko doguna une honetan oso aurreikusgarria dan lez. Halanda ze, zeri buruz nabil berbetan? Izapidetzeko formeari buruz nabil berbetan. Estadu demokratikoak gobernu demokratikoak ez diranetatik edo defizit demokratikoak daukizanetatik bereizten dauzana ez da legeen onarpena edo arauen onarpena. Hori estadu demokratikoek nahiz ez diranek egiten dabe. Gobernu demokratikoak defizit demokratikoak daukizanetatik bereizten dauzana prozedurearen bermea da. Berton, hain zuzen be, prisazko prozedura erabilten da, ez, larregi erabilten da, argi eta garbi dagoalako partaidetzarako eskubidea kentzen jakuna, baina ez Amaya Fernándezi, ez Partido Popular taldeari, nire taldeak eta oposizinoko generako taldeok ordezten doguzan herritarrei, bizkaitarrei baino. Izan be, hau hutsaren hurrengo da, eta, beste barik, geure eretxia adierazoten gatoz bertora, baina ezelako gaitasun barik, nahiz eta Batzar Nagusiek daukizan eskumenak arautzen dauzan Foru Arauak parte hartzeko, zuzenketak aurkezteko eta proposamenak egiteko eskubidea autortzen deuskun. Hori behin eta barru urratzen da, eta ohartarazpen moduan dinot, inoiz hain serioa ez dan doinuan aitatu dogulako eta, antza danez, prozedura hori gura beste aldiz erabili ahal izango dauala uste daualako Foru Gobernuak. Nire eretxiz, ostera, gai horri buruzko hausnarketea egin behar dau.

Proponiduten dan Prisazko Foru Dekretu Arauemoilearen eukian sartuta, une honetan egin beharreko galderea honako hauze dala uste dot: nahikoak ete dira Prisazko Foru Dekretu Arauemoilearen bidez onartzen dagozan neurri horreek guztiak? Benetan erantzuten deutso forutasunari esker daukagun ahalmen guztia hedatzeko geunkan gaitasunari? Hara, benetan esango deusut nik. Ezetz uste dot. Ez dinot desegokiak diranik. Ni neu ados egon naiteke, hartu dozuezan beste neurri batzuek ados egon garan lez, baina uste dot gai honetan ausartagoak izan behar garala. Garatzen doan txertaketa-prozesu gutiziatua aitatu dau Ogasuneko ahaldun nagusiak. Tira, nik neuk, egia esan, egunero harriduraz ikusten dot, beharbada nireak min emoten deustalako, neure lurak min emoten deustalako, baina harriduraz ikusten dot zergaitik gagozan beti taulearen erditik beherantz, agirikoa danez funtsezkoa dana autortzen dodan zeozer danean. Funtsezkoa da, horren ondorioz murriztapen gitxiago

dagozalako eta, horren ondorioz, aldi berean, ekonomia barriro suspertzeko gaitasun handiagoa dagoalako; eta, halanda ze, zentzun horretan, administrazioarentzako berarentzako diru-sarrera handiagoak be bai.

Dekretu hau eztabaidatu, tira, baliozkotu egingo da. Hemen, formalismo hutsa egiten gabilz. Uste dot horren jakitun garala danok. Nik neuk aurreratu egiten dot arau-proiektu moduan izapidetzeko eskatuko dodala, beste batzuetan egin dodan lez. Halanda be, proponiduten gagozan unean, ostalaritzako sektorearen erdia baino gehiago geldituta dago une honetan Bizkaian, baita horren inguruan mobiduten diran sektore guztiak be. Halanda ze, berton proponiduten diran gauza batzuk asmo handiagokoak izan beharko litzatekeza uste dot nik. Esan baino ezin dot egin. Egia esan, idatziz proponiduteko aukerea euki beharko neuke, baina ez, baita bozkatzeko eta eztabaidatzeko aukerea be, baina ez daukat hori egiterik, tribuna honetan esan baino ez daukat-eta.

Hori dala eta, bai, aurtengo lehenengo hiruhileko bietan PFEZko konturako diru-sarrera zatitua autolikidetako betebeharraren salbuespena errepiketan da. Tira, ordainketea atzeratzen da, baina ez da euro bakar bat be parkatzen. Hori geure agerraldi guztietan be adierazo dogu.

2. artikuluan, egun naturalen arabera hainbanatzen da. Foru-diputaduak azaldu dau. Jokoaren ganeko zergen ordainketeari jagokonez, emoten dau zentzunezkoa dala guk lan egiten danagaitik ordaindu daitela eskatzea. Ados egon naiteke.

3. artikuluan, lokal komertzialen jaubeentzako biztugarria dago. Tira, jarduera ekonomikoren bat egiten daben guztientzako be izan daiteke, baina nik zera itantzen deusat neure buruari: horren barruan, zergaitik ezin genduan euki zailtasun handiagoak daukiezanentzako ezohiko neurri bat? Zuk zeure agerraldian aitatu dozu, ostalaritzearen sektorea, merkataritzearen sektorea be bai. Zergaitik danentzat bardin? Zergaitik ez dogu bereizkuntza hori egiten, egoerearen eta gaur egun daukagun egoerearen arabera ezin beharrezkoagoa dala kontuan hartuta.

Azkenik, honako hauxe be aitatzen da: maizterragaz alogeraren prezioaren jatsierea ituntzen daben alogatzaileentzako neurriak eta hobekuntzan zein inbersinoan egiten diran gastuen %15eko kenkaria, hau da, jente-kopuruaren kontrolari begira itxurea, zerbitzuak zein instalazioak hobetzen dabezan alternatibak proponiduten laguntzen daben neurrietan, pandemiagaz zerikusia daukien neurrietan. Hona hemen nire galderea: zergaitik %15? Nik neuk ez dinot ondo dagoan ala txarto dagoan. Zergaitik %15 eta ez %20, %25 edo %10? Zergaitik izan behar da ehuneko hori? Zergaitik ezin da ehuneko horri buruz eztabaidatu Ganbera honetan? Uste dot garrantzitsua dala eta, beharbada, interesgarria be izango zala sektoreka bereizi ahal izatea, baina gaur tribunan bakarrik esan daikereguz zeozer da.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Señora Fernández Angulo, vaya terminando.

La Sra. **FERNÁNDEZ ANGULO** andreak: Bai, eskerrik asko, mahaiburu andrea. Halanda ze, badinotsut, ondo dagozala uste dot, egokiak izan daitekezala, baina nahikoak be ez dirala uste dot. Nire eretxiz, bizkaitarren ordezkartzea daukagunoi ezin jaku parte hartzeko eskubidea larregikeriaz kendu. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora Fernández Angulo. Señor Benito Ziluaga, portavoz del grupo Elkarrekin Bizkaia, tiene la palabra.

El Sr. **BENITO ZILUAGA** jaunak: Muchas gracias, señora Presidenta.

Barriri be, Foru Gobernuak Prisazko Foru Dekretu Arauemoilea dakarsku, Covidagaz eta ekonomiaren susperraldiagaz lotutako neurriei buruzkoa. Nahaste-borrastea dan beste dekretu baten azken entregea dala esan daiteke. Termino hori lehenago be erabili dogu, eta zera baino ez dau esan gura: era bateko eta besteko eta, batez be, arabere txarragoa dana, eragin txikiko neurri epelen nahas-mahasa dakarskun dekretua da. Hori ez eze, pandemiaren hasieratik ateraten joan zarien antzeko foru-dekretu arauemoileen nahaste-borrastea be kontuan hartzen badogu, tira, ba, zuok plana dala dinozuen Frankenstein munstroaren antzeko zeozer eratzen dogu. Holantxe gagoz. Kalean, jentea benetako malabarak egiten dabil bere enpresea edo saltegia zabalik eukiteko edo hilebetearen amaierara ailegetako, baita bizileku daukan etxea ordaintzen be, eta, bien bitartean, zuok jentea zorutzen dozue zerga-neurri zekenen menu astunaren bidez, egia esan.

Zer lortzen dozue? Hori autortu egiten deusuet, Foru Gobernua gauzak egiten dabilela pentsarazotea lortzen dozuelako. Halanda be, gauzak egiten zabilze, baina ez dakizue oso ondo nondik jo eta zenbat gastau. Gure taldearentzat, horixe bera da funtsezko arazoa, hau da, ganerakook gastu publikoa inbersinotzat jotzen dogu gaur egunekoa lako krisi ekonomikoan, baina zuok, barriz, gastutzat hartzen dozue Foru Gobernutik: zenbat eta txikiagoa orduan eta hobea dan gastua, alegia.

Artikuluei erreparau ezkerro, lehenengo hiruhileko bietan PFEZaren konturako ordainketa zatitua ordaintzeko eta autolikidetako betebeharretik salbuesten dau 1. artikulua. Horren bidez, hain zuzen be, esan dodanez, jarraipena emoten deutsezue aurrerako foru-dekretu arauemoileetan onartutako beste gai batzuei. Bere garaian esan genduan bez, eragin txikiko neurria da, diruzaintzako gaietan izan ezean, pandemiagaitik negozio batek irabazirik edo diru-sarrerarik ez badauka, ez daualako eukiko PFEZa zertan ordaindurik, agirikoa danez.

4. artikuluan, antzeko zeozer jazoten da. Kuotan jarduera ekonomikoa egokitzeagaitik eukitako gastuen %15eko kenkaria ezartea proponiduten dozue zuok. Hemen, on line salmentarako sistemen, jente-kopuruaren, lokaletako manparen... ezarpenagaz zerikusia daukala ulertzen dogu. Barriri be, oraindokarren kenkariaren helburu izan daitekean kuotaren bat eukiteko suertea daukan nonorentzako neurria da. Euki ez badaukazu, oster, oso-osorik jango dozu egokitzapen horreen gastua. Horrezaz ganera, neurri honen zekenkeria gitxi izango balitz lez, bateratuezinak ei dira Batuz sistema ezarteko kenkariakaz. Nik itandu egiten dot, eta jakinguraz, ganera, zergaitik ete dan bateratuezina, zergaitik aukeratu ete behar dauan persona batek, enpresari batek, autonomo batek, zergaitik aukeratu behar dauan bata ala bestea.

3. artikuluan, zerga-neurria ateraten dozue, jaubeek jarduera ekonomikoetako alogeren prezioen jatsierak negoziu daiezan. Hain zuzen be, zergei begira kengarria dan gastutzat jotzen dauz gitxienez 3 hilebetez indarrean dagozan borondatezko errenta-jatsierak, betibe, ostean berreskuratzeko eskatzen ez bada, ulergarria danez. 35/2020 Errege Lege Dekretuaren atzetik doan neurria da, zeozelan esatearren, baina 3 hilebete geroago heldu da, oster; eta, Errege Lege Dekretuan, behintzat, gai interesgarriagoa xedatzen zan, betebeharra inponiduten zalako kasu batzuetan, maizterrak gogokoen eukan aukerea onartu behar eben eukitzaile handientzat, hain zuzen be. Egia da Aldundiak egitate zehatz honen inguruko eskumenik ez daukana, baina harago doa, zerga-bizugarriak ez eze, betebeharrak be ezartean.

Edozelan be, eta nik Gobernuko bazkide biei, Euzko Alderdi Jeltzaleari eta Alderdi Sozialisteari, bota gura deusedan idea da, bizugarri klasistak dira, pandemia honen ondorioak zuzenean jasaten dabezan enpresarien edo autonomoen euren alde barik negoziotako lokalen jaubeen eta alogatzaileen alde jokutzen dabelako. Izan be, Bizkaiko zerga-sistema osoak lokaletako errentak ateraten dabezan behargin autonomoak edo enpresari txikiak baino gehiago mimetea eta jagotea dauka helburu. Ea behingoan ulertzen dogun higituezin batetik

errentak lortzeko eskubidearen ganetik, etxebizitzarako eskubidea be badagoala edo alogerak negozio bat edo enpresa bideragarri bat ez suntsitzea be bai. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Benito Ziluaga. Señor Ortiz Zaballa, portavoz del grupo Socialistas Vascos, tiene la palabra.

El Sr. **ORTIZ ZABALLA** jaunak: Muchas gracias, señora Presidenta. Buenos días a todos/as.

Covid-19agaz eta jarduera ekonomikoa barriro abian jarten laguntzeko prozesuagaz lotutako ezohiko neurri gehigarriei buruzko martiaren 23ko 4/2021 Foru Dekretu Arauemoile hau daukagu. Lehenengo eta behin, euskal sozialistok esan egin gura dogu baiezko botoa emongo deusagula dekretu hau baliozkotzeko prozesuari, koherentziagaitik, erantzunbeharragaitik eta, batez be, benetan uste dogulako osogai daukazan neurriek pandemia honen hasieratik egoera txarragoan dagozan personei eta enpresei lagunduko deutseela. Barriro dinot, pandemia honen hasieratik egoera txarragoan dagozan personei eta enpresei laguntzeko.

Dekretu honen bidez onartzen diran neurri honeek ez dira neurri isolatuak, 2020ko martian pandemia hasi zanetik Bizkaiko Aldundiak abian jarri dauzan neurri guztien jarraipena eta osogarri diralako. Epealdi honetan, Bizkaiko Aldundiak preminazko hainbat eta hainbat neurri hartu dauz, aurrekari bako osasun-krisi honen eragina dekretu zehatz batzuen bitartez arintzeko. Honako honeetxek dira, labor-labor esanda.

2020ko martiaren 17an, 1/2020 Foru Dekretu Arauemoilea onartu zan; eta, horren osogarri, Zerga-arloko Ezohiko Neurriei buruzko apirilaren 28ko 3/2020 Foru Dekretu Arauemoilea. 2020ko maiatzaren 5ean, 4/2020 Dekretu Arauemoilea onartu zan, jardurea geldituta egoanean. Bertan, ganera, barriak, barriro dinot, preminazko neurri barriak hartu ziran, Bizkaia Aurrera! Planaren bidez jardurea bizteko. Era berean, 5/2020 Dekretua be onartu zan, eta, bertan, BEZerako nahiz zerga berezietarako prisazko neurriak hartu ziran, Covid-19ari aurre egiteko.

2020ko maiatzaren 26an, Covid-19ari aurre egiteko asmoz BEZean ezarteko neurri osogarriei buruzko 6/2020 Dekretua onartu zan. 2020ko bagilaren 16an, 7/2020 Dekretua onartu zan, Sánchez presidenteak dekretutako alarma-egoerea amaitu ostean. Dekretu horretan, honako honeetxetarako doikuntza-neurriak zehazten dira: Soziedadeen ganeko Zergea, Persona Fisikoen Errentearen ganeko Zergea, Oinordetzen eta Dohaintzen ganeko Zergea eta Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentauen ganeko Zergea. Hori guztia Covid-19agaz dago lotuta, esan dodanez.

2020ko urriaren 6an, 10/2020 Foru Dekretua onartu zan, pandemiak gure ekonomiako hainbat sektoretan sortutako ziurbakotasuna eta ezegonkortasuna ahal dan neurrian arintzeko asmotan. Zerga-arloko prisazko neurri gehigarriak dira, eta honako hauxe daukie helburu: Persona Fisikoen Errentearen ganeko Zergea, Soziedadeen ganeko Zergea, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentauen ganeko Zergea, Jokoaren eta Makinen Ustiapenaren ganeko Zergan. Urriaren 25ean, 926/2020 Errege Dekretuaren bidez, alarma-egoerea deklarau zan barriro, egoerearen larritasunaren aurrean. Urriaren 26an, Euskal Autonomia Erkidegoan, lehendakariak 36/2020 Dekretua onartu eban, eta, bertan, neurri zehatzak onartu ziran, birusaren hedapenari aurre egiteko. Neurri horreen ondorioz, ostalaritzeagaz, aisialdiagaz eta jokoagaz zerikusia daukien sektore zehatzak gelditu dira.

2020ko abenduaren 1ean, horrexegaitik onartu zan 11/2020 Foru Dekretu Arauemoilea, eta, bertan, zerga-arloko behar besteko neurriak zehazten dira, krisiak gehien kaltetutako zergadunei laguntzeko. Ganera, 2021ean luzatu edo osotu ziran.

Azkenik, 2021eko martiaren 23an, Jarduera Ekonomikoa Suspertzeko Ezohiko Neurriei buruzko 4/2021 Foru Dekretua, agerraldi honen helburua dana, onartu zan, eta, diputaduak esan dauanez, 4 neurri daukaz osogai. Lehenengoak Persona Fisikoen Errentearen ganeko Zergako ordainketa zatituakaz dauka zerikusia, eta, bertan, 2021eko lehenengo hilebete bietan Persona Fisikoen Errentearen ganeko Zergako konturako ordainketa zatitua egiteko eta autolikidetako betebeharretik salbuesten jake jarduera ekonomikoak egiten dabezan persona fisikoei, 2020. urteko ordainketetarako xedatu zan lez, ganera. Bigarrenak Jokoaren ganeko Zergeagaz dauka zerikusia, eta, bertan, kuotea hainbanatu eta egunero ordaindu ahal izango da. Hirugarrenak pandemia honek modu berezian kaltetu dauzan jardueretarako lokalen alogerei laguntzeko neurriakaz dauka zerikusia. Laugarrenak Covidaren ondorioz sortutako aparteko gastuakaz dauka zerikusia.

Horren guztiorren onuradunak izango dira Persona Fisikoen Errentearen ganeko Zergako, Soziedadeen ganeko Zergako eta Ez Egoiliarren Errentearen ganeko Zergako zergadunak.

Amaitzeko, ikusten dogunez, Dekretu honetako neurriak lehendik egozan beste batzuen osogarri diran 4 neurri dira, eta egoera txarragoan dagozan personei nahiz enpresei laguntzea daukie helburu, inor atzean geratu ez daiten. Azken batean, ikusten dogunez, Aldundia eten barik dabil egoerearen bilakaerearen araberrako neurriak aztertzen, ebaluetan eta ezarten. Halanda ze, euskal sozialistok, neure agerraldiaren hasieran esan dodanez, baiezko botoa emongo deusagu Dekretu hau baliozkotzeko prozesuari. Nada más. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Ortiz Zaballa. Señora Urkaregi Etxepare, portavoz del grupo Euskal Herria Bildu, tiene la palabra.

La Sra. **URKAREGI ETXEPARE** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta. Buenos días a todos/as.

Se trata del octavo Decreto Foral Normativo de Urgencia, donde se regulan las medidas fiscales para hacer frente a la pandemia del Covid-19. Desde el día 17 de marzo de 2020 hasta hoy, en un año, 8 decretos forales normativos de urgencia.

La utilización de esa vía implica que la ciudadanía no puede presentar alegaciones y que los grupos junteros no podemos presentar enmiendas, por lo que, con todo, solo podemos decir que sí o que no.

Es cierto que podemos solicitar que se tramite como Norma Foral, y lo vamos a solicitar, pero esa posibilidad se va a rechazar por parte de los partidos que sustentan al Gobierno Foral, y ahí concluye todo. En esos 8 decretos forales, se han decidido temas importantes, y hoy también se ha comentado que se compone de cuatro medidas. Yo me voy a centrar en una especialmente, pero una de las medidas que se han planteado anteriormente se refiere a la deducción por la reactivación de las actividades económicas. Sí quiero subrayar la armonización imprescindible que sale a colación cuando debatimos aquí en tantas ocasiones sobre los tributos. Aquí, no se habla de armonización, aquí se plantea en Bizkaia una deducción del 15% en la cuota; y, en Araba y Gipuzkoa, del 10%. A decir verdad, no sabemos por qué, no existe ninguna explicación, no podemos debatir, pero no se menciona la armonización. Por

tanto, cuando quieren, pasan de la armonización. De todas maneras, entre esas cuatro medidas, especialmente, sí hay una que es muy grave, que es la deducción por la rebaja del alquiler.

¿Por qué es grave? Todos/as podemos pensar que se trata de una medida destinada a los/as taberneros/as o a los/as comerciantes, pero no, no es así. Estas medidas favorecen muy poco a quienes deben pagar el alquiler, es cierto, pero son muy beneficiosas para quienes cobran el alquiler, cuando debería ser al contrario.

Iruarrizaga jaunak esan dauana esanda be, neurri honen helburua ez dira Covidaren krisiak gehien kaltetu dauzanak. Esta deducción se planteó en un Decreto Real de Madrid, y, como es de nuestra competencia, debemos regular esa deducción aquí, pero se ha regulado de manera muy distinta:

- En el Estado, se diferenciaban dos situaciones: quienes tenían en alquiler muchos locales (más de 10) estaban obligados a rebajar la renta o a conceder una moratoria. En el caso de quienes tenían menos de 10 locales, ahí sí, la rebaja era voluntaria, y se planteaba un incentivo fiscal.

- En el caso de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa, no existe ninguna diferenciación, se plantea un incentivo en todos los casos. Además, si en un año no se puede aplicar el incentivo íntegramente (porque supera la cuota a pagar), se puede aplicar al año siguiente. Se aplicará la deducción a cualquiera, independientemente de que haya un alquiler máximo o no, de si se cobra o no, de que se tengan muchos locales o un solo local en alquiler...

Lokalen alogera jasteko zerga-neurri hau ez da alogera ordaintzen dauanaren mesederako, argi eta garbi dagoalako lokalak alogaduten dabezanen mesederako dana. Izan be, ez dago ezelako mugarik, ez alogerari begira, ez alogaduten diran lokalen kopuruari begira. Errentatzaile handien, euren lokalak larregizko prezioetan alogadutea bizibide daukienen onurarako neurria. Egindako aloger-jatsierea kendu daikien errentatzaileak, eta, urte batean nahikoa ez bada, hurrengo urtean kentzen segidu daikie. Pentsau ete dogu zenbat lokal euki daikiezan alogaduta eta zer preziotan, jatsierea urte bitan egin daiten? Zer esanik ez, ez da lokal bat edo bi alogaduta daukazan nonor. Alogera ordaindu behar dauanak onuraren bat lortuko dau, egia da, baina berari eta beste hainbeste laguni larregizko alogera hori kobretan deusanak baino askoz be gitxiago.

Tabernariei, merkatariei... laguntzeko moduko neurriak benetan hartu gura izan ezker, alogera ordaintzeko laguntza zuzenak dira bidea. Horixe bera da eurei laguntzeko modua, ez gaur aurkezten deuskuzuena. Dana dala, jakina, badaukagu beste arazorik. Laguntza zuzenak emoteko, diru gehiago sartu behar da foru-kutxetan, eta, orain arte, hartu diran zerga-neurriek diru-sarrerak murriztea euki dabe helburu.

Todas las medidas adoptadas por la Diputación Foral de Bizkaia han estado encaminadas a la reducción de ingresos, por lo que así, por una parte, se va a recaudar menos dinero, pero, por otro lado, como no se discrimina, también quienes no tienen unas necesidades urgentes van a recibir una ayuda a través de los tributos. Sin embargo, esas medidas no favorecen a quienes se encuentran en una situación más grave. Lo que se ve claramente en el incentivo fiscal de los alquileres. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora Urkaregi Etxepare. Señor Arana Requena, portavoz del grupo Nacionalistas Vascos, tiene la palabra.

El Sr. **ARANA REQUENA** jaunak: Muchas gracias. Buenos días a todos/as.

Foru Aldundiak ezohiko neurri gehigarriei buruzko eta jarduera ekonomikoa barriro abian jarten laguntzeko neurriei buruzko martiaren 23ko 4/2021 Foru Dekretu Arauemoilea aurkezten deusku, eztabaidatu eta onartu daigun, eta guzti-guztiek Covid-19agaz daukie zerikusia.

Krisi sanitario zein ekonomikoaren eta pandemiaren iraunkortasunaren ondorioz, egoerari buruz eztabaidatu behar dogu barriro. Bizi izan dogun krisi honen ondorio ekonomiko eta sozialei buruz eztabaidatu dogu. Beste eztabaida batzuetan adierazo danez, krisi sanitario eta ekonomikoaren ondorioa edo ondorioak ezin dira oraindokarren euren luze-zabalean zehaztu. Halanda ze, itxaron egin behar dogu eta unean uneko egoereagaz lotutako beharrezko erabagiak hartu. Ikuspegi hori kontuan hartuta, Bizkaiko Foru Aldundiak Foru Dekretu Arauemoile barri hau aurkezten dau.

Zemendiko Osoko Batzarrean, egoera ekonomikoa euki genduan aztergai, eta, Gabonen hasieran, egoera hori aztertu genduan barriro. Udabarrian gagoz, osasun-egoera larria da eta Bizkaiko Aldundiak arautegia krisiaren beraren arabera egokitzen segiduten dau. Foru-diputaduak eta nik baino lehen berba egin daben beste batzuek zehatz-mehatz eta argi eta garbi azaldu dabe Foru Dekretua. Labur-labur, puntu garrantzitsuenak azalduko dodaz.

Foru Aldundiak zergadun zigortuenak babestea, jarduera ekonomikoa bultzatzea eta kaltetutako sektoreak suspertzea dauka helburu. 1. artikuluan, Persona Fisikoen Errentearen ganeko Zerga agertzen da jarduera ekonomikoak egiten dabezan persona fisikoentzat, eta PFEZaren sarrerearen autolikidazinetik salbuesten jake 2021eko bigarren hiruhilekoan. 2. artikuluan, jokoaren ganeko zergakaz zerikusia daukien neurri bereziak agertzen dira. 3. artikuluan, zerga-biztugarria zehazten da lokalen eta negoziarako etxebizitzaren edo antzekoen alogatzaileentzat. Zerga-biztugarri horrek alogeraren prezioaren jatsierea suspertzen dau alogatzailearen eta maizterraren arteko negoziaketaren bidez, barriro dinot, alogatzailearen eta maizterraren adostasunez, alogera hori jasteko. Horrek merkataritzeari, ostalaritzeari, kultureari laguntzen deutse, eta ez da klasistea, jarduera ekonomikoari eustea daukalako helburu. Batetik, alogeraren kontratu-muetarako baldintzak eta beste baldintza batzuk zehazten dira. Bestetik, kenkari horren zerga-biztugarria zergei begira kengarria dan gastutzat jotzen da. Zerga-gastu horren ezarpena desbardina da kasu bakotxean era bateko eta besteko zergadunentzat. Soziedadeen ganeko Zergako eta establezimendu iraunkorraren bitartekaritzearen bidez lan egiten daben Ez Egoiliarren Errentearen ganeko Zergako zergadunentzat, gastu kengarria da. Persona Fisikoen Errentearen ganeko Zergako zergadunei jagokenez, gastu moduan kendu ahal izango dabe itundutako errentearen jatsierea, bai kapitalaren etekinak zehazten diralako, bai jarduera ekonomikoarenak zehazten diralako, errentamentuaren jarduera jarduera ekonomikotzat hartzen danean zerga honen ondorioetarako.

4. artikuluan, jarduera ekonomikoen garapena barriro abian jarteko prozesua bultzatu gurean, 2021eko urtarrilaren leian hasitako zergaldietan sortutako gastuen %15eko ezohiko kenkaria zehazten da kuoteari begira, honako jarduera honeetarako: jarduera ekonomikoak egokitzea; merkaduratzeko kanal alternatiboak erabiltea; instalazioak egokitzea, jente-kopurua errazago kontroletako, erreserbak kudeatzeko edo Covid-19a ez igorteko prebentzino-neurriak bermatzeko; aurrez aurre edo urrunetik, zerbitzuak emoteko baliabideak edo instalazioak barritzea eta eguneratzea.

Azkenik, xedapen gehigarri bakarrean, lurraldeko zerga-bilketari buruzko araudiagaz lotutako doikuntza tekniko batzuk zehazten dira, foru-diputaduak azaldu dauan lez.

Hori guztiori dala eta, gure eretxiz egokia eta ona da Foru Dekretu hau, eta onartzeko bozkatuko dogu. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Arana Requena. Vamos a pasar al turno de réplica. Para ello, el Grupo Mixto no va a participar. Señor Benito Ziluaga, portavoz del grupo Elkarrekin Bizkaia, tiene la palabra.

El Sr. **BENITO ZILUAGA** jaunak: Eskerrik asko.

Hasteko, 2. artikulua aitatuko dot, jokoaren ganeko tributuei buruzkoa, Arana jaunak eta Ortiz jaunak ganetik azaldu dabelako, zeozelan esatearren. Hain zuzen be, jokoaren sektoreari emondako erraztasunei buruz berba egingo dot. Uste dot zuzenagoa dala holan azaltzea. Benetan, Batzar Nagusiok arautzen daben kuota finkoko tributu edo zergaren batean onartu ete da jokoarena lako hain nahierako hainbanaketea? Ez. Hau da, erantzuna ezezkoa da erabat. Atera dozuezan foru-dekretu guztiak eta neurri guztiak berrikusi daitezuez. Egia esan, Foru Gobernu honek herritarrentzat hain kaltegarria dan sektoreagaz, hau da, jokoagaz erakusten dauan ontasunak ez dauka parekorik. Lehenengo eta behin, hiruhilekoetatik hilebeteetara aldatu zenduen, eta, orain, hilebeteetatik egunetara aldatzea proponiduten dozue. Jakina, gaur egun, tabernen barruko aldea zarratuta dago, eta ordu batzuetan baino ez da edegiten. Halanda ze, orduen arabera hainbanatzea proponidu besterik ez daukazue, jokoaren sektoreari zergaren ordainketea arabere gehiago errazteko. Ez gatoz bat, inondik inora be ez.

Azken batean, aurreko agerraldian eta honetan gure taldeak adierazo dauzan eretxi guztiak be kontuan hartuta, aurkako botoa emongo dogu. Lehenengo eta behin, beste gauza batzuk be bozkatu geinkez, baina aurkako botoa emongo dogu, lehenengo eta behin formakaitik, egun batean ekarpenak eskatu zenduezalako Bizkaia Aurrera! Planerako eta hortxe geratu dalako bultzatu beharreko neurriei buruzko eztabaidea. Gure eretxiz, larregi erabilten zabilze Foru Dekretu Arauemoilea, beste talde batzuek esan dabenez, eta uste dogu hau hobe dala alkarrizketearen eta neurri egokienei buruzko eretxi-trukearen bidez egitea.

Bigarrenez, eukiagaitik beragaitik. Izan be, esan dodanez, azkenean, neurri horreei jagokenez, zu diruduna bazara edo zure negozioa hain txarto ez badoa, zorioneko zu, azkenean era askotako zerga-biztugarriak, inbersinoagaitiko biztugarriak eta dana dalakoak daukazuzalako. Azkenean, ostera, Covid-19aren ondorioz sortutakoa lako hondamenditik urteteko, ez litzateke hainbeste lagundu beharko zergak barriro ordaintzen segiduten, negozio horreei baino, egoera larriagoan dagozanez, zergak ordaintzeko gaitasuna be ez daukielako eta, horren ondorioz, onartzen zabilzen neurri horreek euren onurarako be ez diralako izango. Errenten osogarriak behar doguz, ez zerga-jatsierak. Era berean, Foru Arau moduan izapidetzeko be eskatuko dogu, uste dogulako, esan dodanez, formei eta eukiari begira erabat hobetu daitekean testua dala. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Benito Ziluaga. Señor Ortiz Zaballa, portavoz del grupo Socialistas Vascos, tiene la palabra.

El Sr. **ORTIZ ZABALLA** jaunak: Muchas gracias de nuevo. Tira, egia esan, bizkaitarrentzat baino ez dot berba egingo, horixe bera dalako benetan garrantzitsua. Dana dala, ezin dodaz aitatu barik itxi nire aurretik berba egin daben taldeek tribuna honetan esan dabezan berba batzuk.

Hasteko, Elkarrekin Bizkaia taldeari jagokonez, terminologia batzuk erabili dauz; barbarako, neurrien nahaste-borrastea, zekenkeria. Gero, ganera, biztugarri klasistak dirala be esaten ausartu da, eta EH Bildu taldeak be bat egin dau horregaz. Zera itantzen deusut nik, zera itantzen eta esaten deusut: kasu honetan, biztugarri klasisten adjektiboa darabilzue jaube txikiei buruz berba egitean, Bizkaian asko diranean, lokaletakoak, eta, ahalegin handiz, lokal

batean inbertidu dabenean, gero nonork alogorean hartu daian eta jarduera ekonomikoa garatu daiten? Klasistak dirala dinozue zuok? Zuok zeuok erantzun eurei. Talde sozialistek bere eretxia dauka. Zuok zeuok erantzun eurei.

Edozelan be, honako hauxe egingo dogu benetan, hau da, bizkaitarrei barriri laburtuko deutsegu zeinen garrantzitsua dan gaur Alderdi Sozialistearen eta EAJ taldearen botoen bidez onartuko dan Dekretu hau. Hain zuzen be, gogoratu egin beharra dago, uste dot EH Bildu taldeko ordezkariak esan dauala 8 dekretu zirala. Nik neuk, egia esan, zenbatu egin nebazan. Ez dakit 8 edo 9 ziran benetan, eta neurri zehatzak ziran, pandemiaren ondorioz egoera txarragoan dagozan personei eta enpresei laguntzeko. Neurri zehatzak dira, BEZean, PFEZean, Soziedadeen ganeko Zergan. Ganera, gaur, 4 sektore zehatzetarako dakargu zehatz-mehatz: ostalaritza, merkataritza txikia, turismoa, kulturea eta aisialdia, hau da, seguruenik uneotan egoera txarragoan dagozan sektoreak. Azken batean, herritarrek Bizkaiko Foru Aldundia bere lana egiten dabilela ikustea gura neuke nik, nahiz eta Ganbera honetan dagozan taldeetakoren baten gustukoa izan ez. Amaitzeko, jakin egin behar dozue Aldundiak, dana dala, bere lana egiten segiduko dauana, inor atzean ez ixteko. Nada más. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Ortiz Zaballa. Señora Urkaregi Etxepare, portavoz del grupo EH Bildu, tiene la palabra.

La Sra. **URKAREGI ETXEPARE** andreak: Sí, muchas gracias, señora Presidenta. Buenos días de nuevo.

Como he mencionado antes, nos preocupa que todas las medidas fiscales adoptadas hasta ahora supongan menos ingresos. Nos preocupa, porque en este momento tenemos más necesidades sociales, y, por tanto, se deben realizar más inversiones públicas. Sin embargo, no podemos llevar a cabo todas las inversiones sociales que son necesarias, si no disponemos de más ingresos.

La excusa es que debemos reactivar la economía, y, sí, eso es cierto, pero para impulsar esa reactivación, hay dos opciones: incentivos fiscales y ayudas directas. Nosotros/as, EH Bildu, estamos a favor de conceder ayudas directas. Esa es nuestra opción. Así, podemos destinar realmente esas ayudas a quienes realmente las necesitan urgentemente, ya sean pequeños/as trabajadores/as o pequeñas empresas que alquilan un local o dos, sí, señor Ortiz, también a las pequeñas, o empresas que se encuentran en una grave situación. Ayudas directas. Sin embargo, no estamos dispuestos/as a aceptar sin debate unas medidas que siempre favorecen a unos/as pocos/as. Ya es hora de acabar con el uso abusivo del Decreto Foral Normativo. Con la excusa del Covid-19, no se puede argumentar que se trata de medidas urgentes.

En enero, el Congreso aprobó el Decreto que hemos mencionado antes. Han transcurrido dos meses desde que el Gobierno Foral aprobó el Decreto. ¿Por qué no se tramitado como Norma Foral? No es por falta de tiempo, no, sino porque a ustedes les resulta más cómodo. Sin embargo, privan a la ciudadanía de su derecho a plantear alegaciones y a las Juntas Generales de su derecho a debatir y presentar enmiendas. Existe otra cuestión. El Estado ha establecido límites a quienes viven de las rentas, pero aquí los incentivos son iguales para todos/as.

Ortiz jauna, hau ez da merkataritza txikientzat. Jakina, esan dodanez, alojera ordaindu behar dauanak onuraren bat jasoko dau, eta ziur txikientzat, lokal gitxi daukiezanentzat be izango dana onuragarria. Badakizu zeri buruz berbetan gabilzan, ostera? Norentzat da hau guztia? Noren onurarako izango da?

Lehen egunean, intermodalean eta alogeretan jazoten dana agertu zan egunkarietan. 7.000 euroko alogera 90 m²-ko lokalagaitik. Nor da errentatzailea, ostera? Errentatzailea Sociedad Concesionaria Intermodal de Bilbao SL da, eta bertako bazkide bakarra Amenábar Taldea da.

¿Ustedes creen realmente que debemos aplicar ese incentivo fiscal a empresas como el Grupo Amenábar? ¿Creen ustedes que son quienes más necesidades tienen? Eso es lo que ustedes planean. No, no estamos de acuerdo. No lo compartimos, y, por ello, por estas dos razones principales, por su contenido y por la figura utilizada, vamos a votar no. Además, solicitamos que se tramite como Norma Foral.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Urkaregi Etxepare. Para concluir el debate, señor Arana Requena, portavoz del grupo Nacionalistas Vascos, tiene la palabra.

El Sr. **ARANA REQUENA** jaunak: Muchas gracias, señora Presidenta.

Gogoan euki Foru Dekretu hau Foru Aldundiak Bizkaiko personei eta enpresei emondako laguntzearen jarraipena dala, hau da, personei eta enpresei, euren jarduera ekonomikoetan, 1. eta 3. artikuluetan; enpresei, 2., 3. eta 4. artikuluetan. Azken batean, urte oso honetan lez, hain une latzotan Bizkaiko personei eta enpresei laguntzeko.

Preminatasunari jagokonez, esan egin beharra dago preminazkoa dala arautegia egokitzea, osasun-krisia gelditzen ez dalako. Zergen ordainketatik salbuesteko prozesuari jagokonez, hori ezinezkoa da. Nahaste-borrasteari, nahas-mahasari buruz esan danari jagokonez, ez daukat zer esanik. Arautegia inguruabarretara egokitzen da.

Era berean, deigarria egin jat inbersinotzat hartutako gastu publikoaren inguruko maitetasun hori. Ez dakit, beharrezkoa izan daiteke, beharrezkoa da, baina, inbersinoak albo batera itxita, baliabideen konsumoa da, eta baliabideak ez dira mugabakoak.

Alogeren gaiari jagokonez, gogoan euki Estaduan oso antzeko Errege Dekretua onartu zala edo bardina, egiten gabilzana kontuan hartuta, eta inork ez dau esan klasistea danik. Adierazo egin gura dot adostasunean, alogeren jatsierearen adostasunean dagoala giltzarria. Biek, alogatzaileak eta maizterrak, jatsiera hori egiteko adostasuna lortu behar dabe, eta horrek negozioak salbetan dauz. Hori dala eta, ez da klasistea. Besterik ez. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Arana Requena. Una vez concluido el debate, en primer lugar debemos votar o vamos a someter a votación la convalidación del Decreto Foral Normativo de Urgencia. Por tanto, ¿votos a favor de la convalidación? ¿Votos en contra? ¿Abstenciones?

El resultado ha sido el siguiente: ha habido 32 votos a favor, 16 votos en contra y 2 abstenciones. Por tanto, ha quedado aprobado el Decreto Foral Normativo.

Tal y como se ha solicitado por parte de los grupos, una vez convalidado el Decreto Foral Normativo, someteremos a votación si se tramita o no como Proyecto de Norma Foral. Por tanto, ¿votos a favor de tramitarlo como Proyecto de Norma Foral? ¿Votos en contra? No hay abstenciones. Por tanto, el resultado es el siguiente:

Ha habido 18 votos a favor, 32 votos en contra y ninguna abstención. Por tanto, no se tramitará como Proyecto de Norma Foral.

Punto quinto del Orden del Día:

El Sr. **SECRETARIO SEGUNDO / BIGARREN IDAZKARI** jaunak:

5.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Proposición no de norma ([R.E.11/E/2021/0000154](#))

Autor: Fernández Angulo, Amaya (GM/TB-PPB)

Asunto: Ampliación de personal técnico al servicio de inspección de las residencias.

Documento Principal: ([R.E.11/E/2021/0000154](#))

Boletines: [Admisión a trámite y apertura del plazo de enmiendas](#) (132A), [Enmiendas: No presentadas](#) (132B)

Expediente: ([11/B/26/0002020](#))

5.- Honako idatzi hau aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Arauz besteko proposamena ([11/E/2021/0000154SE](#))

Egilea: Fernández Angulo, Amaya (GM/TB-PPB)

Gaia: Egoitzetako ikuskapen-zerbitzuko teknikariak gehitzea

Dokumentu nagusia: ([11/E/2021/0000154SE](#))

Aldizkariak: [Izapidetzeko onartzea eta zuzenketa-eskeak aurkezteko epea zabaltzea](#) (132A), [Zuzenketa-eskeak: Ez dagoz](#) (132B)

Espediente: ([11/B/26/0002020](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Corresponde el turno a la juntera que ha presentado la iniciativa. Por tanto, señora Fernández Angulo, tiene la palabra.

La Sra. **FERNÁNDEZ ANGULO** andreak: Eskerrik asko, mahaiburu andrea. Arauz Besteko Proposamen honen jatorria GUFeko alderdi sozialak Eskaeratarako eta Herritarrakazko Hartu-emonetarako Batzordean egin eban agerraldia da. Ekarpen hori oso interesgarria da, nik neuk nahikoa garrantzitsua zala pentsau neban, eta, horren ondorioz, Arauz Besteko Proposamen hau aurkeztu dogu. Nire eretziz, bere espirituan eta bere eukian indartzen dau eta indartu eban Eskaeratarako Batzorde horretan bertan be egin zan bigarren agerraldiak, eta, bertan, Ermuko Abeletxe egoitzako erabiltzaileen senideak izan ziran protagonistak. 3.000 egoiliar gaixo baino gehiago, 500 hildako baino gehiago eta, zer esanik ez, ondorio emozional handiak, egoitza-zentroetatik urteteko eta senideen zein ingurukoen bisitaldiak jasoteko murrizketa latzek irauandako hilebeteen ostean.

Egia da bizi izan genduan gehieneko larritasun hori atzean itxi doguna txertaketa-kanpainari esker. Dana dala, uste dot egia dala oraindokarren egoerea nahikoa garrantzitsua dana zaurgarritasun handiena jasaten dabenakaz. Nahiz eta azken urte honetan oso gauza harrigarriak entzun doguzan, birusa garaitu egin genduala, barbarako, ia-ia beti oraindokarren errealidadea bera da espiluaren aurrean jarten gaituana. Horixe dinot, aste honetan bertan, hobera egin badogu be, eta autortu egin beharra dago, zer esanik ez, 12 erabiltzaile positibo dagoz, beste agerraldi bat Bilboko egoitza batean, 13 langile positibo eta isolatuta dagozan 30.

Egia be bada gai garrantzitsuei buruzko erabagiak hartu behar diranean, eta arabere gehiago gaurkoa lako aztergaietan, hainbat lagun gaixotu dirala kontuan hartuta, hainbat lagun hil dirala kontuan hartuta, hobe da berotan ez hartzea. Seguruenik, hobe da denporearen

iragaitzeak emoten dauan ikuspegi osoaz egitea. Horrek adierazo egin gura dau egitate batzuk daukaguzala, hau da, 150 egoitza-zentro baino gehiago dira eta, horren ondorioz, 10.000 plaza baino gehiago, baina 7 lagun baino ez dagoz egoitzetan bertan ikuskaritzarako eta kontrolerako lanak egiteko.

Emoten dau zentzunezkoa dala esatea, eta, ganera, uste dot danok autortzeko moduko zeozer dala, ikuskaritzarako eta kontrolerako lan hori egiten dabenean, hain zuzen be, funtzionarioek, tribuna honetan autortu ahal jaken gaitasun profesional handi-handiaz egiten dabela. Dana dala, uneotan oso inguruabar gaxetan lanean dabilzala kontuan hartuta, hain zuzen be, uste dot osasun-krisi honetan nahikoa garrantzizkoa dala gai hau nabarmentzea. Uste dot prebentzinoaren helburua azpimarratzea eta nabarmentzea be badala garrantzitsua. Helburua ez da Ikuskaritzarako eta Kontrolerako Zerbitzuko personen, giza baliabideen kopurua gehitzea zigortzeko asmoz, hori ez da helburua, prebenidutea dalako helburua, hau da, arrisku horreek prebenidu ahal izatea beti dinogunez, danok tribuna honetara urtetan dogunean esaten dogunez, garrantzitsuena diran personentzat eta, batez be, zaurgarrientzat eta, horren ondorioz, batez be, edadekoentzat.

Gaur zuokaz partekatu gura dot, labur-labur bada be, Bizkaiko egoitza bateko gerokultore bategaz oraintsu euki dodan alkarrizketea. Batez be, niretzat interesgarria zan jakitea zelakoa dan gerokultorearen ikuspuntutik, ikuspegitik, perspektibatik, zelakoa izan daitekean egoitza batean egiten dan edozein ikuskaritza. Tira, ba, eginkizun hori egiteko eginkizuna daukienak ailegetan dira, eta solairuz solairu doaz gerokultoreakaz, oro har, eta gerokultore horren gainbegiraleagaz. Uste dot danok bagoazala egoeran jarten. Norberak ikuskatzailea irudikatzen dau gerokultoreari itantzen: “entzun, gabeziaren bat dagoala uste dozu? Hau zelan doa? Badago edadekorik noiz jagiko, noiz hidratauko zain dagoanik? Nik neuk gerokultorea irudikatzen dot, solairuko begiralearen aurrean zera esaten: “jakina, bada, 3 geratzen jakuz, ez deusku astirik emon. Tira, ba”.

Ez dot zehetasunetan sartu gura, danok egoeran jarten gagozala uste dodalako. Nik neuk ez dinot, eta ez neuke agerraldi honetatik beste ondoriorik ateraterik gura, egoerea hondagarria danik, dana txarto doanik, 180 graduko aldaketea egin behar danik. Nik dinodana da, erantzunbeharretik, uste dot danok badakigula zeinen gatxa dan eraginkortasunez eta egokitasunez betetea. Ondo neurtu gura dodaz neure berbak, ikuskatzeko eta kontrolerako eginkizun hori egiten dabenen lana, topetan dabenean zailtasuna, gitxi diralako eta lan eskerga dalako. Emoten dau hurrengo urteetan be holantxe izango dala, osasun-krisi hau ez bada, sortu daitekean beste zailtasun batzuk izango diralako. Ez dau emoten zentzunbakoa danik, ez daukaguzalako 20 behargin, 7 baino. Ez dau emoten zentzunbakoa danik hausnarketea egitea. Ez dago lanpostu hori berehala zertan beterik, baina pentsau egin beharra dago beharrezkoa izango dala, eta danon erantzunbeharra da. Jakin badakit erabat danok sentikortasun handia daukaguna, edadekoakazko sentikortasun ikaragarria, prebentzinoa oso garrantzitsua dana eta konpromiso baten helburua izan daitekeana. Adostasunez lortuko al dogu!, giza baliabideen hobekuntzan lan egiteko, prebentzinoan lan egiteko eta, horren ondorioz, administrazio moduan, zerbitzu hobea eskaintzeko gai izateko, egoitza-zentroetan be badagozan beharginak eta, batez be, zerbitzuaren helburu diranak, hau da, Bizkaiko edadekoak, kontuan hartuta. Horixe bera da gaur Ganbera honetan berbabide daukagun gaia, eta zelako babesak sorrarazoten dauzan ikusteko eta erantzunen txandan jorratzeko aukerea eukiko dogu. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora Fernández Angulo. Señor Fernández Medrano, portavoz del grupo Elkarrekin Bizkaia, tiene la palabra.

El Sr. **FERNÁNDEZ MEDRANO** jaunak: Muchas gracias, señora Presidenta. Egun on.

Tira, bertora dakargu edo Aldundiaren menpeko zentroetako Ikuskaritza Zerbitzuko teknikarien kopurua handitzeko ekimena dakar talde popularrak. Proposamen zehatza, zuzena da, eta, gure eretxiz, ez leuke gatazka lar edo eztabaida lar sortu beharko, aho batez onartzeko orduan.

Ondo esan denez, GUFeko instantzia batzuetako ordezkari sindikalek, esan daigun, Eskeretarako eta Herritarrakazko Hartu-emonetarako Batzordean egin eben eskaerea jasoten dau ekimen honek. Zeozelan, zehaztapen instituzionala emon gura deutso honi, konpromisoa, alegia.

Zentzun horretan gabilz berbetan. Zentzun horretan, beharginen ordezkariak entzun beharreko instantzia bietatik bat kontuan hartzeko edo arreteta eskaintzeko asmotan egindako eskaerea jasoten da, osasuna eta eskaintzen dan zerbitzuaren kalidadea benetan jagon gura badoguz. Agirikoa denez, beharginak eta euren ordezkariak daukadaz berbabide. Beste instantzia, eta ezin da beste era batera izan, erabiltzaileak eta euren ingurunea dira. Zentzun horretan, ganera, beti nekatu barik esango dogu 2 koordenadutan emon behar dala teknikariek zein kargudun publikoek arlo horretan garatu beharreko lana. Behin eta barriro esango dot, nire eretxiz erespede bi horreetan, hau da, zerbitzua jasoten dabenen erespedean eta emoten dabenen erespedean, emoten dalako, esan daigun, benetako joko politikoa, zelan ezarten diran erespede horreek. Esan egin gura dot pentsau daitekeala beharginen eskaerak eta erabiltzaileen zein senideen eskaerak Errege Magoen gutuna izan daitekezala, baina esan barik doa argi dagoana senideen, erabiltzaileen eta ordezkari sindikalen erespedeak kontuan hartzen ez badira, ekintza tekniko nahiz instituzionala itsua izango dana ezinbestean edo jorratu gura dauan errealidadera behar beste egokituko ez dana. Alde horretatik, guretzat zilegi, egokia eta zentzunezkoa da Eskeretarako eta Herritarrakazko Hartu-emonetarako Batzordean azaldu ziran eskaerak kontuan hartzea.

Hori esanda, gure ustetan be, orain eztabaidagai daukagun proposamenak, zeozelan, modu materialean osotzen dau martiaren 17ko Osoko Batzarrean ikuskaritzak gehitzeko asmotan bertan lortu zan konpromisoa. Zeozelan, ziurtatu edo bermatu egiten dau ikuskaritzak gehitzeko konpromiso horrek kontrapartida materiala daukana, hau da, ikuskaritzak egiten dauzan jentearen kopurua handitzea. Emoten dau agirikoa dala, baina ona da gogoratzea.

Era berean, egoitzetako erabiltzaileen senideen artean egindako gogobetetasun-inkesta ospetsuan igarten ziran gabeziak osotu edo bete egiten dauz. Gogoan euki behar dogu inkestatutakoen %44,3k ikuskaritza gehiago eskatzen ebezala edo faltan eukiezala. Proposamen hau onartuko bagendu, gogobetetasun-falta hori zeozelan jorratzen egongo gintzatekez. Bestetik, era berean, albokotasunez bada be, inkestako zenbaketa orokorrean lortutako 6,3ko emoitza txar hori jorratzen da, eta, bertan, behargin gehiago behar ziralda aitutzen zan. Ez daukagu berbabide egoitzetako behargin gehiago, baina, zeozelan esatearren, gure jentearak behar dauan ondoizaterako lan egiten dabenean beharginei buruz gabilz berbetan.

Hori esanda, zer esan daikegu? Proposamen honen aldeko botoa emongo dogu, zentzunezkoa dala uste dogulako eta beste era batera ezin leitekeala izan uste dogulako. Foru Gobernuaren konpromisoaren arabera, ikuskaritzak gehitzeko, ikuskaritza horreek egiten dabean beharginen kopurua handitu beharra dago, gizarte-zerbitzuen kontrolak ikuskatuta dagozana eta erabiltzaileen nahiz bertan lan egiten dabenen gustukoak dirana bermatu ahal izateko.

Horrezaz ganera, esan egin gura dot ekimen honen inguruan aurkeztu genduzan zuzenketetako bat geratu zala kanpoan, eta, zeozelan, gai bat hartzen eban kontuan, proposamengileak egoitzetako behargin bategaz eukitako alkarrizketa hori aitatzean adierazo dauan lez. Izan be, nonoiz, faktore kualitatiboa be jorratu beharko dogu, eta ez bakarrik kuantitatiboa, hau da, zenbat jentek lan egiten dauan horretan, zenbat ikuskaritza egiten diran.

Holan, gehiago finduko litzateke sorbatza, zeozelan esatearren. Laster eztabaidatu ahal izango dogulakoan nago. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Fernández Medrano. Señor Otermin Eraso, portavoz del grupo Socialistas Vascos, tiene la palabra.

El Sr. **OTERMIN ERASO** jaunak: Señora Presidenta, señoras y señores, buenos días a todos/as. Lehenengo eta behin, ondoetorria emon gura deusat Igone Porto andreari. Ibilbide zoriontsua euki daizula Batzar Nagusietako legealdi honetan. Talde popularrak eskatu egiten deusku Aldundiari eskatu deiogula edadekoen, mendekoen, umeen eta nerabeen egoitza-zentroetako Ikuskaritzarako Foru Zerbitzura atxikitako teknikarien kopurua handitzeko. Barriro be, legealdi honetan 7 biderrez be eztabaidatu dogun gaia jorratuko dogu, hau da, Bizkaiko egoitza-zentroetako Ikuskaritzarako Foru Zerbitzua.

Horri jagokonez, gogoratu egin gura dot Gizarte Ekintzako Batzordean, neuk proponiduta, 2014ko zemendiaren 5ean onartu genduala Arauz Besteko Proposamena, eta, bertan, Gizarte Ekintza Sailari eskatzen geuntsan urtero aurreko ekitaldiaren barri emon eiala edadekoen egoitzetako eta eguneko zentroetako Ikuskaritza Zerbitzuari jagokonez. Adostasun haren ondorioz, urtero, maiatzean, maiatzaren erdialdean edo amaieran, Gizarte Ekintzako diputaduren agerraldia daukagu, eta apurka-apurka azaltzen deusku zelan joan dan balorazinoa ikuskaritzei jagokonez eta zer igarri dan aurreko ekitaldian.

Horren adierazgarri, Mendetasunari buruzko 2006ko Legearen eta Euskadiko Gizarte Zerbitzuei buruzko 2008. urteko Legearen ondorioz be bai, zentroak ikuskatzeko lehenengo plana jarri zan abian 2017ko ekitalditik 2019kora. Harrezkero, maiatzean, esan dodanez, jazo dan guztiaren barri emoten jaku. Jazoten dana da 2020. urtean, nahiz eta batzordean zenbakiak be emon jakuzan, 2019. urtea zelan joan zan jakiteko, danok ondotox dakigu, plan barria idazteko unea bazan be, pandemiak dana hankaz gora jarri dauana egoitzetan. Hori dala eta, ikusten gabilz nasaitasunez eta errealdadea zehazten joango jakun ikuspegiaz jorratu beharko dogun arazoa dala benetan.

Era berean, gogoratu egin beharko litzateke igazko urriaren 5ean ebazpenei buruz egin genduan eztabaidan bertan gagozan alderdion artean onartu genduala egoitzetarako gizarte-zerbitzuen politikea izango zana gatz zerikusia eukan bosgarren ebazpena. Zera esaten zan bertan: “EtxeTICen Proiektua sustatuko dogu, Bizkaiko Lurralde Historikoko egoitza-ereduaren eraldaketea bultzatzeko eta alkarbizitza-unidadeetako egoiliarren arretearen hobekuntzarako mekanismoen garapenean lan egiteko”. Dana dala, nabarmendu gura dodan laugarren puntua dago: “egoitza-zentroak ikuskatzeko eta kontroletako lanak areagotuko dira, eta lehentasun berezia emongo jake profesionalakaz zerikusia daukien elementuei, kopurua eta kalidadea kontuan hartuta, arreteko egoiliarren profilaren eta bizi-proiektuen arabera hobeto egokitzeko”.

Alde horretatik, aurretik berba egin dauan Héctor jaunak adierazo deuskunez, joan dan martiaren 17an Ganbera honetan adostu genduan Bizkaiko edadekoen egoitzei buruzko itaunaren ondorioz sortutako mozinoa. Honako hauxe dino, eta 4 puntuak irakurriko dodaz, badaezpadan, ahaztu badozuez:

- Bizkaiko Batzar Nagusiek Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzen deusie behar besteko neurriak hartu daizala, kontratuak, akorduak edo hitzarmenak barne, personen osotasuna arriskuan jarten daben ezohiko egoera larrien aurrean, betibe, egoitzetako banakako ikuskaritzarako lanetan horretarako errazoi nahikoa egiaztau bada, euren titulartasuna edonorena dala be.

- Bizkaiko Batzar Nagusiek Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzen deusie baimendutako edadekoen egoitza-zentroen ikuskaritzarako zereginak gehitzeko.

- Bizkaiko Batzar Nagusiek Foru Aldundiari eskatzen deusie edadekoen egoitzetan prebentzinorako PCRak egiten laguntzeko, Osasun Sailaren gomendioen arabera komenigarria danean.

- Eta laugarren puntua. Bizkaiko Batzar Nagusiek Foru Aldundiari eskatzen deusie urtea amaitu baino lehen Bizkaiko Batzar Nagusiotan aurkeztu daiala gaur eguneko egoitza-sarea alkarbizitza-modulu txiki bihurtzeko prozesuaren sustapenerako plangintzea.

2020ko maiatzaren 29an egindako agerraldian, Gizarte Ekintzako diputaduak, 2019. urteko balantzea egitean, 2020. urterako lerro nagusiak aurreratu ebazan, eta 3 izango ziran funtsean: lurraldeko gizarte-zerbitzuetako zentro guztiak ikuskatzeko asmoa, 404 dirala kontuan hartuta; etxeko zainketen 5.324 jarraipen egitea; eta zerbitzu horrek daukazan 52.664 prestazinoak kontroletea.

Ezelako zalantza barik, helburu horreek garrantzi berezia daukie bizi dogun pandemiaren ondorioz, eta horri buruzko informazio guztia emongo da laster horretarako deituko dan batzordean. Aukera horretan be, osasun-krisiaren ondorioz abian jarri ziran ikuskaritza-plan bereziei buruzko azalpena eskaini jakun, baina, batez be, lehenengo olatuari egokion guztian, eta gogoratu egin jakun ikuskaritzarako eginkizuna ez dala 7 ikuskatzaileek zentroetara egiten dabezan ikuskaritza-bisitaldietara mugatzen, harago doalako, GUFeko 21 teknikarik zentroentzat garatzen dabezan aurretiazko kontrol-zeregina, aholkularitza eta orientazioa kontuan hartuta.

Gogoan euki behar dogu, aurreratu euskuenez, 336 ikuskaritza egin zirala egoitzetan, baita beste era bateko 1.226 bisitaldi eta erabiltzaileen senideentzako hainbat eta hainbat dei be.

Hori guztiori dala eta, laster batzordean bertan modu berezian aztertuko dogu hain ezohikoa izan dan 2020. urtean gure Foru Aldundiak gizarte-zerbitzuen arloan kontrolerako garatu dauan ikuskaritza-zeregina. Bertan, ikuskatzaileak ez eze, esan dodanez, 7 ikuskatzaileak ez eze, GUFeko 21 profesionalen lana be hartu behar dogu kontuan, Covidagaitik zentro guztietan ezarri behar diran neurri guztien jarraipena egiten laguntzen dabelako, Ikuskaritza Zerbitzuaren menpetasun funtzionalpean, eta 2020ko urriaren 5eko nahiz 2021eko martiaren 17ko saioetan hartutako akorduek indarrean segiduten dabelako. Hori guztia dala eta, ez dogu ekimen hau babestuko, maiatzean eskaintzen jakun txostenaren eta Gizarte Ekintza Sailak arlo horretan hartzen dauzan era bateko eta besteko neurrien zain. Nada más. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Otermin Eraso. Señora Duque Santacoloma, portavoz del grupo EH Bildu, tiene la palabra.

La Sra. **DUQUE SANTACOLOMA** andreak: Buen mediodía a todos/as.

La propuesta que hoy nos ha traído el PP, tal y como lo ha expresado Amaya, se enmarca en la comparecencia del Comité de Empresa del IFAS en la Comisión de Peticiones y Relaciones con la Ciudadanía celebrada el día 15 de enero.

Los tres grupos de la oposición planteamos dudas y preguntas en relación a la suficiencia del número de trabajadores/as del Servicio de Inspección y Control de las

residencias, donde la representación sindical del personal del IFAS nos respondió de manera clara y contundente. Quiero recordar que los sindicatos con representación en ese Comité de Empresa son LAB, ELA, UGT, Comisiones y SATSE. Es decir, la representación del Comité con la que contamos ese día es bastante amplia. He querido traer de nuevo aquí lo que nos dijeron ese día o sus palabras, que literalmente dicen:

“Bai, egia esan, hori egiteko, emoten dau, tira, ez dau emoten, egon badago Ikuskaritza Zerbitzurik Gizarte Ekintza Sailean bertan, eta egoitzetako ikuskaritzak egiten dauz. Kideak ondo adierazo dauanez, 7 lagun barik, zerbitzuko 9 lagun dagoz danetara, baina bata burua da; eta bestea, behargin administratiboa. 7 lagun baino ez dagoz, 7 teknikari, eta eurak dira egoitzetara benetan urteten dabena ikuskaritzak egiten. Uste dogu oso kopuru txikia dala desgaituen 154 zentrotan behar dan moduko ikuskaritzak egiteko. Izan be, matematikak diranak dira, eta zenbakiek emoten dabena emoten dabe. Ikuskaritzea egiten joatea ez da goiz batean joatea eta zentrotik osteratxua egitea. Ikuskaritzea egitea askoz gehiago izan behar da, eta ez dogu uste behargin-kopuru horregaz ikuskaritzak behar dan moduan egin daitekezanik. Hori Gizarte Ekintza Sailean be eskatu dogu aspalditik. Benetako apustua egin beharko litzateke Ikuskaritza Zerbitzuaren alde. Horretarako, behargin-kopurua handitu eta aukerak be handitu beharko litzatekez, egin behar dabena lana egin ahal izateko”.

Por tanto, la parte social, sindical, ratificó lo que EH Bildu, junto con el resto de partidos de la oposición, había puesto sobre la mesa hace tiempo, es decir, que 7 personas no son suficientes para inspeccionar 154 centros.

Como una vez le dije al diputado Sergio Murillo, el mejor homenaje que se les puede brindar a los/as trabajadores/as de las residencias es la dignificación de sus condiciones laborales, lo que incluye al personal del Servicio de Inspección.

El aumento del número de inspectores/as en las residencias va a suponer al menos tres mejoras:

- 1.- Se mejorará la calidad del servicio que se ofrece en las residencias.
- 2.- Se mejorarán las condiciones de vida de las personas que allí residen.
- 3.- Se mejorarán las condiciones laborales de los/as trabajadores/as.

Con la situación que se ha vivido en las residencias, ¿cómo le van a explicar a la ciudadanía de Bizkaia que están en contra de esta iniciativa por una cuestión económica?

De hecho, esa es la razón, y no otra, puesto que el PNV y el PSE, tal como lo ha comentado Amaya, han rechazado tres veces las enmiendas que presentamos los grupos de la oposición para incrementar el personal de inspección. Quiero recordar que en las enmiendas presentadas por el Partido Popular a esos presupuestos planteaban aumentar la partida en 500.000 euros; Elkarrekin Bizkaia, unos 200.000; y lo que planteábamos desde EH Bildu era que se pasara de 7 trabajadores/as a 14, que se duplicara el número de trabajadores/as. ¿Cuál fue la respuesta que obtuvimos por parte del PNV? “Hori dela eta, -ofreció una pequeña explicación- ez dogu zuzenketea onartuko, gaur egun beharrezkotzat jotzen ez dogulako”. Luego, entraré en esa explicación que ofreció.

También se ha hablado de que el día 29 de mayo de 2020 en esa Comisión, en la Comisión de Acción Social, el Diputado Sergio Murillo compartió con nosotros/as la presentación o la valoración del Plan General de Inspección de 2017-2019. Fundamentalmente, se refirió a los datos de 2019, y la valoración del diputado fue positiva. Se cumplieron los objetivos de mejora para esos 3 años.

¿Cuál era el objetivo para los centros residenciales? Realizar una visita anual a cada centro. Ese era el reto, y eso se cumplió. Una visita anual a cada residencia. Además, esas visitas están programadas. Es decir, las empresas que gestionan las residencias conocen cuándo van a recibir la visita del/la inspector/a de la Diputación. Por tanto, no les coge de sorpresa, y esa es la situación cuatro años después, en una crisis sanitaria que no hemos superado aún, y el PNV y el PSE ya nos dirán si los recursos que servían entonces sirven también hoy en día. Cuando hablamos de poner la vida en el centro, significa que debemos priorizar y fortalecer las políticas sociales y los servicios sociales, entre otras cosas. Cuando el Diputado Sergio Murillo nos dijo en una Comisión que venía a traer a este Departamento, al Departamento de Acción Social, una nueva perspectiva basada en las personas, no sabemos muy bien de qué personas hablaba, de las personas mayores y del personal público no, por supuesto.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora Duque Santacoloma. Señora Coria Yanguas, portavoz del grupo Nacionalistas Vascos, tiene la palabra.

La Sra. **CORIA YANGUAS** andreak: Buenos días. Muchas gracias, señora Presidenta.

En primer lugar, queremos dar la bienvenida al Partido Popular con esta propuesta, porque entendemos que trabaja por un estado del bienestar generoso.

Izan be, gizarte-zerbitzuak eta edadekoen egoitzak orain dala 30etik gora urtetatik EAJk Bizkaian defendidu, bultzatu eta abian jarri dauan ondoizate-estaduaren ezaugarri adierazgarrietako bat dira. Edozelan be, esan egin behar dogu proposamen honen bidez ez dogula ikusten zerbitzu publikoa hobetzen danik, eta, azkenean, ez dogu igarten. Izan be, Bizkaiko egoitza-sistemako zerbitzuetako batean behargin-kopurua handitzeko proponidutako neurria datu zehatzetan oinarrituta be ez dagoan neurria da, baietzapen orokorrak daukazalako oinarri. Neurriakaz batera, balorazinoan eta azterketan oinarritutako errazonamenturik ez dagoanean, behargin-kopuruaren gehikuntzan geratzen dira, zergaitik eta zertarako errazoituz barik.

Danok ezagutzen dogu Bizkaiko Foru Aldundiko Ikuskaritza Plan Orokorra. Koordinauta dago, eta bat dator ondoizate-estadu eskuzabal baizen egin-eginekoagaz, hau da, kalidadekoagaz. Laster, hain zuzen be, 2020ko ikuskaritzeari buruzko balantzea aurkeztuko da, eta zehetasun osoz jakingo dogu zer ikuskaritza egin diran eta zer datu itxi dabezan ikuskaritza horreek. Holan, zerbitzuari buruzko, sistemeari buruzko balorazinoa egingo da, eta egokitu, zuzendu, bultzatu, indartu egin ahal izango da beharrezkoa dan lekuetan. Zerbitzu honetan behargin-kopurua gehitzea beste barik proponiduten bada, argi dago ez dana ezagutzen unidate hau zertan datzan. Ikuskaritzak egoitzetan, guztietan, urtean behin egiten dan ikuskaritzatik harago doaz. Egoitza guztiek ikuskaritza publikoa daukie, eta guztiek ikuskaritza horretan laguntzen dabe, zerbitzua hobetzeko egiten dalako, barriro dinogu, euren etxebizitza diran zentroetan edadekoei emoten jakezan zainketak hobetzeko. Urtean, bisitaldi hori ez eze, Ikuskaritza Zerbitzu horren parte diran beste jarduketa batzuk be badagoz, ikuskaritzearen bidez egoitza-sistemea osotu eta aberastu egiten daben jarduketak, alegia.

Holan, bada, familiei deitzen jake, protokoloak egiaztetan dira, espedienteak berrikusten dira, datuak kurutzatzen dira, barruko ikuskapenak egiten dira. Jarduketa horreen guztien ondorioz, aldaketa-proposamenak egiten dira arreta-planetan, eta, horren ondorioz, baliabideak zein zerbitzuak egokitzen dira ikuskaritzarako mekanismoen parte diran jarduketa horreetako onuradunen premietara. Arautegia hobetzeko eta egokitzeko gomendioak sortzen dira edo laguntzak emoteko prozedurak.

Hori guztiori, hobetzeko, eta hori guztiori, edadekoen egoitzetan lan egiten daben profesionalakaz egindako lan bateratuan: gerenteak, laguntzako arduradunak, medikuak, klinikako laguntzaileak. Hemendik, gure eskerron zintzoena, Bizkaiko zainketen sistemako funtsezko zutabeetako batean egiten daben lanagaitik. Muchas gracias.

2020an egin dira ikuskapen gehien. Diputatuak datuak aurreratu ebazan urtarrileko Kontrolerako Osoko Batzarrean. Ikuskapen bi eta piku egin dira egoitza bakotzeko, eta, horrez gain, lehen deskribatutako aldez aurreko jarduketak be egin dira urtean zehar. Azken baten, 4.000 jarduera baino gehiago egin dira 10 hilabetetan, eta langileak indartu eta gehitu egin dira. Ikuskapen kopurua handitzeko, baliabide gehiago jarri dira martxan; ez da zalantzarik izan. Datuak be ikusi gura dauen guztiaren esku dagoz.

Beraz, barriz dinogu, diputatuaren balantzea egiteko dago, eta orduan Aldundiak berak, ez dogu horren zalantzarik, baloratu eta erabagiko dau zer behar dan.

Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Coria Yanguas. Vamos a pasar al turno de réplica. Para ello, señora Fernández Angulo, portavoz del Grupo Mixto-Partido Popular Bizkaia, tiene la palabra.

La Sra. **FERNÁNDEZ ANGULO** andreak: Eskerrik asko, mahaiburu andrea.

Lehenengo eta behin, eskerrik asko Arauz Besteko Proposamen honen aldeko jarrera adierazo dozuen taldeoi. Era berean, azkenean eztabaidatu ezin izan dan zuzenketea be aitatu gura neuke. Elkarrekin Bizkaia taldeak aurkezten eban, eta horri buruz berba egiteko aukerea euki dogu egunotan. Balorazinoa ona da, agirikoa danez eztabaidatu be egin behar dalako eta onartu egin behar dalako aldaketak egin behar dirala protokoloetan, neure lehenengo agerraldian aitatu dodan prebentzinoaren zentzun horretan zerbitzu hobe eskaintzeko ahaleginean.

Hirugarrenez, justifikau gurean edo kontrako botoa justifiketako ahaleginean Gobernuari eusten deutsien talde politikoeke emon dabezan argudioak aitatu gura neukez, labur-labur, behintzat. Uste dot 3tan laburtu daitekezala, 3tan, funtsean.

Batetik, eztabaidatu dan gaia dala esan dozue. Tira, hori ohikoa da Batzar Nagusietan, eta arrunta da, gaurkotasuna ez dalako aldatzen Ganbera honen lehentasunak, herritarrenak izan behar diranak, eraldatzeko beste. Hara, nik bizkaitar moduan, ez batzarkide moduan, neure bizitzako urteen erdiak baino gehiago daroadaz Errontegiko zubirako alternatibeari buruz berba egiten dala entzuten. Hori dala eta, otu egiten jat legealdi batzuetan batzarkideak izan diranentzat hori beste hainbeste gaitan lez jazoten joango zala eta legealdi honetan egoitzei buruz berba egitea eta, batez be, aurton, askotan, ez da gitxiagorako, agirikoa danez, lurraldean kudeaketan egon diran arazo larrienetakoa da, eta ulergarria da jorratzea. Dana dala, jakina, gaiak oro har jorratu daitekez, eta, gero, ikuspegi zein ikuspuntu zehatz desbardinak dagoz. Gaur, guk euretako bat dakargu, hau da, zehetasunez, zehetasunetan sartzea, kalidadean eta kopuruan, zeuk esan dozunez, hobetzeko premineari buruzko balorazino orokorrak egitea ez eze, beharginen kopurua handitzea, baloretea eta ahal danik eta lasterren egitea be bai, zerbitzu hobe emon ahal izateko.

Hona hemen erabili dan bigarren argudioa: Gizarte Ekintzako foru-diputaduak batzordean egingo dauan txostenaren, balantze horren zain egon behar gara. Hara, nik neuk urte bi daroadaz Batzar Nagusiotan, eta Gobernuari eusten deutsien taldeei ez deutset

inoiz entzun ez Gobernuaren kritikea egiten, kritika txikiena egiten be. Halanda ze, ni ez naz Gizarte Ekintzako Batzordeko kidea, baina beste batzuetakoa naz, eta argi eta garbi ikusi dot. Hori dala eta, ez dot uste Gobernuari eusten deusien taldeek batzorde horretan Murillo jaunaren kudeaketeari destainea egingo deusienik eta esan egingo deusienik helburuak bete ez dirala eta, horren ondorioz, Ikuskaritza Zerbitzuan lanpostu barriak sortzeko preminea nahitaezkoa dala. Nik neuk ez dot inoiz ikusi, beharbada lehenengo aldia da, baina orain arte nik ez dot holakorik ikusi.

Hirugarrenez, oso gustuko euki dot erabili dozuen hirugarren argudioa. Horrezaz ganera, uste dot ondo ekarrita dagoala egunotarako. Zuon esanetan, ez dozue ondo ikusten beharginen kopurua handitzea, premina horri buruzko balorazinorik eta azterketa zehatzik ez badago, ostantzean beste barik ezjakintasunetik proponidutea dalako. Tira, ba, asteotan zuok handitu egin dozue, tira, Foru Gobernuak bi gehiagotan handitu dau gobernua. Eragin ekonomikoaren, lurralderako daukan garrantziaren ikuspegitik azterketa zorrotza egingo dalakoan nago, bizkaitarrei zerbitzu hobea emoteko asmotan urteko 80.000 euroren baino gehiagoren truke lagun bi gehiago behar dirala justifikau ahal izateko. Halanda ze, edozelan be, beharginen kopuruaren gehikuntzan pentsau baino lehen be, datuetan oinarritu beharra dago. Erantzunen txandan entzungo dodazalakoan nago, ganera, badaukadalako, autortu egin behar dot, agirian jarriko dozuezan datu zehatz, sakon horreek ezagutzeko interes handi-handia, eta 160.000 euro gehiago gastau behar diralako Gobernu indartzeko. Hain zuzen be, norbera Bizkaia edegia gardentasunaren atarian sartzen bada, zera azaltzen da bertan: "Foru Gobernuak 26 aholkulari behar dauz bere lana egiteko". Nik ez dinot behar ez dozuezanik. Orain, bai, zuok niri ezjakinegia nazala eta ardurabako samarra be banazala justifikau gura izatea be!, hemen ez daukadalako ezelako txostenik zuoi behargin horreek beharrezkoak dirala justifiketako. Halanda be, bai, Foru Gobernuak 26 aholkulari behar dauz: 17, ahaldun nagusiaren bulegoan; eta batzuk, foru-diputadua be, berbarako, ez da makala, azken batean, gehien daukazan bigarrena be bada-eta, horraitino.

Halanda ze, zehaztasuna behar da gauzetan, hau da, ez eskatu oposizinoko taldeei Gobernuari eusten deusien taldeek egiten ez dabena eta Foru Gobernuak be egiten ez dauana. Batzar Nagusi honen amaieran garrantzitsutzat joten dodan gaiari barriro helduta, personak garrantzitsuena dira, edadekoak oso garrantzizkoak dira guretzat. Ez guri azaldu nekez sinistu daitekezan historiak, bateko eta besteko zenbakiak. 7 lagun 10.000 plazatarako, 10.000tik gora plazatarako. Holan, bada, daukien gaitasun profesionala autortu behar jake, jakina, baina, ganera, jenteari entzun egin behar jakola dinozuenean. Tira, ba, nik neuk beharginei entzun neutsen, eta zeozer jakingo dabe zerbitzu horretan jazoten danari buruz. Dinot nik kontuan be hartu beharko dala. Proposamenean islatu dogu.

Nik neuk, oraindakarren zeuon botoaren zentzuna aldatzeko astia daukagulako, nire eretziz gai alderdikaria ez danagaz bat egingo dozuen itxaropena daukat. Izan be, uste dot GUFeko alderdi sozialaren nahiz erabiltzaileen nahiz Bizkaiko zentroetako erabiltzaileen senideen aburuaren adierazgarri dan gaia dala. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Fernández Angulo. Señor Fernández Medrano, portavoz del grupo Elkarrekin Bizkaia, tiene la palabra.

El Sr. **FERNÁNDEZ MEDRANO** jaunak: Muchas gracias, señora Presidenta.

Egia esan, guretzat tristea da ekimen hau ez onartzea. Eskaerretarako eta Herritarrakazko Hartu-emonetarako Batzordeari deusagun maitetasun guztiaz, kasu honetan egun haretan bertan parte hartu ebenek barrenak askatzeko baino gehiagotarako erabili ahal

izango zan itxaropena geunkan, ekimen hau egiteko orduan Alderdi Popularrako ordezkaria bertan oinarritzen dala kontuan hartuta.

Alderdi Sozialistek modu egokian, nik uste, edo interesgarrian esaten eban zuhurtasunez edo egonarriz jokatzeko eta egoerearen barri emoteko edo maiatzean ikuskaritzeari buruz emongo dan balantzea azaltzeko unera arte itxaroteko. Guk geuk beti baloretan doguz egoerearen barri emoteko eta Foru Gobernuaren ekintzea fiskalizetako holako ekintzak. Une horrek Foru Gobernutik bertatik urtengo dauan itxaropena daukat edo, zeuok eskatuta, Gizarte Ekintza Sailaren menpean era bateko eta besteko zentroetako egoitzetako ikuskatzaileen kopurua handitzea proponiduten dozuen. Uste dot hori egiteko une egokia izango litzatekeala, zeuok eskatuta, oraindokarren zalantzak sortzen jatazalako ikustean Gernikako Osoko Batzar honetan ikuskaritzen gehikuntzarako konpromisoa hartzeko gai garala, baina ikuskaritza horreek egiten dabezan beharginen gehikuntzarako konpromisoa hartzeko gai ez garala. Lehen esan dot nabaritasun moduan, baina emoten dau hainbestekoa ez dala. Datu zehatz barik, erabiltzaileen eta beharginen ordezkarien eretxia ez da nahikoa ekimen hau abian jarteko kontuan hartu beharreko datu zehatz moduan. Ez da esanguratsua zenbat biderrez eztabaidatu dogun horri buruz, ikuskaritzako beharginen kopuru horreek handitzean kontuan hartu beharreko elementu moduan? Oraindokarren zalantzak sortzen jataz ikustean ikuskaritzen gehikuntzarako konpromisoa hartzeko gai garala, baina beharginen gehikuntzarako konpromisoa hartzeko gai ez garala. Ea, eta maiatzean ikusiko dogu zelan egiten dan balorazino hori, ikuskaritzak ikuskatzaileen kopurua aldi berean handitu barik gehitzen ez diran, horren ondorioz, larregizko lan-karga eukiko leukealako jente horrek. Agirikoa danez, martiaren 17ko akordua, eta beharbada bere garaian larregizkoa izan zan paper errea zala esatea, paper errea izango litzateke ikuskaritzen gehikuntzeari buruz berba egiten dauan 2. puntuan, baina, horrezaz ganera, egoitzetako ikuskaritzak egiten dabezan Bizkaiko Foru Aldundiko beharginak ezegonkortzeko elementua be izango litzateke.

Hori esanda, uste dot ezetz, ez dala erabakokeria, ez dot uste bat-bateko proposamena danik edo elementu garrantzitsuetan oinarrituta ez dagoanik. Uste dot nahikoa justifikauta egoan proposamena zala eta zentroetako beharginen eskaeran sustraituta egoala. Maiatzean egoerearen barri emoten danean, behar besteko aukerea eukiko dogu Aldundiaren konpromisoek zelako ibilbidea daukien ikusteko eta zelakoa dan zuon jarrera zuon zerbitzuak ondo joatea gura daben instantzia desbardinek bialtzen deusuezan eskaerei aurre egiteko orduan. Besterik ez.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Fernández Medrano. Señor Otermin Eraso, portavoz del grupo Socialistas Vascos, tiene la palabra.

El Sr. **OTERMIN ERASO** jaunak: Talde popularrak egiten ebazan baieztapenak erkatzearren, eztabaidatutako gaia, ikuskaritzen gaia, bai, legealdian bertan, 7 biderrez. Ikusi daigun, danok jakinaren ganean bagagoz, 2008ko krisi ekonomikoaren ondorioz sistemearen estres-prozesua jasan genduan, finantzaketarako sistema osorik hobetu behar zalako, eta horrek bankuko kreditu-mobimentu asko justifikau ebazan... Zer jazoten da 2020an? Mugaraino garoazala egoera sozial eta sanitarioan, personek euren etxean bizitakoari jagokonez ez eze, erakunde publikoak egiten dauzan prestazinoei jagokenez be bai. Horregaitik, ulertzekoa da hainbestetan berba egitea. Nik neuk ez dot hori txarra izango balitz lez jarri. Beste barik, berba egin dan bakoitzean, akorduren bat lortu da, eta, horren adierazgarri, nik neuk akordu batzuk azaldu dodaz. 2014. urtean, zemendian onartu genduan urtero zehazten zan hilebetean emongo zala horren barri. Oro har, memoriak martian-edo aurkezten hasten diranez, maiatzera arte ikusiko genduzan, gero Ganberan taldeei informazino horren barri emoteko. Holantxe egin da orain arte, eta Ikuskaritzen Plan Orokorra be badago. Guk geuk badinogu dana batera balorau beharko dala zer jazo dan, zer elementu aldatu, ezarri eta hobetu beharko diran benetan

ikusteko. Hemen, ondorioa ateraten da, eta zera esaten da: “ez, ikuskatzaileen kopurua handitu ezkerro, ez dakigu zenbat, egon diran arazo guztiak konpontzen dira”.

Izan be, erraztearren, jakin badakit zuok hori ez dinozuen, baina, erraztearren, guri beste gauza batzuetan pentsetan gagozala, guk neurriari ezetza emotea erabagiten dauana erespede ekonomikoa dala arpegiratzen deuskuzuen, hori be huskeria da, huskeria da. Nik neuk be autortu egiten dot kontrakoa esatea, hau da, “ez, ez, zuok, neurri horren bidez, egoitzetako arazoa konpondu dozue oso-osorik”, eta ez da egia. Ez dozue holan proponiduten, baina bide horretatik zoaze. Horregaitik, politika orokorrari buruzko eztabaidako ebazpenei buruzko eztabaidan, bosgarren ebazpena onartu genduan, eta zerikusia dauka ezinduen laguntza-eredua zein izango zan zehazteko prozesuagaz, iraupen luzekoa dala kontuan hartuta, unidate txikiagoen ereduak, beste era bateko unidateak, baita egoitzetan bertan be, zelan kudeatuko diran...

Edozelan be, hori gitxi izango balitz lez, Herritarrakazko Hartu-emonetarako Batzordera etorri ziranen agerraldia egon bazan be, joan dan hilebete, joan dan hilebete Ganbera honetan onartu genduan ikuskaritzen kopurua handitzea, zentzun horretan hobetzea.

Jakin badakigu holako gauzetan neurriak ez dirana erabatekoak eta berehalakoak eta haztatu egin behar dirana, osasunaren munduan, osasunaren arloan, onartzen badeustazue, edo laguntzearen arloan zer ikutu ugari dagoalako. Behar dan lez egin daigun. Horretarako, oso egokia izango da jakitea gure sisteman zelan joan dan 2020. urtean eta benetan kale egin dauana ikuskaritzea izan dan edo akatsak egon ahal izan diran beste arlo batzuetan, NBE-en hornikuntzan, materialaren hornikuntzan, arreta zuzenerako behar diran beste era bateko tresnetan.

Horixe bera da guk dinoguna. Hori dala eta, “beharginen gehikuntzearen” bidez konpontzea eta, horretarako, gure Aldundiko profesional askok egin daben lan eskerga hori albo batera ixtea edo ez ezagutzea eta autortu gura ez izatea, autortu egin beharko litxakienean. Nik neuk Alderdi Sozialistan autortzen dodaz euren lana eta euren zeregina. 7 ikuskatzaile gehiago, une batzuetan be, 21 lagun pandemiaren kudeaketeagaz zerikusia daukien beste elementu batzuk ikuskatzeko lanetan. Hori guztiori ahazten bajaku eta marra lodira baino ez bagoaz, hau da, “ikuskatzaile gehiago behar dira, eta Aldundiak ez dau holakorik egin gura eta Alderdi Sozialistek edo Euzko Alderdi Jeltzaleak ez dau babesten, diru-kontua dalako”, mesede eskasa egingo deutsegu profesional honeen lanari eta Aldundi honek egin gura dauan lan serioari.

Horregaitik, guk ez dogu Arauz Besteko Proposamen hau babestuko, uste dogulako une honetan ez garozala inora. Edozelan be, maiatzean aurkezten jakun txostenaren arabera eta, txertaketea... zelan bilakatzen dan kontuan hartuta, danok apurka-apurka egingo dogun balorazioaren arabera, neurri honeek hartu beharko doguz seguruenik. Beharginen gehikuntzeari ezetz esateko geunkan errazoiari buruz aurrekontuen eztabaidan aitatu zan erespedeari jagokonez, ez zan ikuskaritzearen arlokoa, ez zan diruaren arlokoa, beste barik, nondik kentzen zan eta aurrekontuetako beste mekanika batzuk hartu behar ziralako kontuan, baina, tira, hori beste une baterako eztabaidea izango da. Besterik ez.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Otermin Eraso. Señora Duque Santacoloma, portavoz del grupo EH Bildu, tiene la palabra.

La Sra. **DUQUE SANTACOLOMA** andreak: Behin eta barriro nabarmendu da nahikoa datu euki behar doguzala, ikuskaritzarako teknikarien kopurua benetan handitu behar dan ala ez baloretako, zenbatesteko.

Nire eretxiz, oposizinoaren agerraldietan, mahai ganean jarri dogu alderdi sindikalaren balorazinoa, eta gogoratu egin gura dot Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeko behargin profesionalak dirala eta, horrezaz ganera, aldi berean, Ikuskaritzarako eta Kontrolerako Zerbitzuko ikuskatzaileak be ordezten dabezala. Era berean, egoitzetako egoiliarren senideek egiten eben balorazinoa be entzun dogu. BABESTU erakundeak egiten dauan balorazinoa be entzun dogu, eta Bizkaiko egoitzetan bizi diranen familiak be ordezten dauz. Horrezaz ganera, oposizinoko taldeek egiten daben balorazino politikoa entzun dogu.

Beharbada, ez da nahikoa Gobernuan dagozan edo Gobernuari eusten deusien taldeentzat, Alderdi Sozialistarentzat eta EAJrentzat, alegia, baleiteke balorazino hau nahikoa ez izatea. Halanda be, Gizarte Ekintzako Batzordean, Sergio Murillo diputaduak, esan danez, Ekintza Plana, 2017-2019ko Ikuskaritza Plana aurkeztu euskunean, esan egin geuntsan eta barriro esango deusagu balorazinoa egin ebala eta, batez be, 2019ko datuen barri emon euskula. Aldundiaren gardentasunaren atarian, ostera, ez dagoz 2018ko, 2019ko eta 2020ko datuak, eta oraindokarren be ez dagoz. Hori dala eta, eskertu egingo neuke edo, bide batez, une onetan eskatu gura neuke, Juanek, Alderdi Sozialistako ordezkariak, iragarri deuskunez, Gizarte Ekintzako hurrengo Batzordean azken urteko datuak ekarri deiguzuezala. Aldi berean, mesedez, aurreko urteetakoak, 2018koak, 2019koak be ekarri zeinkiguz, honelako proposamenak egitean irispide handiagoa eukiteko.

Dana dala, gai ekonomikoa ez bada, Juan Oterminek esaten ebanez, aurrekontuen inguruko zuzenketei buruzko eztabaidan, baita batzordeetan emoten dan eztabaida publikoan be, eztabaidea, negoziaketea dago zuzenketa desbardinak aurkezten dabezan alderdien artean. Ganera, lehen esan dodanez, oposizinoko alderdi guztiok zuzenketa aurkeztu genduzan zentzun horretan, Ikuskaritza Zerbitzuan lan egiten daben lagunak kopurua handitzeko.

Gure taldeak Gobernuko Taldeari proposamena be egin eutsan zentzun horretan, eta inondik inora be ez jakun mahai ganean jarri txostenen bat edo balorazinoren bat egin beharko zanik, ikuskatzaileen kopurua handitzea egokia dan ala ez erabagiteko. Negoziaketa politikoa baino ez zan izan, eta, bertan, oso-oso hur euki genduan adostasuna lortzea. Izan be, Euzko Alderdi Jeltzalearen eta Alderdi Sozialistaren jarrera ez egoan beharginen gehikuntzatik urrun, zentzun horretan. Hori dala eta, ez dogu ulertzen zergaitik itxaron behar dogun 2020ko txostenaren balorazino hori egin arte.

Edozelan be, niretzat oso interesgarria izango litzateke 7 persona horreek egiten daben balorazinoa. Inork egiten daben lana egiteko orduan beharginen kopurua nahikoa dan baloretako erespiderik badauka, 7 persona horreek dira. Ez da kopuru handia, itandu egin ahal deutsegu. Era berean, bide batez, bertatik eskatu gura deusat diputaduari Gizarte Ekintzako hurrengo Batzordean 7 ikuskatzaile horreek egiten daben balorazino profesionala ekarri deigula, 154 egoitza horreetako ikuskaritzak egiteko orduan, esan dodanez, nahikoak ete diran ala ez jakiteko.

Gogoratu be egin gura neban batzorde horretan bertan azaldu euskuela Covidaren hilebeteetan egin ziran ikuskaritzei buruzko informazinoa, eta, lehen esan danez, 300 eta piku ikuskaritza egin ziran gitxi gorabehera. Euzko Alderdi Jeltzaleko ordezkariak lehen esan dauanez, gitxi gorabehera ikuskaritza bi dira egoitzako. Guk hementxe esan genduan hori nahikoa ez zala, eta, ganera, gogoratu egin gura dogu 300 ikuskaritza horreek Osakidetzako persona edo teknikari profesionalen laguntzaz egin zirala. Halanda ze, nabaria zan Ikuskaritza Zerbitzuak eukazan 7 lagunak nahikoak ez zirana, osasun-krisirako prestakuntza profesional bereziaz gain, eta indartu egin behar izan ziran.

Hori dala eta, uste dogu nahikoa balorazino tekniko eta profesional daukaguzala, eta uste dogu borondate-kontua dala, baita denpora-kontua be, eta uste dogu ezinbestean egin beharko dozuela azkenean. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora Duque Santacoloma. Señora Coria Yanguas, portavoz del grupo Nacionalistas Vascos, tiene la palabra.

La Sra. **CORIA YANGUAS** andreak: Buenos días de nuevo.

Tira, barriro esango dot diputaduaren txostena faltau dala, orain, laster, maiatzerako egongo dana, eta zuok bertan zabilze beste leku batzuetan jarten ez dozuena eskatzen, ez beste instituzino batzuetan gobernau dozunean, ez gobernetan dozuenetan.

Barriro dinogu. Behargin-kopurua nahikoa da egoera arrunterako, eta, unean uneko preminak dagozanean, Covida, barbarako, persona eta tresna gehiago zuzkitzen dira. Halanda ze, kudeaketan hobera egiteko tresnatzat jotako ikuskaritza-zerbitzuak dana dalako formulen bidez gehituko dira, egoitza-sistemea sendoa, eskuzabala eta egin-eginekua izan daiten eta egoitzetan bizi diranen preminetara zein eskaeretara eten barik egokitu daiten. Horrezaz ganera, bestetik, akorduak lantzen gagoz, gauzatu egin behar dira eta balorau be bai.

Halanda ze, bertotik, amaitzeko, eskerrak emon gura deutseguz Bizkaiko Foru Aldundiari eta egoitza guztiei, bertan bizi diranak euren etxean lez sentidu daitezcan egindako lanagaitik eta arduraldiagaitik. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Coria Yanguas. Una vez concluido el debate, vamos a someter a votación la Proposición No de Norma.

¿Votos a favor de la iniciativa? ¿Votos en contra? Ninguna abstención. Por tanto, el resultado es el siguiente:

Se han emitido 50 votos en total. Ha habido 18 votos a favor, 32 votos en contra y ninguna abstención. Por tanto, no se ha aprobado la Proposición No de Norma.

Una vez agotado el Orden del Día, se levanta esta Sesión Plenaria. Que tengan muy buen día todos/as.

Batzarra 12:43an amaitu da.

Se levanta la sesión a las 12:43 horas.